# BISITAC

ALDARECO SACRAMENTU SANTUARI

~~Josefa~~

~~Mindeguía~~

A.T.V.
2841

Si este libro se se
pierde se entregara
a ~~Sat Josefa~~
ó María
Mindegina
Larrabiru 1929

INSTITUCION SANCHO EL SABIO
OBRA SOCIAL
Caja de Ahorros de Vitoria

# BISITAC

**Aldareco Sacramentu Santuari**
**Gure Ama Birgiña Mariari**
**eta Aitalen**
**edo Patriarca San Joseri**
**Illabetiaren egun gucietaraco**



# GUCIA

## ALDARECO SACRAMENTU SANTUAGATIC

M-10023
R-4417

# BISITAC

## ALDARECO SACRAMENTU SANTUARI
## GURE AMA BIRGIÑA MARIARI

eta

## SAN JOSERI

Alfonso M. Ligorio Santuac eguiñac
eta Monseñor Felipe de Jesus Echeverría
Aita Santuaren "Prelado Domestico" deitzen denac
euscarara itzuliac edo euzqueraztuac:
gañera nic antolatuac badamazqui,
cristabac eguiñ bear dituen otoitz batzuec, ongui confesatu
eta gure Jauna artzeco yaquiñ
eta eguiñ bearrac: Calbariuac, Meza santua, Arrosariua
eta canta gayac.




TOLOSAN:
Muguerza anaien moldizteguian, 1926-garren urtean

*Nihil obstat:*
Fr. Damasus de Inza.
*O. M. C.—Censor.*

*Imprimatur:*
† Matthaeus, Episcopus Pampilonensis.

*Ex mandato Revmi. et Iltmi.*
*Domini mei Episcopi:*
Dr. Aloisius Goñi
*Magister-Scholæ, Serius.*

# Iracurleari edo leitzaleari

*Nere leitzale maitia. Badaquit aunitzac asanen dutela: Ba ¡liburu bat gueiago! Bai, liburu bat gueiago, eta ala ere, ez da asqui aldareco Sacramentu Santuari zor diogun maitetasuna ordaintzeco eta gure biotzetan Beraren maitetasunaren sua bistutzeco.*

*Nai nuque, bada, nic ere nere aldetic eguiñ alduten gucia, gure Jesus maitia Aldareco Sacramentu Santuan izan dedin maitatua, adoratua, bisitatua eta debocio eder au zuen artean zabaldua.*

*Badaquit ere aunitzac maiseatu edo criticatuco nautela, cergatic ez duten idatzitzen edo escribitzen euscara argui eta garbi gaurco erara, baño, etzait batere axolic: bada, ez dut escribitzen eliztia edo gramatica bat euscaraz eracusteco, orretaco badire eracasleac edo maisuac, baicic eguiten dut, aldareco Sacramentu Santuaren debociua zabaltzeco, nic Berari zor dioten mesede aundi bat ordaintzeco, zuen animetan bere*

*maitetsunaren sua bistutzeco, zuec ceruratzeco eta zuec aisa entenditzeco: bada or dabiltzen liburutxuac, badaquit ez dezutela errax leitu eta entenditzen, batez ere, Naparruco erri oyetan, ceñentzat nic eguiten duten liburutxu au.*

*Nic eriñen dut eta Jesus Sacramentatuac eguiñen du bertze gañeracua, baldin zuec urbiltzen bazate maiz Bederarengana maitetasun aundiaquin. Nere asmoa olaxen aguertuta, escatzen dizut, nere leitzale maitia, Jesus Sacramentatua bisitatzen dezun aldiro oroitu zaiten nitaz eta esca zaiyozun nere pecatuen barcaciua, nere animaren salbaciua, eta nere Jesus maitiac erruqui nazala: nic ere zutaz otoitz eguiñen dut Meza ematen duten aldiro.*

*Bedincatzeco eta alabatzeco aldareco Sacramentu Santua izan bedi, bada, liburutxu au.*

Monseñor Felipe de Jesús Echeverría.

*Beinza-Labainan 1926-garren urtean.*

# SARRERA

Ez da nere asmoa, cristab ona, zuri siñetsesitzea Jesucristo dagola aldareco Sacramentu Santuan; bada fedezco eguia au siñesten dezula, badaquit. Ezta ere, ez naiz guelditucо zuri adirazitzen gure Jauna dagola aldarean maitetasunezco eta erruquizco yarlecu edo tronu batian bezala, andic bere mesedeac, graciac eta ondasunac gure biotzetan ixurtzeco; ori eracusten duten liburuac dire aunitz. Nic escatzen dizutena da, guelditu zaitecela pixco bat cere artean pensatzen, iya zure maitetasuna eta esquer ona Jaungoicozco Sacramentu orrentzat, ote diren, zure fedeac eracusten dizun bezalecuac, eta arquitzen badezu epela dela zure maitetasuna, txiquia zure debociua Sacra-

mentu Santu arrigarri orreri, orduan erregutzen dizut, artu dezazula asmo sendo bat egunero egoteco ordu laurdentxo batez aldareco Sacramentu Santuaren aurrean. Eta elizara ecin yuan cerenian, cere etxetic, belaunicaturic eliz aldera beguira, adoratu eta bisitatu dezazu ta cere escariac eta otoitzac eguiñ cizu.

Beti eguiñ bear dituzu bisita oyec iru gauza gatic: lenbicicua, adoratzeco erreberencia ta maitetasun aundiaquin, eta esquerrac emateco Jesucristori, cergatic eguiñ zuen aldareco Sacramentu Santu ori eta cergatic ortxen guelditu cen gure maitetasunaz. Bigarrena: Sacramentu Santu ontan guizonac heurec eguiten dizquioten irain edo agrabiuaren eta naigabearen zorrac ordaintzeco. Irugarrena: apaltasun edo umildade aundiaquin cere pecatuen barcaciua escatzeco, ontzeco gracia, Jaungoicuaren maitetasu-

nean bicitzeco iraupena eta betico zoriontasuna ceruan.

Eguia da, Jaungoicuac aditzen ditula lecu gucietan gure erreguac eta otoitzac, baño ez da eguia txiquigua, ugaritasun aundiguaquin zabaltzen eta ixurtzen ditueła bere doaiyac eta graciac aldareco Sacramentu Santu ortan. Eta, ¿norc esan, cenbat pecatu gutxigo eguiñen lirequen, eta cenbat gutxigo condenatuco lirequen, debocio eder au zabalduco balitzeque, eta cristab geigoc bisita oyec eguiñen balituquete, eta Sacramentu Santuaren aurrian gueigo egonen balireque?

Dudaric gabe, debocio gucien artian, Jaungoicuari ederretstzen edo gustatzen zayona da au: aldareco Sacramentu Santuan Jesus adoratzia, eta guretzat ere oberen-oberena auxen da. Cein mesede arrigarriac erditsi cituten santuac eta cenbat pecatari oneratu edo conbertitu diren de-

bocio unen bitartez, ¿norc esan lezaque? eta ¿norc daqui zuc ere Sacramentu Santu orren aurrian artuco dezun asmoa Berari biotz-biotzatic eta oso-osua emateco edo entregatzeco? Asi zaite bada Jesús bisitatzen eta ecusico dezu cer mesediac edo fruituac billuco dituzun. Bisita oyec eguiteco, emin arquituco dituzo illabatiaren egun bacocharaco, baita ere Ama Virgiña eta San Joseeren bisitac: ez dire nic asmatuac, baicic San Alfonso Ligorio, Obispo aundi arrec, nic ez dut eguiñ euscarera itzuli edo eusqueratu berceric, zure biotzian aldareco Sacramentu Santuaren amoriuaren sua bistutzeco. Ala izan dedila, Jesús, María ta José santuaren lagunzarequin. ¡¡¡Gora edo biba Jesús Sacramentatua!!!

EUZQUERATU-DUENAC.

**ITZ BI Comunio gogozco edo espiritualen gañian**

Nola, aldareco Sacramentuaren bisita guciaren azquenian esaten baita comunio espirituala eguiteco, ongui izanen da zueri adiracitzia cer den, eta cer mesede aundiac erdisten diren comunio espiritualen bitartez.

Santo Tomasec dionaz, comunio espirituala da gogo edo deseo bero bat izatea Jesús Sacramentatua arceco, eta Berari, errecibitu baiguiñu bezala, amoriozco besarca bat gueuren biotzian ematia.

Ceiñ Jaungoicuaren gogocuac diren deseiozco comuniuac, eta cenbat mesede ta gracia ematen dituen aren bitartez Jaunac berac agertu cion bere serbitzale Sor Paula Maresca, Napolesen Santa

Catalina Senacoaren conbentua eguin zuenari, eracutsi cionean bi baso, bat urrezcua, eta bertzia cillarrazcua: urrezcuan gordetzen cituela comunio eguiazcuac, eta cillarrezcuan comunio espiritualac. Elizaco yaquinsuac eta Trentoco Conciliuac alabatzen dute deseozco comuniua, cergatic den aiñ ona eta eguiteco arraxena, eta naidute cristabac maiz eguin dezaten.

Juana de la Cruz beneragarriac cion, deseozco comuniua eguin ditequela, iñorc ecusi gabe, baruric egon gabe, iñoren baimenic gabe eta edociñ ordutan, bada artaraco asqui da aguercia amorio aundi bat Jesús Sacramentatuari eta biotz biotzatic esatia.

### Comunio gogozcua edo espirituala

¡Oh nere Jesús maitia! nic siñesten dut zaudela or, aldareco Sacramentu Santuan: maitatzen

zaitut gauza gucic baño geigo eta nai ciñuzquet artu oraiñ nere biotzian: baño, nola eciñ artu baizaitut Sacramentu Santuan, atoz beñezpin gogoz eta oraintxe artu baiciñuzquet bezala besarcatzen zaitut nere biotzian eta bat eguiten naiz edo yuntatzen naiz Zurequin. ¡Ay Jauna! eguizu ni ez nadin lecutu beiñere zure ondotic.

**Erreguchua edo jaculatoria:**

¡Oh nere Jesús maitagarria, nere biotzeco esposo maitia! ¿noiz eramanen nazu cerura?

**Egunero bisitaren asiran esateco Otoitza**

Nere Jesucristo Jauna, gure amorioz zaude gab ta egunaz Sacramentu Santu orretan, errucuitasunaz eta amorioz beteric, beiñere aspertu gabe gure esperun, guri deica, eta errecibitzen Zu bisitatzera etorcen diren gu-

ciac. Nic siñesten dut sendoqui or zaudela aldareco Sacramentu Santu orretan. Adoratzen zaitut nere biotz eta anima guciaquin: esquer aundiac ematen dizquizut eguin dizquidazun mesede gucian gatic, eta batez ere, eman direzulaco Sacramentu Santu beneragarri orretan, zure gorputza, zure odola, zure anima eta zure Jaungoicotasuna eta cergatic eman direzun nere bitartecoz zure Ama María Santísima eta cergatic oraiñ deitu nazun lecu santu ontan Zu bisitatzera. Adoratzen dut zure biotz maitagarria iru gauzagatic. Lentabicicuá: esquerrac emateco gure artian gueldiztziaquin egin diguzun mesede aundi orretaz: bigarrena: Zuri Sacramentu Santu orretan cere etsayac eguiten dizquizuten ezespen edo injuriaren ordez: eta irugarrena: cergatic nai zaituten bisitatu eta adoratu munduco lecu gucietan eta eliz gucietan, batez ere baca-

rrago, abandonatugo eta iñor zutaz oroitu gabe zauden ayetan.

Nere Jesús ona, nic maitatzen zaitut nere biotz guciaquin: damu dut orrenbeste aldiz Zu ofendituaz eta arcen dut asmo sendo bat emindic aurrera zure graciaren laguntzaquin ez gueyago pecaturic eguiteco eta Zu maitatzeco nere biotz guciaquin: eta oraiñ naiz izan ni olaco cupigarria edo miserablia, esquincen dizut naicen gucia, eta ematen dizut nere borondatea, nere biotza, nere gorputza ta naicen eta alduten gucia. Emindic aurrera eguin dezazu, Jauna nitaz nai dezun gucia. Nic nai eta escatzen dutena da, zure amorio santua, zure borondatea beti eguitia eta nere azqueneco asnasia eman arte zure gracian irautia: era berian oroitu zaite purgatorioco arimataz, batez ere araco arima zuri aldareco Sacramentu Santu orretan eta Ama virgiñari debocio aundigua

zuten ayetaz, baita ere erregutzen dizut pecatari gucien mesedian. Azquenic, nere Salbatzale amorosua, nai dut bat eguiñ edo yuntatu nere deseio guciac, nere biotzeco nai izate guciac, zure biotz amorioz beti orrequin, eta olaxen bat eguiñic, esquincen dizquiot Zure Aita Beticuari eta Zure icenian escatzen diot Zuri dizun amoriogatic artu eta eguin dezala guc escatzen digun bezala.

### Ama Virgiñari eguneroco azquen erregua

¡Oh Virgiña garbia, María Santísima, nere Ama maitia! Zuregana eldu naiz gaur pecatari gucien artian urricarrina edo miserablina, ezaguturic cerala nere Salbatzalian Ama, ceruco eta munduco Erreguiña, pecatarien bitartecua, esperanza eta igueslecua. Adoratzen zaitut ¡oh Erreguiña aundia! eta esquerrac ema-

ten dizquizut oraiñ arte eguiñ tirezon mesede guciaz, batez ere cergatic libratu nazun nere pecatuac mereci cituzten infernuco penatatic. Maitatzen zaitut, Ama guciz gozua, eta zuri dizuten amoriuengatic arcen dut asmo sendo bat beti eta beti zuri serbitzeco eta eguiñen dut aleguiñ gucia zabalceco zure zaletasun eta debociua denac izan daitecen zure serbitzale eta maitazaleac. ¡Oh Ama erruquitsua! Jesucristoren urrengo zuretan dauquet nere esperanza gucia. Artu nazazu zure umetzat eta zaitu nazazu: eta nola baidezu aiñ escubide aundia Jaungoico gure Jaunaquin, libra nazazu tentacio gucitatic eta erditsi zaidazu gracia eta lagunza ayetan ez erortzeco nere bician, ezta ere eriotzeco orduan. Escatzen dizut Jesucristo nere Jaunanganaco amorio aundi bat, eta zure bitartez uzte dut erditsico dutela eriotzeco ordu on

bat. ¡Oh nere Ama maitia! Jaungoicuari dauquezun amoriungatic escatzen dizut lagundu zaidazula orain eta beti, baño, batez ere nere azqueneco orduan: ez nazazula utzi, arren, bacarric ceruan sartu arte an alabatzeco eta cantatzeco Zurequin batian Jaungoicuaren misericordiac betiraunde edo eternidade gucian. Ala izan dedila.

## SAN JOSERI

### eguneroco azquen erregua

Etorcian ni gaur eliz ontara bisitatzera nere Jesús Sacramentatua eta María Santísima gure Ama misericordiazcua, ¡oh San José gloriosua! ¿nola egongo nintzen zutaz oroitu gabe, baldin zu, mundu ontan bicitu ciñen bitartian, izan bacera Jesús eta Mariaren guiaria eta zaizalea, beñere aldendu edo lecutu gabe ayen ondotic, eta ceñaren besuetan eman

ciñuen zure azqueneco asnasia? Aditu eta artu ditzazu bada, Santu birtutez betea, bisit ontan nere escariac eta esquinzac. Santa Teresa, zure maitazaleac, esaten zuen, etzuela beñere zure icenian mesde bat bacar-bacarric escatu erditsi gabe: ni ere emin eldu naiz zure aurrera José poderosua, eta uste edo confianza osuaquin escatzen dizut zure laguntza indarsua bici naicen bitarte eta batez ere nere eriotzeco orduan; zuc bezala, Jesús eta Maríaren besuetan eman arte nere anima, guero zurequin batian gozatzeco ceruan. Ala izan dedila.

**Erreguchua edo Jaculatoria:**

Jesús, José eta María nic ematen dizuet nere biotza eta nere anima: Jesús, José eta María lagundu zaidazue niri nere eriotzeco orduan: Jesús, José eta María ni illcian artu dezazue ceuren be-

suetan nere anima. (300 d. ind. egunin beiñ. Pio IX 26 Jun. 1863.)

## SACRAMENTU SANTUARI

**illabetiaren lenbicico eguneco bisita**

*(Asieran egunero esateco erregua pj. 13)*

Orra emin nun dauquezun, cristab ona, ontasun gucien iturria, Jesús aldareco Sacramentu Santuan, ceñac dion «Egarric dagona betor neregana» ¡Oh! ceiñ graci ugariac ateri dituzten Santu guciac aldareco Sacramentu Santuco iturri orretatic, ceñetan gure Jesús maitiac ematen dituen ugari bere neque ta pasioco merecimentu guciac: Isaias profetac dion bezala: «Yuanen zate pocic ura esque Salbatzaliaren iturrira» Feriaco Condesa Santa Claraco monja arreri; ceñeri deitzen cioten, Sacramentu Santuaren esposa, pasatzen zuelacoz ainbeste denbora aldareco Sacramentu Santuaren aurrean, galdetu cio-

ten, ¿cer eguiten zuen aiñ denbora lucean aldarean aurrean? esan zuen: «Pocic egonen nitzeque ni an betiraunde edo eternidade gucian» Cer ¿ezaldago bada aldare santu orretan zorionecun betico atseguiña eta yanaria eta gloria, Jaungoico ber-bera? ¡Ah! ¿eta galda eguiten direzue cer eguiñen degun Jesús Sacramentatuaren aurrean? Maitatu, adoratu, alabatu, esquerrac eman eta escatu. ¿Cer eguiten du beartsu edo pobre batec aberats baten aurrean? ¿cer eriac sendalari edo medico baten aurrean? ¿cer egarri aundi dauquen batec, iturrico ur garbi eta otz baten aurrean?

¡Oh nere Jesús maitia, nere bicia, nere esperanza, nere ondasuna eta nere animaren amorio bacarra! ¡Oh! eta cenbat gosta zatzizun guregatic guelditzia or Sacramentu Santu orretan. Or guelditu ciñenian baciñaquin cenbat esquergabequeri, cenbat zitalque-

ri eta cenbat charqueri eguiñen cizuten guizonac: ¡ah! baño aundiagua izan da zure caridade suzcua. Bai, gucia garaitu zuen guri diguzun amorio aundiac eta gure amoriua irabazteco ciñuen deseio aundi arrec.

Atoz bada, Jauna, atoz sartu zaite nere biotzaren barrenian, eta etsi atea betico, ez dadin sartu munduco gauzan bat, ebastera zuretzat bacar-bacarric dauqueten amoriua. ¡Ah nere salbatzale maitia! minzatu zaite nere biotzera, bada erne nago aditzeco: aguindu dezazu, Jauna, nai dezuna, bada prest nago gucia ongui eguiteco: eta baldin noizpait ez badut eguiten zuc nai dezun bezala, orduan cigortu edo castigatu nazazu, guartu nadin eta asmoa artu dezaten zuc nai dezun bezala eguiteco. Eguizu nic ez dezaten izan bertze deseioric, eta ez dezaten billatu bertze atseguiñic, baicic zure borondatea eguiñ,

zu serbitu, bisitatu aunitz aldiz aldareco Sacramentu Santu ortan eta nere biotzian artu maiz-maiz comunio santuan.

Nai dituenac bertze gaüzac, billa bitza ordu onian, nic beñepin ez dut nai eta ez dut deseatzen eta escatzen zure amoriuaren ondasun aundi ori bertzeric, eta au da nic beti escatuco dizutena aldare santu orren aurrian. Eguizu atzendu nadin nere buruaz, oroitzeco bacar-bacarric zure ontasun neurrigabiaz. ¡Ah Serafin zorionecuac! nic ez dizutet enbidiric zuen glori aundiaz, baño bai ez dutelacoz zuec biceiñ amorio aundia Jaungoico gure Jaunari. Eracutsi cirazue cer eguin biarduten aldareco Sacramentu Santua maitatzeco eta serbitzeco.

**Erreguchua:**

¡Oh nere Jesús ona! zu bacarric nai zaitut maitatu, zuri bacarric serbitu.

*(Comunio deseiozcua edo espirituala paj. 12, au egunero eguin bear da eta guero bisitac María Santisimari eta San Joseri.)*

## AMA VIRGIÑARI

### lenbicico eguneco bisita

Oh mantxaric gabea eta oso garbia Virgiña Maria, Jaungoicuaren Ama, zu cera zure Seme Jesusen urrengo pecatarien esperanza eta justuen atseguiña: zure bitartez adisquidatzen guera gure Jaungoico Jaunarequin. ¡Oh Erregiña aundia! estali gaitzazu zure misericordiaren egalaquin, erruquitu zaite gutaz: bada nai degu zuri serbitu, artu gaitzazu zure umian artian eta ez utzi Luciferrec eramen gaitzen infernuco sura. Oh Virgiña garbia, emin eldu guera zure itzalpera, eta zure umiac garen bezala escatzen dizugu uste edo confianza osuaquin baquetu edo aplacatu deza-

zula zure Semiac gure pecatuangatic dauquen aserria ez gaitacen utzi demoniuaren menian infernuan.

**Erreguchua:**

Oh María gure poza-emallia erreguzazu gutaz.

*(Eguneroco azquen erregua pj. 16.)*

**SAN JOSERI**

**illabetiaren lenbicico eguneco bisita**

¡Oh José gloriosua! Espiritu Santuac berac eguin zuen zure alabanzaric aundiena deitu cizunian: «Jesusen Aita eta Virgiña Maríaren, esposo garbia» eta Aita Beticuac beztitu zaitu, olaco cargu aundiac escatzen zuen bezalaco edertasun eta birtutiaquin. Orregatic Eliz-Ama Santac esaten dizu, birtutez eta bedincacioz betia, cergatic zutan arquitzen diren Abel, Noe, Abrahan,

Jacob, José, Job eta beste Aitalen edo Patriarca gucian birtuteac. Naiz zu izan azquen-azqueneco Patriarca, ala ere zuc cereganatu cintuen ayen ontasun guciac eta oraňican gueiago.

Graciaren bitartez, Jesús eta Mariaren umia naicen bezala, era berian nai dut izan zuria, José doitsua, eta orregatic umildade eta uste edo confianza osuaquin escatzen dizut zure lagunza indarsua erdisteco gracia ongui bicitzeco mundu ontan, eriotz on bat eta guero ceruco gloria. Ala izan dedila.

**Erreguchua:**

Oh José gloriosua erditsi zazquidazu zure Seme Jesusen bedincaciuac.

*(Eguneroco azquen otoitza pj. 18)*

## SACRAMENTU SANTUARI

### bigarren eguneco bisita

*(Asieraco otoitza pj. 13)*

Guizon Jaungoico zale batec dio: delacoz oguia yanari ona eta gordeta iduquitzen dena galdu gabe egun batzuez, orregatic Jesucristo gure Jaunac gueldituu nai izandu zuen oguiaren iduri edo anzan, orrela ez bacarric izateco gure animaren yanaria comunio santuan, baita ere gure artian egoteco sagrariuan, an arquitu dezagun nai degun gucietan, aguercen digula onela gureganaco bere amoriuaren aunditasuna. San Pablo Apostoluac dio, umildu eta apaldu cela Jaungoico gure Jauna artuzuenian serbitzale baten iduria. Eta cer esango degu guc, ecustian gure amoriuagatic arzen duela egunero aldare gañian ogiaren iduria? San Pedro Alcantarac dio: ez dela mingañic aguer-

tzeco Jesucristo gure Jaunac, gracian arquitzen den animari duen amoriuaren aunditasuna, eta ala, asmoa artu zuenian, gure animaren Esposo gozua unec, bere Aita Beticuangana itzulceco, ez ecustian bera munduan, artaz atzendu ezguiñacen, utzi cigun bere oroipenan Sacramentu Santu ori.

¡Oh nere Jesús maitia! bici-lecu edo sagrario orretan zauden ezquero, zure ume miserable oyen erreguac entzuteco, aditu dezazu oraiñ munduan den pecatariric aundienaren otoitzac. Emen eldu naiz zure oñetara oso urriquitua, ezaguturic ceiñ gaizqui aundia eguin duten zu ofenditzian. Lentabicico escatzen dizut nere pecatu gucien barcaciua.

¡Ay! eta ayan edo ¡ojala beñere pecaturic eguiñ ezpanu! ¡ojala millaldiz ill banitz zu ofenditu baño len! Oraiñ emin zure aurrian ezaguturic zure ontasun aundia,

damu dut zu ofendituaz eta nai zaitut biotz-biotzetic maitatu eta serbitu. ¡Oh nere Jaungoico aundia! aguertu zazquiyozu ceruco Aingueru eta Santu guciari zure indar eta misericordi neurrigabiac, eguizu pecatari aundi onetatic zure maitatzale aundi bat, zuc aisa eguin dezaquezu ori: eguizu bada, arren, nere Jaungoico maitia. Zure aldetic eman cerazu ezduten edo falta duten gucia alduten gueiena zu maitatzeco, eta beiñepiñ, ainbeste, cenbat ofenditu zaituten. Maitatzen zaitut nere Jesús ona, maitatzen zaitut munduco gauza guciac baño gueyago. Nere Jaungoicua, nere amoriua eta nere on gucia.

**Erreguchua:**

Nere Jaungoicua, zu cera nere on gucia.

*(Gogozco edo deseiozco comuniua pj. 12)*

## MARIA SANTISIMARI
### bigarren eguneco
### bisita

¡Oh munduco Erreguiña eta gure Ama maitia! Zu cera pecatarian bitartecoric indarsuna Jesucristoren urrengo, ceiñ den bitartecoric nausiena bere Aitarequin: zu cera munduco itsasu ontan galcen direnan salbatzalea: zu cera munduaren poztasuna, cautibun erospena, erian osasuna, naigabetuan atseguiña eta denaren igueslecua. ¡Oh graciaz betea! arguitu dezazu nere adimena edo entendimentua, lixatu nere mingaña zure alabanzac cantatzeco, batez ere Ainguruac eman cizquizun alabanzac, ceiñac diren zuretzat egoquienac. Adoratzen zaitut oh mundu gucico paquia, salbaciua eta poza. Adoratzen zaitut atseguiñ guciaren lecua, graci gucien iturria, Jaungoico eta guizonaren arteco paque-eguillia.

**Erreguchua:**

Oh María, pecatarian igues-lecua iduqui zazu nitaz misericordia.

(*Eguneroco azquen erregua pj. 16*)

**SAN JOSERI**

**bigarreu eguneco bisita**

Ala nola María zure esposa garbia, Aita Beticuac berexi zuen munduco andre gucien artetic bere Semiaren Ama izateco, era berian, o José santua, berexi zaitu zu munduco guizon gucien artetic, izateco bere Seme Jesusen Aitaordecua eta Ama Virgiña mancharic gabiaren esposua. Orregatic Eliza-Ama Santac yaquiñic cristab guciac guerala, batayo santuan artu guiñuen graciaren bitartez Jesucristoren anayac eta Ama Virgiñaren semiac ceñac gurutzearen oñian artu guinducen bere umetzat, icendatu edo nom-

bratu zaitu denaren aurrian bere ume guciaren Aita eta lagunzalea.

Zure itzalpera eldu naiz, nere Aita amorosua, eta uste dut entzunen dituzula nere otoitzac. Zuc, aditu ciñuen bezala Ainguerauaren itza, laisterca iguesi eguin ciñuen Herodes gaistuaren atzaparratatic libratzeco María eta bere aurcho yayo berria: aguertu cerazu cenbat eta cenbat peligruaren ar tian nagon eta erditsi zure Seme Jaungoicuangandic biar dituten indarrac eta lagunzac iguesi eguiteco pecatutic eta demoniuangandic, ceñac naiduen galdu nere anima: zaitu eta lagundu cirazu negarrezco lur ontan eta guero eraman nazazu betico zoriontasun artara. Ala izan dedila.

**Erreguchua:**

Oh cristabaren beguirazalea, erruquitu zaite nere biartasun aundiaz.

(*Azquen otoitza pj. 18*)

## SACRAMENTU SANTUARI

### irugarren eguneco bisita

*(Asieraco otoitza pj. 13)*

Ona emin, gure Jesús maitia, ceñentzat etzen asqui gurutze batian gure amorioz bere bicia ematia, baicic illta onduan gueldítu nai izan zuen aldareco Sacramentu Santuan guri adiracitzeco, guizonan artian egotian dituela bere atseguiñac. Oh guizonac (oyu eguiten du Santa Teresac) ¿Nola duzue ausardia ofenditzeco gure Jauugoicua: ceñac dion zuen artian dauzquiela bere atseguiñ guciac? gure Jesus maitiac dauzqui bere atseguiñ guciac gure artian egotian, eta ez degu guc atseguiñ artuco berarequin egotian? ¿guc ceñeri eguin digun alaco mesede aundia nola den bere jauregui edo palaciuan beraquin bicitzia? ¡Ah! ceiñ honra aundia iduritzen zaioten guizona-

ri bizitzia munduco erreguiac bere jaureguian ematen dion bicilecuan! Orra bada emin erregue guciaren Erreguearen jaureguia: auxen da etxea, ceñetan biciga-ren Jesucristorequin, esquerrac eman zazquiogun eta minzatu berarequin amorio eta confianza osuaquin. Emin naucazu, nere Jaungoico eta Salbatzalea, aldare unen aurrian ceñetan zauden zu gab eta egun nere amoriogatic: Zu cera gauza on gucien iturria: Zu cera gaitz gucien sendazalea, Zu bearsuaren diru emallia. Emin daucazu bada oraiñ auspezturic zure oñetan pecatari bat beste guciac baño errucarri eta bearsugua, ceñac escatzen dizun barcaciua, iduqui zazu, arren, Jauna, nitaz misericordia. Aundia da bai nere gabetasuna edo miseria, baño ala ere ez dut galdu nai nere esperanza, ecustian nola egunero yeusten ceran cerutic lurrera Sacramentu Santu orretan, nere

oneraco. Nic adoratzen zaitut, alabatzen eta maitatzen zaitut, eta nai badezu nic limosnatxo bat escatzea, auxen escatzen dizut, enzun nazazu: Jauna, nic deseatzen dut emindic aurrera berriz beiñere Zu ez ofenditzia, eta eman cirazu arguitasuna eta biar dituten graciac Zu maitatzeco nere biotz guciaquin. Jauna, maitatzen zaitut nere anima guciaquin eta nere biotzeco amorio guciaquin: eguizu nic au esan dezaten ez agoz bacarric, baicic ciñez biotz-biotzetic negarrezco balle ontan eta betiraunde gucian. Oh Jaungoicuaren Ama Santa, ta nere Ama maitia, ceruco Santu guciac, Ainguerauac eta zorioneco guciac lagun cerazue maitatzen nere Jaungoico maitagarria.

**Erreguchua:**

Oh Jesús Artzai ona, eta nere animaren eguiazco yanaria, erru-

quitu zaite gutaz eta atseguiñaz beteric bici gaitecen ceruan.

*(Deseiozco comuniua pj. 12)*

### MARIA SANTISIMARI

**irugarren eguneco bisita**

¡Oh nere Ama maitia! zu cerana Jaungoicungandic artzen duten atseguiñic aundiena: zu cerana nere oñaciaren goza-garria: zu cerana nere animaren arguia, arquitzen denian illuntasunaz inguratua: zu cerana nere guiaria nere ebilleratan: sendotasuna nere beldurretan: ondasuna nere beartasunian: erremediua nere gaitzetan eta zu nere atseguiña nere naigabetan. Zu cerana nere lagunzalea nere miserietan eta Jesucristoren ondoren nere esperanza gucia: enzun nazazu, eta eman cidazu escatzen duten gucia, cupitu zaite nitaz eta Jaungoicuaren Ama ceran bezala ez

ucatu oraiñ escatzen dizuten gracia. ¡Oh biotz beratxa! ¡Oh erruquitsua! ¡Oh Ama Virgiña gozua!

**Erreguchua:**

Oh biotz beratxa, oh erruquitsua, oh Ama gozua beti Virgiña Maria gutaz erregu zazu.

*(Azquen otoitza pj. 16)*

## SAN JOSERI

### irugarren eguneco bisita

Oh José doitsua, esquer onaz beteric Aita Beticuan alde, cergatic aguindu cizun zaitzeco munduan bere Seme guizon eguiña eta beti Virgiña gozua María: Oh Patriarca ontsua, cere indar eta borondate guciaquin asi ciñen betetzen olaco Aita beticuaren aguindua. Cenbat zor dizute zure ume guciac, lagundu diozulaco gure salbacioco eguiteco edo

obra aundi orretan Nazaretco aurtxo gozuari, ceñac erosi edo erredimitu biarzuen mundua, eta naiz Jaungoicua gucialsua bacenere, zagon zure menian atseguiñaz betia ecustian zure birtute ederrac. Ebangelio santuac itz biequin eguiten du zure alabanza gucia esanaz, ciñela: «Guizon Justua». ¡Eta cenbat ez digute eracuzten bi itz oriec! Eguizu, José santua, nere lagunzale maitia, billatu dezaten zuc bezala gauza gucietan zucentasuna edo justicia. Erditsi zazquidazu biar dituten graciac garaituric mundua, demoniua eta araguia sartu nadin egun batian betico zoriontasun ceruco Jerusalen artan, Jaunaren Santun artian. Ála izan dedila.

**Erreguchua:**

¡Oh José, Patriarca Santua! zuc zaitu ciñuen bezala munduan Jesus aurtxua, gorde dezazu nere anima infernuco etsayatatic.

(*Eguneroco azquen erregua pj. 16*)

## SACRAMENTU SANTUARI

### laugarren eguneco bisita

*(Asieraco otoitza pj. 13)*

Munduan adisquide direñac, aiñ atseguiñ aundia arcendute elcar ecustian, ceñac pasatzen dituzten egun osoac solasian aspertu gabe: guc ez badegu ayec bezala eguiten, Jesús Sacramentatuaquin, aspertzen baguera Sacramentu Santuaren aurrian berarequin solasian egotian: ori da, cergatic ez degun maitatzen, cergatic ez garen Jesusen adisquidiac. Santu guciac arquitu zuten lurrean beuren atseguiñ gucia ortxen aldareco Sacramentu Santuaren aurrian. Santa Teresac esan cion bere erligioco monja bateri: «guc, ceruan gaudenac eta zuec lurrian bici zatenac izan biar guiñuque berdiñac garbitasunian eta amoriuan, gu gozatzen eta zuec sufritzen: eta guc ceruan

eguiten deguna Jaungoico gure Jaunaquin ori ber-bera eguin biar dezue zuec aldareco Sacramentu Santuaquin.»

¡Oh Billots mantxa gabia, gurutzian guregatic illa! oroitu zaite ni naicela ainbesteco oñaciaquin eta alaco eriotzaquin erosico anima bat, eguizu zu izan zaitecen beti neria eta bici nadin beiñere zu galdu gabe, orain bada, eman ceran ezqueroz, ceran gucia niri eta egunero ematen ceran ezquero aldare gañian sacrificatzen cerenian, eguizu ni ere naicen gucia izan nadin zurea.

Nic ematen dizut naicen gucia zuri, eguin dezazu nitaz nai dezun gucia. Nic ematen dizut nere borondatea, lotu dezazu zure amorio gozuaren catiaquin izan dedin beti zure borondate santuaren serbitzale leala. Mundu ontan ez dut bici nai baicic zure borondate bazter gabia eguiteco. Quendu eta lecutu dezazu nere ondotic

zure gogocua ez dena edo gustatzen etzaizon gucia. Eman zaidazu indarra zure aguinduac eguiteco eta zuri beti serbitzeco. Biotz-biotzetic maitatzen zaitut nere Salbatzale maitagarria: maitatzen zaitut zuc ala nai dezulacoz: maitatzen zaitut cergatic mereci dezun neurri gabeco amoriuaquin maitatzea, damu aundia dut cergatic etzaituten maitatu zuc mereci dezun aiña: ill nainuque zure amoriungatic, artu dezazu, Jauna, nere deseio au eta eman cidazu zure amoriua.

**Erreguchua:**

¡Oh nere Jaungoicuaren borondatea! ori eguiñ naidut nere bici gucian.

*(Deseiozco comuniua pj. 12)*

### AMA VIRGIÑARI

**laugarren eguneco bisita**

¡Oh nere Ama biotzecua! Zu cerana nere zaitzalea, eguizu zu-

requin batian mereci dezadan gozatzia, zuc ceruan gozatzen dezun zoriontasuna. Bai, nere erreguiña, nere igueslecua, nere bicitza, nere laguntza, nere gordezalea, nere atseguiña, nere sendotasuna eta nere esperanza, eguizu ebilli nadin beti zucen zurequin batian ceruco bidean. Jaungoicuaren Ama ceran ezquero, badaquit aisa erditsi dezaquezula neretzat graciac ugari nere anima santificatzeco eta ceruan sarceco. Oh María, zu cera bitarteco indarsuena pecatariac salbatzeco, eta zarelacoz Salbazaliaren Ama belaxen aditzen dituzu gure otoitzac.

**Erreguchua:**

Nere Ama, nere esperanza, eguizu ni gucia izan nadin Jesusena.

(*Azquen otoitza pj. 16*)

## SAN JOSERI

### laugarren eguneco bisita

«Eracusleric edo maisuric ez duenac arbeza maisutaco San Jose» dio Santa Teresa zure alaba maitiac, eta eguiaz: ¿Nun arquituco du, Oh José maitia, cristab batec bere anima santificatzeco, zure bicitza santua biceiñ ederric? ¿nun olaco icaspideric? zuc eracusten diguzu denari zure icaspide edo ejempluaquin (eta au da eracusteco moduric ederrena) bacotxac bete dezan bere estaduco eguin bearrac. Eta eguiaz, familiaco guratso batac, ama erne batac, eche aundi bateco buruac, nai badute icasi zuc bezala eguiteco, zure bicitza languille ta cinzuan arquituco dituzte ejemploric ederrenac. Naiz izan zu erregue aundiarena semia, ala ere ecusi zaituzte beti pozaz beteric araco zurguin lecu apal artan, ceñetan Jaungoicuac paratu

zaitun: zure etxetxua zutic iduquitzen duten abeac edo puntalac dire, zuc guelditu gabe eguiten dezun lana eta otoitz berua, eta ango edertasuna da Jesus aurtxua eta bere Ama Virgiña María.

Orregatic nere Santu doitsua, nic artutzen zaitut nere maisu eta guiaritzat zure lagunza indarsuaquin erditsi ditzaten graciac ugari zure antzera betetzeco nere bicibideco eguin biarrac negarrezco balle ontan eta olaxen erditsico dut egun batian arquitzia zure onduan atseguiñaz beteric zure Seme eta ceruco santu guciaquin. Ala izan dedila.

**Erreguchua:**

Oh José santua, etxeco eta berce gañeraco, birtute gucien eracuslea, eguizu segui dezaten beti zure icaspideac.

(*Azquen otoitza pj. 18*)

## SACRAMENTU SANTUARI

### bost garren eguneco bisita

*(Asieraco otoitza pj. 13)*

¡Ah nere Jaungoicua, nere Erreguia ta nere Jauna! ¡Nola nai nuquen oraiñ sentsumen edo sentido guciac mingaiñ biurtzea, alabatzeeo eta ezquerrac emateco zure ontasun aundiaz Jaungoicozco Sacramentu onetan! nun zauden beti prest enzuteco eta atseguintzeco zure ume esquergabe au. ¡Oh Jauna! gueyegui maitatu dituzu guizonac, bada Sacramentu Santu orretan eman diozu eman al ciñazquen gucia, oyec bereortan zu maitatu zaitazten. ¡Ah, nere Jesus maitagarria! Eman ciguzu amorio aundi bat Zu maitatzeco, bada ez da ongui amorio epelaquin maitatzia, aiñ amorio suzcuaquin maitatzen duen Jaungoicua. Cereganatu gaitzazu zure amoriuan indar go-

zuaquin. ¡Oh Jaungoicuaren aunditasun eta ontasun neurri gabia! Zuc ainbeste maitatzen dituzu guizonac: Zuc eguin dituzu olaco gauza arrigarriac, guizonac zu maitatzeco: eta ala ere ceiñ gutxi diren zu biotz-biotzetic maitatzen zaituztenac. ¡Oh Adanen umiaren esquergabequeri belza! ¡Baño, ay! ¡Jauna, ni neurre-ere, zorigaistuan izandu naiz noizpait orietaco bat! baño, emindic aurrera ez naiz ala izanen: bada nai zaitut maitatu alduten gucia, eta maitatu zu bacar-bacarra: zuc ala dezu mereci, eta nic ala eguin nai dut, ontan atseguiña eman naidizut: ¡Oh nere animaco Jaungoicua! eguizu nic beti zu atseguintzia, eta izan nadin beti zure gogocua: ala esperatzen dut eta ala escatzen dizut. Eman zazquiozu nai badezu mundu ontaco ondasunac, nai dituenari, nic naidutena eta billatzen dutena ez da bertzeric, baicic zure amoriuaren onda-

sun larri ori. Maitatzen zaitut, nere Jesus, ontasun neurri gabea: Zu cera nere ondasun gucia, nere atseguiñ gucia eta nere amorio gucia.

**Erreguchua:**

Nere Jesus, Zu ceran gucia cera neretzat eta ni dena zuretzat.

(*Gogozco edo deseiozco comuniua pj. 12*)

### AMA VIRGIÑARI

**bost garren eguneco bisita**

¡Oh munduco Erreguiña! Guc, ainbeste pecatu eguin ta onduan, aguertu bear degu egun batian Jesucristoren aurrian. ¡Norc otzandu edo aplacatuco du! Ez da iñor zuc baño obequi eguiñen duenic, ¡Oh Ama indarsua! bada zuc aunitz maitatzen gaituzu eta Jesusec zu aunitz maitatzen zaitu. Idequi dezazu bada, ¡Ama erruquitsua! zure biotzeco enzumena

eta enzun gure erreguac eta deiac. Guc nai degu gorde zure itzalpe indarsuan. Baquetu dezazu zure Semiaren aserria eta itzuli guri beraren adisquidetasuna.

Zuc ez dezu gorrotoric pecatariari, den aundiena izanta ere, ez dezu zure ondotic botatzen, baldin zugana etorcen bada, eta damuturic escatzen badu zure laguntza. Zuc zure ezcu ongui-eguilliaquin ematen diozu esperanza ez dadin galdu. Zuc sendotzen eta indartzendezu bere esperanza eta ez dezu utzitzen, ¡Oh Ama maitia! bere Juezarequin baquiac eguiñ arte.

**Erreguchua:**

Ama maitagarria, erregu zazu gutaz.

*(Azquen otoitza pj. 16)*

## SAN JOSERI

### bost garren eguneco bisita

Jesús eta Maríaren biotz go-

zuaz landara, ez da Jose Santuaren biotz beratxa bezalacoric, eta unec bezala mereci duenic gure amoriua eta gure beneraciua. Biotz orretan arquitzen dire birtute guciac eta da ispillu eder bat, ceñetan beguiratu biarduten, mundu ontaco zoraqueriac utzita ceruco gloria erditsi nai duten animac. Nic, nere Jose maitia, nai dut izan anima oyetatic bat, orregatic eldu naiz zure lagunza indarsuaren billa. Ala nola zuc zaitu ciñuen beiñere aspertu gabe Jesus aurtxua eta beraren gazte denbora, ceñac salbatu biar zuela mundua, bazañaquin Ainguerú eta Simeonen agotic, era berian zaitu nazazu ni ere, eman cirazu indarra nere etsayac garaitzeco, eta erditsi cirazu zure Seme Jesusengandic biotzeco garbitasuna, bicitzeco pecaturic gabe lurrian eta eraman nazazu guero cerura, bicitzeco atsegui-

ñaz beteric zorioneco gucien artian. Ala izan dedila.

**Erreguchua:**

San Jose nere lagunzalea, eman zaidazu gracia ciquindu ez dezaten nere anima pecatuaren lizunqueriaquin.

(*Azquen otoitza pj. 18*)

## SACRAMENTU SANTUARI

### seigarren eguneco bisita

(*Asieraco otoitza pj. 13*)

Jesucristoc dio: Bacotxac dauquela bere gogua eta biotza, an nun dauquen bere gauzaric maitiena. Nola Santu guciac ezpaidute maitatzen mundu ontan Jesucristo berceric, orregatic beuren biotza eta beuren maitetasun gucia dauquete aldareco Sacramentu Santuan. ¡Oh nere Jesus maitagarria! niri direzun amoriogatic, zaude gab eta egun Sacra-

mentu orretan, bistu dezazu nere biotzian zure amoriuaren sua ez dezaten maitatu bertze gauzaric Zu bacar-bacarra baicic, ez dezaten pensatu baicic zutan, ez dezaten billatu eta esperatu bertze onaric Zu baicic. Eguizu arren, nere Salbatzale amorosua, nic escatzen duten bezala, zure pasioco merecimentuagatic. ¡Ah nere Salbatzale Sacramentatua! ¡Ceiñ arrigarriac diren zure amoriuaren asmacariac, gure animaren amoriua cereganatzeco! Oh Jaungoico guizon eguiña, etzen asqui zure amorio beruantzat, guizon eguitia eta gurutze batian yosiric bicia ematia gure onagatic, gañera nai izandu ciñuen gueldítu Sacramentu orretan guri lagun eguiteco, gure yanaria, gure dena eta gure gloriaren esperanza izateco. Zu aguertu ciñen gure artian ya aurtxo baten idurian ganbela batian, ya languille pobrecho baten idurin cere Aitor-

decuari laguncen zurgiñ lanetan, ya gaisto baten idurin gurutze batian yosia eta azqueneco aguercen cera egunero gure aldarean gañian oguiaren idurian. Esan zaidazu, Jauna, ¿cer gueyago asmatu ciñazquezun guizonaren amoriua cereganatzeco eta oyec biartuceco Zu maitatzera? ¡Oh ontasun neurri gabia! ¿noiz asico naiz bearden bezala Zu maitatzen eta Zuc niri direzun amorio aundi orreri ordaincen? ¡Ah Jauna! ez dut bici nai baicic Zu maitatzeco. Nere bici gucian ari nai dut maitatzen nere Salbatzale ona, ceiñ aritu cen bere bici gucian ni maitatzen. Eta ¿cer berce gauzaric maitatu dezaquet, nere Jauna, Zutaz landara, izanic Zu orreiñ ederra, orreiñ gozua, orreiñ ona eta, orreiñ maitagarria? Bici bedi nere anima bacar-bacarric Zu maitatzeco, quiscali bedi zure amoriuaren suarequin, oroitzen naizen aldiro zure amorioz, eta

aditzen duten bezala, gurutzea, Belengo estalpea, aldareco Sacramentua: eta bistu bedi nere biotzian deseio aundi bat zure amorioz gauza aundiac eguiteco. ¡Oh nere Jesus biotzecua, eta ceiñ aundiac diren neregatic eguiñ eta sufritu dituzun gauzac!

**Erreguchua:**

Eguizu, Jauna nic ere ill baño len eguin dezaten cerbait zure amorioz.

(*Deseiozco comuniua pj. 12*)

**AMA VIRGIÑARI**

**seigarren eguneco bisita**

¡Oh nere Ama maitea, Maria Santisima! Zu cera araco emacume bacar-bacar ure, ceñetan gure Salbatzaleac arquitu zuen bere atseguiña eta ceiñeri eman cizquion bere ondasun guciac deus-ere ucatu gabe. Orregatic mundu guciac onratzen du zure sabel

garbia, Jaungoicuaren egon lecu eta eliza bailiz bezala, bertan izandu zuelacoz asiera munduaren erospen edo salbaciuac eta an eguin zelacoz paquia Jaungoicuaren eta guizonaren artian. ¡Oh Jaungoicuaren eta gure Ama maitagarria! Zu cera araco baratze etsia ure, ceñetan etzen sartu mundutarric ciquinceco zure garbitazuna. Zu cera araco loretegui eder ure, ceñetan Jaungoicuac paratu cituen Eliz-Ama Santa edercen duten lore guciac, eta ayen artian zure umiltasunaren bioletachua, zure garbitasunaren lilia, zure caridadearen arrosa. ¿Norequin berdinduco zaitut o graciaren eta edertasunaren Ama? Zu cera Jaungoicuaren gozalecua: zuregandic ateri cen ur biciaren iturria ugaritzeco mundu gucia. Cenbat ongui ez dezu eguiñ munduan, bada, zure bitartez eta zure escutic eldu zaizquigu ceruco graci eta ontasun guciac.

**Erreguchua:**

Nere Ama maitia, eguizu nere biartasun gucietan zuri deitu dezaten.

*(Azquen otoitza pj. 16)*

## SAN JOSERI

### seigarren eguneco bisita

Gure Santu maitia, Eliz-Ama Santac, zure pestac eguitean, Escritura santaren itz oyec erasten dizquizu: «Santificatu zuen bere fedian eta bere sotiltasunian eta berexi zuen aragui gucien artetic» (Eclesiastico c. XLV) Eta eguiaz: garaitasun edo dignidade aundi arrec, ceñetaraco ceruac autatu ciñucen, etzuen gutxiago mereci Jaunaren aldetic.

Ainguerua aguertu cizunian, Maria Virgiñaren sabelian guizon eguiñ biarzuela Jaungoicuaren Semiac, zuc cere fediaquin, siñetsi ciñuen batere dudaric gabe eta atseguiñ aundiaquin eraman cintuen Jesus aurchuaren Aitor-

de eguitean arquitu ciñtuen nequiac eta naigabiac. ¡Oh Jose, nere lagunzale maitia! eguizu zure antzera, izan dezaten fede bici bat eta zuc bezala eraman dezaten pacienciarequin eta quejatu gabe Jaungoicuac bialcen dizquidan nequiac eta naigabeac.

Zuc uste badezu nic mereci dutela graci au, orduan izanen dut esperanza, arquituco naicela egunen batian ceruco Billotsaren atzetic duacin ardian artian.

**Erreguchua:**

Jose, Maria Virgiñaren esposo gozua, eman zaidazu gracia zuc bezala eguiteco.

(*Azquen otoitza pj. 18*)

### SACRAMENTU SANTUARI
**zazpigarren eguneco bisita**

(*Asieraco otoitza pj. 12*)

Gure arzai maitazale unec, eman zuen bere bicia, gu, bere ardiangatic, eta illta onduan ere

etzuen lecutu nai izan gure ondotic. Emin nago, dio, nere ardi maitac, emin nago beti zuequin, zuen gatic guelditu nai izan nuen lurrian Sacramentu ontan: emintxen arquituco nazute nai dezuen aldiro, zueri lagunceco eta zuec atseguintzeco, etzaituztet utzico bici ceraten bitartian eta mundua mundua den artian. San Pedro Alcantarac dio: Esposo maitiac nai izan zuen utzi bere Esposa maitiari lagunen bat etzadien bacarric guelditu negarrezco balle ontan, eta orregatic asmatu eta eguin zuen Sacramentu Santu ori, ceñetan guelditzen cen Jesucristo bera, ceiñ den lagunaric oberena.

¡Ah nere Jauna ta nere Salbatzale maitagarria! oraiñ eldu naiz aldare ontan Zu bisitatzera: Zuc ordaincen direzu bisita au, amorio neurri gabeco batequin, etorcen ceranian nere animara comunio santuan. Orduan ez bacarric

aguercen cera niri, baita ere eguiten cera nere yanaria eta Zu dena cera neretzat: eta olaxen bioc bat eguiñic esan dezaquet eguiaz: orain nere Jesus ona, dena neria cera. Baño, Jauna, Zu ceran ezqueroz dena neria, nic ere osoosoa nai dut izan zurea. ¡Oh amoriozco Jaungoicua, oh nere animaren amoriua! Noiz izanen ote naiz gucia zurea ez bacarric itzetan baita ere eguiñetan, Zuc eguiñ dezaquezu ori, aunditu dezazu bada, Jauna, nere confianza eta nere esperanza, erdisteco zure odol beneragarrien irabacian edo merituangatic, zure amoriua, eta izan nadin dena zurea oraiñ eta eriotzeco orduan ere. Zuc, Jauna, entzuten dituzu gucien otoitzac, enzun ditzazu bada ciñez maitatu nai zaituen anima baten erreguac. Bai, Zu maitatu nai zaitut nere indar guciaquin, eta eguiñ nai dut Zuc aguindu dezun gucia, baño ez irabaciangatic, eta

atseguiñic eta sariric gabe. Naidut zuri serbitu bacar-bacarric zure amorioz, zure onguinaiaz, eta atseguinceco zure biotz maitagarria eta onguieguillea, ceñeri zor dizquioten mesede aundiac: nere saria Jauna, izan bedi zu maitatzea suzco amorio aundi batequin mundu ontan eta guero zure arpeguia ecusi ta atseguiñaz betea bicitzia betiraunde gucian zurequin ceruan. ¡Oh Aita Beticuaren Seme maitia! Artu dezazu nere laquemena edo libertadea, nere borondatea, nere gauza guciac eta ni naicen gucia ere bai eta eman zaite zeurre niri. Nic maitatzen zaitut, eta nic billatzen zaitut, zuri deitzen dizut: Zu bacarra maite zaitut, Zu bacarra maite zaitut, Zu bacarra maite zaitut.

**Erreguchua:**

Nere Jesus biotzecua, eguin nazazu dena zurea.

*(Deseizco comuniua pj. 12)*

## MARIA SANTISIMARI

### zazpigarren eguneco bisita

¡Oh ceruco Erreguiña! Zuregatic dio Espiritu Santuac: ¿«Nor da araco goiceco egun-urratzia bezala aguercen den au, guerogo ta gorago duayena, ederra illarguian antzera eta autatua iguzquia bezala»? Zu etorri ciñen mundura goiceco argui-urratzia bezala, aurretic adiracitzen ciñuala cere santidadearen arguiaquin Justiciaco Eguzquiaren etorrera ¡Oh ceiñ egun ederra cen Zu mundura aguertu ciñen eguna! ¡ceiñ ongui deitu deitaquen salbaciozco eta graciazco eguna! Zu cera ederra illarguia bezala, cergatic ala nola ez den izarbel eguzquiaren antzegocoric illarguia baño, alaxen ez da ceruan iñor Zuc baño Jaungoicuaren antza aundigua duenic. Illarguiac arguitzen du gabaz iguzquiaren-

gandic artzen duen arguitasunaquin, eta Zuc arguitzen dituzu gure illuntasunac zure birtutearen arguiaquin. Bañan, Zu cera illarguia baño ederragua, bada Zutan ez da mancharic ez eta ere itzalic. Zu cera autatua iguzquia bezala: au da, guc ecusten degun eguzquia au eguin zuen Jaungoicozco Eguzquiaren jarrailea edo imitazalea. Jauna izandu cen autatua guizon gucien artian eta Zu andre gucian artian.

**Erreguchua:**

Maria, Jaungoicuaren Ama erregu zazu Jesuseri nitaz.

(*Azquen otoitza pj. 16*)

**SAN JOSERI**

**zazpigarren eguneco bisita**

San Jose, nere lagunzale maitia, Eliz-Ama Santac deitzen dizu: Mariaren esposo garbia: eta eguiaz; zure garbitasunac casic

ez du neurriric. Jaungoico gure Jaunac berexi zuen bere Amatzat birgiña gucien Birgiña, garbitasunaren Erreguiña, mancharic gabe sortua, Zu autatua izandu ceran ezquero alaco Virgiñaren Esposotaco, yaquiña da, garbitasuna izanen cela zure apaingarri edo adornuric ederrena. Gañera, betico Billotsac, nola gauza guciac baño gueyago maitatzen baitu garbitasuna, orregatic bere aitordeco, berexi zuen munduco guizon gucien artian cen guizon garbiena. Emin eldu naiz bada, nere Santu biotzecua, eta escatzen dizut, arren, erditsi zaidazun Jesus eta Mariac ainbeste maitatzen duten garbitasunaren gracia. Birtute garbi eta cerucua orrec emanen dizquio egalac nere animari eriotzeco orduan, mundu ontaco lizunqueriac eta miseriac utzitzian egaca sartu dadin ceruan.

**Erreguchua:**

Ama Virgiñaren Esposo garbia erditsi zaidazu garbitasuna.

*(Azquen otoitza pj. 18)*

**SACRAMENTU SANTUARI**
**zortzigarren eguneroco**
**bisita**

*(Asieraco otoitza pj. 13)*

Aldareco Sacramentu Santuan bisitatzen duten guciari esaten dio Jaun onec, Escritura santan Esposari esan ciona: «Goratu zaite, laster eguizu, nere maitia, nere ederra, eta atoz» (Cant. 2) Bisitatzera etorri ceran anima, goratu zaite cere pecatutatic eta zure miseritatic, bada emin nago zu aberastzeco nere graci guciaquin. Laster eguizu, atoz neregana, nere aunditasunaren beldurric ez izan, bada dago apaldua eta gordea Sacramentu ontan, quenceco zuri, bercela izanen ci-

ñuquen beldurra, eta emateco confianza osua. Nere adisquidia, etzara nere etsaya, baicic nere adisquidia, bada zuc maitatzen nazu, nic ere maitatzen zaitut zu, nere ederra, nere graciac edertu zaitu. Atoz unat, besarcatu nazazu, eta escatu zaidazu nai dezun gucia confianza osoaquin.

Santa Teresac esaten zuen: ceruco Erregue aundi au dagola Sacramentu onetan oguiaren idurian, estaliric bere aunditasuna, gu beldurric gabe urbildu gaitecen confianza gueiagoquin bere biotz Jaungoicozcora. Guacen bada gure Jesusengana confianza eta amorio aundiaquin, elcartu edo bat eguin gaitecen Beraquin eta escatu zazquiogun graci eta mesede anitz. ¡Oh Jaungoicuaren Semea gure amorioz guizon eguiña eta Sacramentu orretan zaudena! ¿Ceiñ aundia ez du izan bear oraiñ nere atseguiña, jaquitean nagola Zure aurrean eta Zu

cerala nere anima ainbeste maitatzen dezun Jaungoico aundia eta ontasun neurri gabea? Jaungoicua maitatzen dezuen animac, nun nai, naiz ceruan eta naiz lurrean arquitzen bazate ere, maitatu dezazue oraiñ aunitz nere ordez. Nere Ama maitia, Maria Santisima, lagun cerazu maitatzen nere Jesus biotzecua. Eta Zu, nere Jaun maite-maitia, izanen cera emindic aurrera nere amorio guciaren yabea. Artu dezazu nere borondate gucia, ematen dizut nere adimena ez dacen beiñere pensatu zure ontasunian bercetan, ematen dizut nere gorputza lagundu dezaden unec ere Zu atseguincen: esquincen dizut nere anima dena zurea izateco. ¡Oh nere Jaun maitia! Nic nai nuque mundu guciac ezagutzia zeiñ aundia den denari Zuc diozun amoriua ola guciac bici daitecen bacar-bacarric Zu onratzeco eta atseguinceco, Zuc mereci eta nai

dezun bezala. Nic beñepein bici nai dut beti erretzen zure edertasun neurrigabecuaren amoriuan. Arcen dut asmo aundi bat eguiteco beti emindic aurrera zure borondatea eta Zuc nai dezun gucia, naiz ontaraco eraman bear bainituque naigabeac eta galdu gauza guciac baita ere nere bicia bera. Zorionecua izanen nintzeque ni, baldin duten gucia galduco banuque Zuregatic, nere Jaungoicua, nere ondasuna, nere amoriua eta nere gucia.

**Erreguchua:**

Jesus, nere amoriua, artu dezazu nere laquemen edo libertade gucia.

*(Deseiozco comuniua pj. 12)*

## AMA VIRGIÑARI

### zorcigarren eguneco bisita

¡Oh Maria, gure Ama beti gozua, aundia eta maitagarria! Ez

daiteque aipatu zure icena, biotza zure amoriuaren suan quixcali gabe. Zu eguiazqui maitatzen zaituztenac, ez dire beiñere oroitzen zutaz ez bada Zu gueiago eta gueiago maitatzeco. ¡Oh ceruco Erreguiña! lagundu zaiguzu gueuren biartasunetan, eta zure escubide aundiaquin eguizu izan gaitecen zure maitazale zinzuac. ¿Nor dago Zu baño urbillago minzatzeco Jesucristo gure Jaunari, bada zaude beraren ondo-onduan eta ez daqui cer eguiñ zure amorioz? Minza, minza zaite, Ama maitia, bada zure Semiac dena enzuten dizu eta Zuc guretzat escatzen dezun gucia erditsico dezu.

**Erreguchua:**

Nere Ama maitia, eguizu beti oroitu nadin Zutaz.

(*Azquen otoitza pj. 16*)

## SAN JOSERI

### zorcigarren eguneco bisita

Munduco aundiac beuren goico yarlecutic bota cituen Jaungoicuac eta goratu cituen munduco txiquiac edo umillac dio Ama Virgiñac araco «Magnificat» deitzen den cantu eder artan, esquerrac emateco denboran Aita Beticuari eguiñ dizquion mesede gucietaz. Jesucristoc berac ere dio Ebangeliuan: goratzen dena izanen dela apaldua, eta apalzen dena goratua, orregatic, Zu, Jose santua, guizon gucien artian apalena, izandu cera goratua cargu aundi artara. Jaungoicuaren Seme guizon eguiña etzen yuan jaureguietara eta munduco guizon yaquinsu eta aberatsen artera bere Aitordecuan billa, baicic zurguiñ-etxetxo batera, ceñetan bici ciñen zu, naiz izan erreguen ondorengo edo descendientia, ala ere etziñuen batere lotsaric cere

copetaco icerdiaquin irabazteco cere yanaria. San Jose, nere zaitzale maitia, erditsi zazquidazu bearditanten graciac, ezaguturic nere deuseztasuna eta ecusiric nere pecatu aundiac apaldu eta estali nadin lurreco autsaren azpian, merecitzeco egunen batian zure lagunzaquin goratua izatea ceruan araco mundu ontan Jesucristoren gatic umillac izandu ciren ayen artean. Ala izan dedila.

**Erreguchua:**

Jose doitsua, apalenan artian apalena, erditsi zaidazu nere deuseztasunaren edo nere miseriaren ezagura aundi bat.

*(Azquen otoitza pj. 18)*

## SACRAMENTU SANTUARI

**bederetzi garren eguneco bisita**

*(Asieraco otoitza pj. 13)*

Aita Albarez beneragarriac ecu-

si zuen Jesus aldareco Sacramentu Santuan zauzquiela bere escuac graciaz eta ondasunaz betiac eta ayec nori eman billa. Santa Catalina Senacuac gure Jauna arzen zuen aldiro yuaten cen ala nola aurcho bat yuaten den lasterca eta pozaz beteric bere amaren bularra arcera.

¡Oh Aita Beticuaren Seme bacar maitia! Ezagutzen dut Zuc bacar-bacarrac mereci dezula gure amorio gucia, orregatic nai ciñuzquet maitatu bearden bezala edo beiñepein anima batac maitatu ciñazquen bezala. Badaquit nere esquer-gabequeriangatic eta cergatic etzaituzten maitatu bearden bezala, ez dutela mereci oraiñ Zu maitatzea ez eta ere zure onduan egotia, oraiñ nagon bezala eliz ontan: baño badaquit ceurrec berac escatzen direzula nere amoriua. Aditzen dut nola esaten direzun, «Nere umea, eman zaidazu zure biotza»: eta

berriz, «maitatuco dezu cere Jauna eta Jaungoicua zure biotz guciaquin». Oraiñ arte gorde badirazu nere bicia eta ez banazu bota infernura nere pecatuac escatzen zuten bezala, ori eguiñ dezu, ni arrepentitu eta biurtu nadin biotz-biotzetic zuregana. Ea bada, Jauna, nai dezun ezquero nic Zu maitatzea emintxen eldu naiz, nere Jaungoico maitia zuregana, zure aurrean nago eta naicen gucia zure mendean nago. ¡Oh nere Jaungoicua, dena ontasuna eta amoriua! Zu bacarra artu zaitut nere biotzeco Jaun eta Erreguetzat: Zuc escatzen derezu nere biotza eta nic ematen dizut dena, orra, Jauna, nere biotza, da otza eta gogorra, baño Zuc arcen badezu beraxtu, biguindu eta onduco dezu. Eguizu, Jauna, eguizu bici nadin, ez oraiñ arte bezala, esquergabecua eta zureganaco aiñ amorio gutxicua, baicic zure amoriuaren suan quixcalia eta

bici nadin beti Zu maitatuaz, orrela nolabaitere ordaindu dezaten oraiñ arte nic zuri aguertu dizuten amoriuaren gabetasuna.

**Erreguchua:**

Nere Jaungoicua, nere Jaungoicua, nic nai zaitut ciñaz maitatu.

*(Deseiozco comuniua pj. 12)*

## MARIA SANTISIMARI

### bederatzi garren eguneco bisita

Bedicatzen zaitut ¡Oh nere Ama maitia, Virgiña Maria! Zu cera Jesucristoren urrengo cristab gucien esperanza: enzun dezazu pecatari maite zaituen eta Jaungoicuaren urrengo Zuretan dauquen bere zoriontasuna erdisteco esperanza: Jaungoicuaren urrengo Zuc ematen direzu bicitza, eta uste dut zure bitartez erditsico dutela zure Semiaren gracia: es-

catzen dizut zure lagunza ateratzeco nere pecatuen mendetic: arguitu dezazu nere adimenaco illuntasuna: lagun zaidazu nere biotzeco bidegabequeriac lecutzen: lotu ditzazu nere etsayac eta ez beiñere nere ondotic aldendu, zucendu ditzazu beti nere pausuac ceruan sartu arte. Ala izan dedila.

**Erreguchua:**

¡Oh Maria! gure esperanza, agur.

*(Azquen otoitza pj. 16)*

## SAN JOSERI

### bederatzi garren eguneco bisita

¡Oh Jose Santua! Erregue gucien Erreguiac, munduaren Eguilleac, mundu ontan ugari ixuri eta onduan bere doaiac eta edertasunac, nai izan zuenian yeutsi lurrera gu salsatzeco, autatu zuen bere siascataco, ganbela bat Belengo estalpe batian, guri eracuste-

co cenbat maitatzen duen umiltasuna eta pobreza eta ceiñ gutxi balio duten munduco ondasunac eta aunditasunac. Antxen ciñauden Zu, Aitalen edo Patriarca biotzecua, ganbelatxuaren onduan aurtxo Jaungoicuari eta bere Ama aundiari lagunceco aitaric oberenac bezala, eta esan deitaque eguiaz, len maitatzen baciñuen umiltasuna eta pobreza, emindic aurrera gueyago maitatuco ciñtuela, ecustian nola Jaungoicuaren Seme guizon eguiñac, munduan sarcian autatu cituen bere laguntaco. Orregatic Eliz-Ama Santac deitzen dizu bearsuaren, txiquiaren eta umillaren lagunzalea. Lagun cerazu bada nere Santu maitia. Eguizu ezagutu dezaten nere argaltasuna edo miseria, eta ceiñ gutxi balio duten mundu ontaco ondasunac, eta erditsi dezaten egunen batian betico zoriontasuna esquiñia bearsuari eta umillari. Ala izan dedila.

**Erreguchua:**

Patriarca gozua, Jesus aurtxuangandic erditsi zaidazu gogozco pobreza eta umiltasuna.

*(Azquen otoitza pj. 16)*

## SACRAMENTU SANTUARI

### amargarren eguneco bisita

*(Asieraco otoitza pj. 13)*

¡Oh mundutar eruac:! dio San Agustiñec ¿Nora zuazte ceuren biotzac ase-betetzera? Atozte Jesusengana, bada berac bacarric beteco ditu zuen biotzac zuec nai dezuen atseguiñaquin. Nere anima, etzaitecela zu ere izan munduco zoro erguel ayen antzecoa: billatu dezazu bacar-bacarric Jaungoicua: billatu dezazu, San Agustiñec dion bezala, araco ona ure, ceñac berequin dauzquien bertze gañeraco on guciac. Eta nai badezu agudo arquitu, ortxen

cere ondoan dauquezu: esaiozu nai dezun gucia: bada, Sagrario orretan dago zu poztutzeco, zuri eñtzuteco eta escatzen dezun gucia emateco. Santa Teresac esaten zuen: ez dazquetela nai duten guciac itz egaiñ munduco erreguiaquin, eta eguiñ dezaqueten gueyena dela, norbait billatu aren bitartez aguerceco erreguiari beuren biartasunac: baño Zurequin itz eguiteco; ¡Oh ceruco Erreguea! ez degu bitarteco biarric, cergatic zaude beti guertu edo prest gure erreguac enzuteco.

Munduco erregueac dituzte egun eta ordu yaquiñac, ayequin itz eguiteco, baño, ¡Oh ceruco Erreguea! Zu, aldareco Sacramentu Santu orretan beti zaude prest, naiz gabaz, naiz egunaz, guc nai degun ordu gucietan, gurequin itz eguiteco eta gure erreguac enzuteco. ¡Oh amoriozco Sacramentua! ceñetan ematen ceran

guri comunio santuaren bitartez, eta zaude beti aldare orretan, sagrario orretan gure otoitzac aditzeco. Zereganatu ditzazu amoriozco cate gozuaquin, araco biotz ayec, ceñac zoratuac zure ontasun neurrigabecuaz, ez duten bertze deseioric baicic zure borondate santua eguiñ eta Zu atseguindu: baita ere, nere Jaungoico maitia, zereganatu dezazu nere biotz argala edo miserablia au, ceñec oraiñ nai zaituen Zu maitatu eta zure menpian bici. Gaurtic aurrera utzitzen ditut munduco ondasunac, esperanzac, atseguiñac, nere anima eta nere gorputza eta bertze gauza guciac zure ontasun neurri gabecuan escuetan, eguiñ dezazu, Jauna, nitaz naidezun bezala: ez naiz emindic aurrera quejatuco, oh nere Salbatzale maitia, zure aguintze santuaren caltez edo contra: badaquitelacoz, Zuc eguiten dezun gucia, ateratzen dela zure biotz maitegarria-

tic nere oneraco: Zuc nai dezun gucia, ori bera da nic ere oraiñ eta beti nai dutena. Eguizu nitaz nai dezun bezala, ni gucia zure borondatiaquin bat eguiña guelditzen naiz, cergatic daquiten dela gucia ona, gucia santua, gucia ederra eta gucia maitagarria. ¡Oh nere Jaungoicuaren borondate santua! ¡cenbat maitatzen zaituten! Naidut beti bici eta ill zurequin lotua eta basarcatua: zure naia da nere naia, zure deseiuac nere deseiuac. Nere Jaungoico maitia lagun cerazu, arren, eguizu emindic aurrera bici nadin bacar-bacarric zuretzat, bacar-bacarric maitatzeco zure ontasun neurri gabea. Iil nadila ni zure amorioz, Zu ill ciñen ezqueroz nere amorioz. Nic gorrotatzen ditut egun ayec, ceñetan eguin nuen nere borondatea zure borondatearen calte. Maitatzen zaitut ¡oh Jaungoicuaren borondate santua! Jaungoicua aiña,

cergatic ceran Jaungoicua berbera, maitatzen zaitut nere biotz guciaquin eta ematen dizut neurre naicen gucia.

**Erreguchua:**

Oh nere Jaungoicuaren borondate santua, zu cera nere amorio gucia.

*(Gogozco edo deseiozco comuniua pj. 12)*

## AMA VIRGIÑARI

### amar garren eguneco bisita

Bedicatzen zaitut, o Maria, graciaz betea, Jauna dago zurequin. ¡Bedicatzen zaitut gure atseguiñaren etorburua! ceñetan, zure Semearen bitartez puscatu cen gure betico condenacioco epaia edo sentencia eta biurtu zen zoriontasunian. ¡Bedicatzen zaitut Jaungoicuaren gloriaren eliza, ceruco Erreguiña, eche santua! ¡Zu

cera Jesucristoquin batian, Jaungoico eta guizonen artian paque-eguillia! ¡Bedicatzen zaitut gure poztasunaren Ama! Eguiaz bedicatua cera, cergatic Zu bacar-bacarra, andre gucien artian izandu cera mereci ciñuena Jesusen Ama izatea, eta orregatic deitzen dizu mundu guciac zorionecua. Oh Maria, baldin nic zutan paratzen badut nere confianza, erditsico ditut nere anima ceruratzeco bear dituten graciac, zure itzalpian edo menian egon ezquero, ez dut deusaren beldurric, bada, Zu eguiaz maitatu ezquero, ez nazu utzico zure lagunzaric gabe nere etsayac garaitzeco.

**Erreguchua:**

Ama maitagarria, erregu zazu nitaz.

(*Eguneroco azquen erregua pj. 16*)

## SAN JOSERI

### amargarren eguneco bisita

San Juan Ebangelistac dio: Jesucristo etorri cela bere umiac salbatzera, eta oyec esquergabequeriaz beteac, etzuten ezagutu nai izandu, eta gaizqui eguiñ cioten. Yayotzian Belengo estalpian deus gabe eta miserian, bacar-bacarric Zu eta zure Esposa garbia arquitu ciñeten an errecibitzeco eta ongui etorriac emateco gure Salbatzale amorosuari. Yayo zen ezqueroz Jesus aurchua, Zu izandu ciñen ure zaitu ciñuena, zure copetaco icerdiaquin irabaci ciñuen bere yanaria eta Zuc zucendu ciñtuen bere lenbicico pausuac mundu ontan.

Nola bada arrituco guera, Maria, Jaungoicuaren eliz bicia lurrean, eta ceruco aingueruaren Erreguiñaren urrengo Zu bacera cristab batec Jesusen aurrean, arquitu dezaquen lagunzaleric in-

darsuena! Zugana, bada eldu naiz, nere zaitzale amorosua, San Jose, nere beguiratzale aundia, eta escatzen dizut ez nazazula utzi, arren, lagunzaric gabe nere salbacioco langaian.

Zutan dauquet nere confianza gucia, Santu maitia, lagun zaidazu bada, bici naicen bitartian eta baita ere nere eriotzeco orduan. Ala izan dedila.

**Erreguchua:**

San Jose Aitalen edo Patriarca aundia, erditsi zaidazu ongui illzeco gracia.

(*Azquen otoitza pj. 18*)

### SACRAMENTU SANTUARI
### amaicagarren eguneco
### bisita

(*Asieraco otoitza pj. 13*)

Ez gaizaten beiñere lecutu, dio Santa Teresac eta ez ditzagun

beiñere quendu gure beguiac Jesus, gure artzai onaren ondotic: cergatic ala nola artzaiaren onduan beti dabilcen ardiac izaten diren maitienac eta bere escutic beti cerbait gauza on artzen dutenac, alaxen, guc ere artuco ditugu mesede aundiac urbilcen gueran aldiro Jesusengana aldareco Sacramentu Santu orretan. ¡Ah nere Salbatzale Sacramentatua! emin naucazu zure onduan, ez dut nai bertze mesederic baicic amorio aundi bat biotz-biotzetic Zu maitatzeco eta amorio ontan irauteco. Nic alabatzen zaitut eta esquerrac ematen dizquizut, ¡Oh Fede santua! Zuc eracusten direzu, aldareco Sacramentu Santuan, araco ceruco ogui artan ez dela oguiric, baicic an dagola nere Jaun Jesucristo oso-osoa eta dagola niri diren amoriungatic. Nere Jauna eta nere ontasun gucia, nic siñesten dut zaudela eguiazqui Sacramentu Santu orre-

tan, eta naiz egon gordea eta ezpazaitut ezagutzen ere araguizco beguiaquin, ala ere ezagutzen zaitut fedezco beguiaquin ostia santua orretan ceruco eta lurreco Erreguetzat eta munduaren Salbatzaletzat. ¡Ah nere Jesus gozua! Ala nola ceran nere esperanza, nere salbaciua, nere sendotasuna eta nere atseguiña, era berian nai dut izan zaitecen oraiñ Zu nere amorio gucia eta Zu bacar-bacarra izan zaitecen nere pensamentu, deseio eta biotzeco naicarien edo naitasunen yabea. Gueiyago alegratzen naiz Zuc ceruan dauquezun eta betiraunde gucian iduquico dezun neurrigabeco zoriontasunaz, nic mundu ontan eta bestean izan dezaqueten ontasunaz baño. Nere poztasun aundiena da, ¡Oh nere Salbatzale maitia! yaquitia zure zoriontasunac ez duela neurriric. Aguindu, Jauna, aguindu dezazu nere animan, nic ematen dizut dena, zure-

tzat izan dedila betico. Nere borondatea, nere anima, nere gorputza, denac nai ditut bacar-bacarric Zu maitatzeco eta mundu ontan ez dut nai eguiñ dezaten beste gauzaric baicic Zu poztu eta Zu alabatu. Auxen izandu cen lurrean zure bici gucico lana, ¡Oh Jesusen lentabicico maitazaleric aundiena eta Ama Maria Santisima! Lagun zaidazu bada bici nadin emindic aurrera Jaungoicuantzat bacarric.

**Erreguchua:**

O nere Jesus, eguizu ni gucia izan nadin zurea, eta Zu gucia beti nerea.

(*Deseizco comuniua pj. 12*)

### MARIA SANTISIMARI

**amaica garren eguneco bisita**

¡Oh Ama erruquitsua, bigundu eta paquetu dezazu zure Semea-

ren aserrea! Bai, Zu zaudena ceruan den lecuric goyenan, mundu guciac ezagutzen du Zu cerala gure lagunzaleric indarsuena. Escatzen dizugu o Ama maitia, eguiñ dezazun gutaz erregu Jaungoicuari: bada, zure erreguac gueiago balio dute munduco ondasun eta gauza guciac baño: zure erreguac beartzen dute Jaungoicua gure pecacatuen barcaciua ematera eta erdisten dizquigute graciac ugari: zure erreguac aizcatzen dituzte gure etsaiac, eta deusezteratzen ditu beuren asmuac eta tentaciuac.

**Erreguchua:**

Oh esperanza gurea, lagundu zaidazu.

(*Azquen otoitza pj. 16*)

## SAN JOSERI

### amaica garren eguneco bisita

Zure bicitza, oh Patriarca aundia, dago inguratua munduco edertasuna guciaquin, nola diren, birtute mota edo clase guciac. Naiz, mundu ontan bicitu ciñen bitartian, ez baciñen izandu ere ezagutua eta guizonen artian nabaritua, bicitu ciñelacoz cere etxetxuan zurguiñ lanetan, ala ere gaur Eliz-Ama Santac goratu zaitu eta gloriaz eta arguitasunaz betea aguercen zaitu cristab gucien aurrean eta nai du guc seguitzea zure pausuac eta icaspideac edo ejemploac. ¿Cer eguiñ dire munduco Enperadore, Erregue, yaquinsu eta aundiac, naiz Zu ecusiric Nazaretco zurguiñtoquian pasatu cirenac zuri casoric eguin gabe? Ayen aunditasuna ondatu da aicea bezala, eta beuren gorputzac daude atzenduac lurpean, beuren animac or-

gulloz eta pecatuz beteac berriz, arquitzen dire erre ta quiscalcen infernuan. Erditsi zaidazu, arren, nere Santu maitia, munduco arroqueriac, aunditasunac eta zoraqueriac utziric, zure antzera edertu dezaten nere anima birtute guciaquin, erdisteco guero ceruco zoriontasuna. Ala izan dedila.

**Erreguchua:**

Oh nere Santu maitia, eguizu nic ere edertu dezaten nere anima zuc bezala birtute guciaquin.

(*Azquen otoitza pj. 18*)

**SACRAMENTU SANTUARI**
**amabi garren eguneco**
**bisita**

(*Asieraco otoitza pj. 13*)

Jesus maitatzen duena, dago Jesusequin, Jesus berriz dago

arequin. San Felipe Neric, bere eriotzeco orduan, gure Jauna arcera zuayela, ecusi zuen bezala eldu cela bere cuartora aldareco Sacramentu Santua, esan zuen: ona emen nere amoriua, ona emen nere amoriua. Esan beza bada bacotxac Jesus Sacramentatuen aurrean: ona emen nere amorio gucia, nere pensamentu eta nere gauza gucien jabea. ¡Ah nere Jauna eta Jaungoicua! Ebangeliuan esan ciñuen: Zuc maitatuco ciñuela Zu maitatzen zaituena, eta onen biotzera etorrico cerala bicitzera: nic bada maitatzen zaitut lurreco ondasun guciac baño gueyago, Zuc ere, Jauna, maitatu nazazu orain, cergatic naigo dut zure maitetasuna munduco erregue gucien amoriua baño: atoz, Jauna, atoz eta eguizu zure bicilecua nere animaren etxetxo pobre ontan, eta ez beñere lecutu neregandic, edo obequi esateco, ez nadin ni lecutu beiñere

Zuregandic. Zu, Jauna, etzara beiñere lecutzen zure umearen biotzatic, baldin guc ezpazaitugu botatzen pecatuan bitartez: eta nola oraiñ arte ainbeste aldiz bota bai zaitut nere biotzatic, beldur naiz ori bera guertatuco ote zaiden emindic aurrera. ¡Ah Jauna, ez alda guertatuco munduan olaco gaixtaqueri izugarria eta esquergabequeri belzaric, ainbeste mesede eta ontasun eta misericordia zure escutic artu ta onduan, berriz Zu botatzia nic nere biotzatic! ¡Baño ay! guertatu daique. Orregatic, nere Jauna, naigo dut lenago ill, zure borondatea bada, zure ondotic alde eguiñ baño, olaxen ill ta bicitzeco beti zurequin. Bai, nere Jesus maitia, ala esperatzen dut: nic besarcatzen zaitut eta naidut sartu zure biotz santuan biac bat izateco: eguizu nic maitatu zaitecen beti, Zuc ere maitatu nazazu oraiñ ta beti. ¡Ah nere Salbatzale

maitia! uste dut maitatuco degula elcar betiraunde gucian.

**Erreguchua:**

Nere Jesus, nai zaitut maitatu beti eta nai dut Zuc beti ni maitatzea.

(*Deseiozco comuniua pj. 12*)

## AMA VIRGIÑARI

### amabi garren eguneco bisita

¡Oh nere Erreguiña eta nere Jaungoicuaren Ama! Auspezturic zure oñetan, ezcatzen dizut erditsi zaidazun nere Jaungoicuangandic nere pecatuan barcaciua eta izan nadin garbitua nere bici gucian eguin dituten pecatuen manchatatic: escatzen dizut gracia amorio garbi baten bitartez bat eguiñ edo yuntatu nadin nere Jaungoicuaquin eta zurequin, eta serbitu dezaten zure Semeari nere Salbatzaleari bezala eta Zuri beraren lagunzale

zintzua bezala, oregatic Jesusec pagatu bazuen gure pecatuen zorra, pagatu zuen, zuregandic artu zuen aragui ta odolaquin.

**Erreguchua:**

Ama maitia, nai izan dezazu nic Zu beti alabatzia.

*(Azquen otoitza pj. 16)*

**SAN JOSERI**

**amabi garren eguneco bisita**

«Onratu bezate erri guciac santuaren yaquintasuna eta elicetan aguertu bezate beuren alabanzac: ayen icenac bicico dire betiraunde gucian». «Ecles 14.» Onelaxen Jaungoicuac, Escritura santan, aguertzen du cenbat maitatzen dituen bere santuac eta cenbat nai duen ayec onratzia. Gañera, Jesucristoc dio: escatzen diogun gucia bere santuan izenian ematen digula. Ea bada, San Jose

maitia, Jaungoicua badago beti prest, edociñ santuaren bitartez guri mesedeac eguiteco, ¿cer ez du eguiñen zure bitartez, ceranezqueroz Zu, santu gucien artian aundiena eta cergatic izan baiciñan Jaungoicuaren Semearen Aitaordecua, eta mundu ontan bicitu ciñan bitartian eguiñ bazuen Jesus maitiac zure borondatea? ¿Cer ucatuco dizu, bere aita bezala maitatu eta errespetatu zaituenac? Uste edo confianza onequin eldu naiz zuregana, San Jose, nere lagunzale maitia, eta escatzen dizut erditsi zaidazun zure Seme ordecuangandic mundu ontan ongui bicitzeco gracia eta eriotzeco ordu on baten ondotic ceruco gloria. Ala izan dedila.

**Erreguchua:**

Jose, nere zaitzalea, eguizu nic ez dezaten maitatu birtutea baicic.

*(Azquen otoitza pj. 18)*

## SACRAMENTU SANTUARI
### amairu garren eguneco
### bisita

*(Asieraco otoitza pj. 13)*

«Bici naicen bitartian, ortxen iduquico ditut nere beguiac eta nere biotza.» «3 Reg. 9.» Enzun dezazu betico zoriontasunan billa zabilcen anima, ceiñ esquinza ederra eguiten dizun, gure Jesús onac, aldareco Sacramentu Santuan, ceñetan gueldítu cen gab eta egun gurequin egoteco. ¡Ay nere Jaungoico maitia! ¿Etzen asqui Zu gueldítzea Sacramentu orretan egunaz, guizonac adoratu eta lagun eguiñ dezaqueten bitartian, baicic, gueldítu nai izan ciñuen baita gabaz ere, ceñetan guizonac ateratzen diren elizatic eta yuaten diren beuren etxera utziric Zu bacar-bacarra? Baño badaquit certaz eguiñ dezun orrela: guri diguzun amoriuac ez dizu utzitzen une edo instante batian

ere gure ondotic lecutzea. ¡Ah nere Salbatzale aguitz maitia! Mesede arrigarri au bacar-bacarra naicua cen guizonac elizara eramacitzeco eta an egoteco zure aurrean, eliza etsitzeco orduan ateraci arte beuren borondatearen contra, eta andic ateratzian, bertan utzi bearlituquete denac beuren biotzac eta beuren maitetasunac bada ori eta gueiago mereci dezu Zuc, gure Jaungoico maitia, cergatican artu ciñuen gure araguia eta guelditu ciñen sagrario orretan, ceñetan zauden beti prest lagunceco gueuren biartasunetan eta beti esperuan noiz etorrico diren cere maitazaleac Zu bisitatzera cere mesedeaz betetzeco.

Bai, nere Jesus biotzecua, nai zaitut gaurtic aurrera atseguindu, eta oraintxen berian ematen dizut nere borondatea, nere biotza eta nere naicari guciac. ¡Oh Jaungoico baten neurrigabeco

aunditasuna! Zuc guelditu nai izan ciñuen Jaungoicozco Sacramentu orretan, ez bacarric gurequin egoteco, baita ere graciac ugari emateco eta itz eguiteco araco zure gogoco anima autatu ayequin. Baño ay, Jauna, ¿norc izanen du ausardia edo balorea zure mayara urbilceco eta an zure araguia yateco? Baño, ¿cer diot nic? ¿nor izanen da maya orretan yarri eta Jaungoicozco yanari orretatic yan nai ez duena? Zu orrengatic guelditu ciñen gorderic oguiaren antzan, gure barrenian sartu eta gure biotzaren yabea izateco. Zuc nai dezu guc maiz-maiztxo Zu artzia eta atseguiñ arquitzen dezu gurequin bicitzean. Atoz bada, atoz, nere Jesus maitia, nere anima guciaquin nai dut Zu nere barrenian sarcea izan zaitecen nere biotz eta borondateco Jaungoicua. Nere aldetic, nere Salbatzale amorosua, zure amoriungatic utzitzen ditut

nere atsegiñac, nere pozac, nere borondatea eta bertze gañeraco gauza guciac. ¡Oh nere animaren amoriua! ¡Oh amoriozco Jaungoicua! Aguindu eta eguiñ dezazu nai dezun gucia nerequin. Deusezteratu eta autsi eta bota dezazu neregandic zure gogoco ez diren gauza guciac. Ez utzi, nere Jesus amorosua, nere animac beiñ Jaungoicozco aunditasunaquin bete ezquero, comunio santuan, nai izan dezan bertze gauzaric eta maitatu bertze yabe-ric Zu baicic. Maitatzen zaitut, nere Jaungoicua, maitzen zaitut eta beti nai zaitut maitatu.

**Erreguchua:**

Lotu nazazu zure amoriuaren cateaquin, beti maitatu gaitecen.

*(Deseiozco comuniua pj. 12)*

## MARIA SANTISIMARI

### amairu garren eguneco bisita

¡Oh Maria, nere Ama gozua! Ongui daquit Zu cerala ceruco ainguerü eta santu eta lurreco yende gucien artean aundiena, ederrena, garbiena, galantena, berachena, santuena eta maitagarriena. ¡Oh, baldin denac Zu ezagutu eta maitatuco baicinduzquete Zuc mereci dezun bezala! Nic bai, biotz-biotzetic nai cenduzquet maitatu, baño ezagutzen dut etzaitudela maitatzen biar den bezala eta biar duten aiña. Eguizu, nere Ama maitia, emindic aurrera maitatu zaitezten amorio eguiazco, sendo, irauncor eta bici batequin: bai, eguiaz maitatzen bazaitut salbatuco naiz: bada Zu ciñez maitatzea, da señaleric oberena yaquiteco gutxi gora bera salbatuco garen edo ez, eta mesede bat, Jaungoicuac eguiten ez duena baicic ceruraco autatu

dituenari. Erregu zazu nitaz, oh Ama maitia, erregu zazu ceruan sartu arte, Jaungoicuaren adisquidetasuna eta bere amoriua galceco beldurric gabe betiraunde gucian.

Ala izan dedila.

**Erreguchua:**

Zure itzalpera biltzen gara oh Jaungoicuaren eta gure Ama maitia.

(*Azquen otoitza pj. 16*)

## SAN JOSERI

### amairu garren eguneco bisita

¡Oh Jose santua! Santa Teresa, zure maitazaleac esaten zuen zutaz minzatzian: baldin nic banuque nausitasuna edo autoridadea escribitzeco, pocic egongo nitzeque argui eta garbi aguertzen, José doitsuac, niri eta beste ani-

tzari eguiñ dizquion mesedeac. Siñesten ez duenari, escatzen diot, Jaungoicuaren amorioz, saya dedila eta ecusico du bere beguiaquin, ceiñ gauza ona den Patriarca santu orreri otoitz eguitea eta debocio aundi bat berari izatea. Au esaten bazuen Santa aundi arrec, ¿cer esanen dut nic, onelaco pecatari cupigarriac? Ala ere, gaistua bainaiz ere itza ematen dizut, San Jose, nere lagunzale maitia, naidutela zabaldu zure debocio santua cristab fiel gucien artean, onela gueigo eta gueigo izan zaiten ezagutua, maitatua eta glorificatua. ¡Zorionecua ni, erdisten badut ecarcia zuregana, Zu ezagutzen etzaituztenac orrela maitatu eta onratu dezaten zure ontasuna. ¡Ceiñ sari aundia erditsico duten eriotzeco orduan, Zu maitatu eta zintzo zure serbiciuan ebilcen direnac! Lagundu zaidazu, Jose, Santu indarsua, nere

biartasun gucietan eta erditsi guero betico gloria.

Ala izan dedila.

**Erreguchua:**

Patriarca santua, eguizu eriotzeco orduan nere azquen itzac izan deitecen zure eta Jesus eta Mariaren icen santuac.

(*Azquen otoitza pj. 18*)

**SACRAMENTU SANTUARI**
**amalau garren eguneco**
**bisita**

(*Asieraco otoitza pj. 13*)

Auxen da nere betico atseguiña: emin izanen dut nere bicilecua, neurrec autatu dutelacoz. (Ps. 131.) ¡Jaun maitagarria! Zuc autatu ciñuen gure artean cere bicilecua, bada nai izandu ciñuen guelditu gure aldareetan Sacramentu Santu orretan eta guri di-

guzun amoriungaticzaude ortxen atseguiñaz betea: orregatic guc ere naidegu gure biotzac beti bici daitecen zurequin amoriuaren bitartez, eta arquitu dezaten emin zure onduan beuren atseguiñ, poz eta gozotasun gucia. ¡Oh zorionecuac, zuec anima maitazaleac, arquitzen ez dezuenac munduan bertze atseguiñaric, Jesus Sacramentatuarenonduanegotian baño! Ni ere zorionecua izanen nintzeque, Jaun maitia, ez banuque arquitucobertze atseguiñaric, zure biotz maitazaleaquin bat eguiñ eta beraquin egotian baño, biotz santua ori maitatu, ori poztu, beraren aguinduac eguiñ eta berequin bici, auxen da, Jauna, nic nai dutena.

¡Ay, nere Jaun gozua! ¿Cergatic galdu ditut alferric ainbeste urte, Zu maitatu gabe? Zorigaiztoco urteac, nic gorrotutzen zaituztet. ¡Oh nere Jaungoicuaren pacienci neurrigabea! nic alaba-

tzen eta adoratzen zaitut, cergatic, naiz izanic ni aiñ gaistua eta esquergabea, ala ere ainbeste urtez esperatu direzun. ¿Eta cergatic, Jauna? Cergatic ecusiric zure erruquia edo misericordia eta zure nereganaco amoriua biurtu nadin egunen batean gucia zureegana. Asqui da bada, Jauna, ezdut gueiago gogor eguiñ nai zure borondateari, ezdet gueiago nai izan esquergabea. Munduan bici biar duten denbora gucia, naiz lucea, naiz llaburra, dena nai dut pasatu Zu maitatzen eta zure borondate santua eguiten. uste dut, nere Jaun maitia, lagunduco direzula naicen gucia zurea izan nadin. Zuc lagundu eta mesedez bete nauzo, zuregandic iguesi nanbillen denboran, casoric eguiñ gabe zure nereganaco amoriuari: ¿eta oraiñ billatzen zaituzten denboran eta zuregana eguiaz biurtu nai dutenian eta biotz biotzetic maitatu nai zaitutenian,

utzi eta botaco ote nazu Zuregandi? Ez det uste, zure erruqui neurrigabeac eguiñen duela olacoric: eman zaidazu, bada, gracia Zu maitatzeco. ¡Oh Jaungoicua, mereci dezuna maitatzea neurrigabeco amorio batequin! maitatzen zaitut gauza gucian gañean, maitatzen zaitut nere biotz guciaquin, maitaten zaitut nere bicia baño gueiago. Damu dut Zu ofendituaz, ontasu muga gabea: eman zaidazu nere pecatuen barcaciua eta barcaciuaquin batian zure gracia Zu maitatzeco ciñez mundu ontan nere eriotzeco orduraño eta betiraunde gucian ceruan. Oh Jaun gucia-aldezuna, aguertu dezazu zure podorea eta eguizu milagro bat gueiago munduan, biurtu dezazu nere anima esquergabe eta otz au zure maitazaleric aundien batian. Eguizu au, Jauna, zure neurrigabeco merecimentuangatic, auxen da nic nai dutena eta orretaraco eguiñen dut

aleguiñ gucia nere bici gucian. Ceurrec ematen direzun ezquero deseiua au, eman zaidazu ere bear duten lagunza, indarra eta gracia ala eguiteco.

**Erreguchua:**

Esquerrac ematen dizquizut, nere Jesus maitia, oraiñ arte esperatu direzulacoz.

*(Deseiozco comuniua pj. 12)*

## MARIA SANTISIMARI
### amalau garren eguneco bisita

Oh Maria Santisima, gure Ama maitia, guc erregutzen dizugu, Jaungoicuac orreiñ podore aundicua eguiñ zaituen ezqueroz ceruan eta lurrean, cupitu zaitecen gutaz: muguitu zaite agudo, oh Ama erruquitsua, guri erdistera araco on edo mesede ure, ceñegatic Jaungoicua guizon eguin-

cen zure sabel garbian: ez baztertu gure erreguac. Baldiñ Zuc escatzen badiozu guregatic zure Seme maitiac emanen dizu belaxen guc bear degun gucia. Asqui da Zuc nai izatea eguiaz gure salbaciua, guc, Jesucristoren merecimentuagatic erdisteco indarra eta mesedeac obra onac eguiteco eta gueuren animac ceruratzeco. Oraiñ bada, Ama maitia, ¿norc paratuco dio muga zure erruquizco entrañari? Ez baldin bacera erruquitzen Zu, cerana misericordiaren Ama, ¿cer izanen da gutaz aguertu bear degunian zure Semearen aurrean, gure bicitza gucico contu estua emateco?

**Erreguchua:**

Maria da nere igueslecua eta lagunza gucia, bera nere esperanza gucia.

*(Azquen otoitza pj. 16)*

## SAN JOSERI

**amalau garren eguneco bisita**

¡Oh Aitalen doitsua! ¡norc aguertu lezaque cenbat naigabe, icari eta estutasun eraman ciñtuen Egiptora iguesi yuan ciñen denboran! Yaquiñic nor cen ceruac zaitzeco eman cizun aurchua ure: ¡cenbat naigabe etzintuen eraman ecusiarte Jesus aurcho gozua ure libre bere etsayatatic erri arroz batean! ¡Nolacua etzen izanen ere zure biotzeco nai gabea ecustean Maria zure Esposa biguñ garbi ure ainbeste neque eta beartasunean!

Ni ere, nere Santu maitia nabille mundu ontaco bide latz eta ota-lurretan eguiazco lur onaren eta goza-lecuaren billa, eta nago beti arriscuan erortzeco Luzbel, nere . etsairic aundienaren atzaparretan. Lagun zaidazu, izan zaite nere zaitzalea eta nere bide eracuslea, eta zure lagunza indar-

suaren bitartez erditsi dezaten ceruco gloria. Ala izan dedila.

**Erreguchua:**

Aitalen santua, indartu dezazu geyago eta gueyago nere fedea.

*(Azquen otoitza pj. 18)*

## SACRAMENTU SANTUARI
### amabost garren eguneco bisita

*(Asieraco otoitza pj. 13)*

Aita Francisco Olinpio Beneragarriac esaten zuen: etzela munduan gauza oberic, guizonaren biotzetan bistutzeco Jaungoicuaren amoriuaren sua, aldareco Sacramentu Santua baño. Orregatic aguertu cen Jaun au Santa Catalina Senacuari amoriozco su aundi baten idurian, ceñatic ateratzen ciren ibaica Jaungoicuaren amoriozco garrac

eta zabaltzen ciren mundu gucian: arrituric gueldituen Santa Catalina eciñ aditu edo entenditu tuaz, nola bici zaitezquen guizonac alaco Jaungoicuaren amoriozco su gar aundien artean, erre ta quiscali gabe beraren amoriuren suan. ¡Ay, nere Jesus maitia! eguizu bistu dedin nere biotzean zure amoriuaren sua. Eguizu ez dezaten nic nai izan, pensatu, esan, eguiñ eta billatu Zu beste gauzaric. Zorionecua izanen nintzeque ni, baldin bicico banitzeque beti alde gucietatic inguratua erretzen Jaungoicozco su orretan: milla aldiz zorionecua ni, baldin nere urteac duacin bezala, era berian utzico banituque munduco gauzac eta beuren eraspenac. ¡Oh nere Jesus! Ecusten zaitutelacoz aldare orretan nere amorioz oso deusceztera biurtua, arrazobe aundicua da, ala nola Zu neregatic esquincen ceran Aita cerucuari, era be-

rian, nic ere esquindu dezaten Zuri nere borondatea, nere amoriua, nere biotza, nere bicia eta ni naicen gucia. Bai, ¡nere Jaungoicua, eta nere Jaun aundia! Nai nuque bat eguiñ edo yuntatu nere esquinza txiqui au, zure Seme Jesucristoc gurutzean eguin cizunaquin eta egunero, gure aldaretan eguiten dizunaquin: gogoz artu dezazu, bada, Jauna, nere Salbatzale maitiaren merecimentuangatic, eta eman zaidazu gracia berritzeco esquinza au bici naicen bitarteco egun gucietan eta emateco nere bicia zuri zor dizuten amoriungatic. Deseatzen dut ainbeste martirari eman diozun gracia, ixurtzeco nere zaiñetaco odol gucia eta iltzeco zure amorioz: eta baldiñ uste badezu, ez dutela mereci olaco mesede aundia, artu dezazu beñepeiñ nere biciaren esquinza eta naicen gucia, prest nago illceco zuc nai dezunian eta zuc bialtzen direzun

eriotzarequin, eguin zaidazu graci au: bada, ill nai dut zure escuetan deseioz beteric Zu onratzeco eta Zu maitatzeco Zu atseguinzeco, eta oraiñ berian esquincen dizut nere bicia eta nere eriotza, naiz ez yaquiñ nolacua izanen den.

**Erreguchua:**

Nere Jesus maitia, Zu atseguintzegatic ill nai dut.

(*Gogozco edo deseiozco comuniua pj. 12*)

### MARIA SANTISIMARI
**amabost garren eguneco bisita**

¡Oh Ama erruquitsua! naiz izan gure pecatuac aunitz eta aundiac, ez orregatic gueldditu guri lagundu gabe: oroitu zaite Jaungoicuaren Semea eguiñ cela guizon zure entraña garbietan, ez pecatariac condenatzeco, baicic ayec

salbatzeco. Baldin Jaungoicuac eguiñ baciñuz bere Ama zure onraraco eta gloriaraco bacarric, orduan, bear bada esan laiteque ez dezula axol aundiric gu salbatu edo condenatu gatic: baño Jaungoicua yaunci bacen zure araguiaz gu eta mundu gucia salbatzegatic: ¿cer irabacico guiñuque guc, zure podore eta gloriaren anditasunaz, ez badiguzu erdisten guri ere zure zoriontasuna? Lagun zaiguzu, arren, eta beguiratu zaiguzu. Ongui daquizu zure lagunzaren ceiñ bear aundia dauquegun. Zure itzalpera eldu gara, oh Ama biotzecua, eguizu ezgaitecen galdu betico, eta bici gaitecen betiraunde gucian maitatuaz zure Seme Jesucristo.

**Erreguchua:**

O deitzen zaituztenaren osasuna, salba nazazu.

(*Azquen otoitza pj. 18*)

## SAN JOSERI

### amabost garren eguneco bisita

Ainbeste eta alaco birtute ederren artian, nola adornatu baiciñucen Aita Beticuac, ez da erraz yaquitea, oh nere Santu maitia, ceiñ diren ederrenac eta ceñac arguitzen duten argui garbigo eta biciguaquin. Gaur, bacarric nai dut ecusi ceiñ sendua den, zuc cere Jaungoicuan daucazun esperanza, bada, zure biotza, naigabe eta ecusi biar gucietan, esperanza orrequin dago indartua. Mundu ontaco beartasunac, nequeac, gora berac eta naigabe guciac etzuten itzali zure biotzeco esperanza, ez eta ere Aita Beticuan daucazun confianza. Eguizu, nere Patriarca maitia, zure antzera ez dezaten nic ere beiñere galdu nere Jaungoicuan dauqueten esperanza. Eguizu, Santuen antzera, Escriturac dion bezala, iduqui dezaten nere biotzean Jaun-

goicuaren legue santua eta ebilli nadin beti zucen ceruco bidean. Ala izan dedila.

**Erreguchua:**

Oh Jose, biotz aundicua, nere esperanza aunditu dezazu.

*(Azquen otoitza pj. 18)*

**SACRAMENTU SANTUARI**
**amasei garren eguneco**
**bisita**

*(Asieraco otoitza pj. 13)*

Oh, baldin yuanen balire munduco yendiac aldareco Sacramentu Santuangana beuren gaitzaren sendagai edo erremediuan billa, eguiaz ez lirequela izanen aiñ errucarriac. Negarrez cion Jeremias Profetac: ¿Ez alda Galaaden errexiñic edo balsamoric edo ez da medicoric? (Jer. 8.) Gaalad Ara-

biaco mendi unguendu usai-gozodunaz betea, Bedac, dion bezala, da Jesucristoren iduria, ceñac dauzquien prestatuac aldareco Sacramentu Santu orretan gure gaitz gucien erremediuac. ¡Oh Adanen umeac! iduri du esaten duela gure Salbatzaleac, certaz zabilzete orrela oñacez beteac. ¿ez dezue ecusten or Sacramentu Santu orretan, ceuren gaitz gucien erremediua eta ceuren naigabe gucien atseguiña? Atozte, bada, neregana oñacez eta naigabez beteac zautenac, eta nic sendatu, nic lagundu eta poztuco zaituztet. ¡Ay nere Jauna! utzi zaidazu esandezaten Lazaron arrebac esan zutena: maite dezun ure eri dago. Jauna, ni naiz araco maite dezun errucarri ure: dauquet nere anima gaizqui, nere pecatu icaragarriac eguiñ dituten zauriaz betea eta emin nator zureгана o ceruco medicua, osasunan billa. Zuc nai badezu, erraz eta

laister senda nezaquezu. Sendadezazu bada, arren, nere anima, cergatic ainbeste aldiz pecatu eguiñ duten Zure contra. Zuganatu nazazu, nere Jesus ona, zure amoriozco cate maitagarriaquin: naigo dut zure biotzean bici mundu guciaren yabea izan baño. Ez dut mundu ontan bertze gauzaric deseatzen, Zu maitatzea baño. Gutxi edo deus ezdut zuri emateco: baño munduco Erreñu gucien yabea bainitzeque ere, ayec ez nituque nai bercetaco, baicic zure amorioz utzitzeco: ematen dizut nere burua, naicen eta balio duten gucia, duten gucia, nere aideac, nere atseguiñac baita ere nere animaco poztasunac. Zure escuetan utzitzen dut nere borondatea eta nere nai-izate gucia. Maitatzen zaitut nere burua baño gueyago eta uste dut maitatuco zaitutela betiraunde gucian ceruan.

**Erreguchua:**

Nere Jesus, ematen dizut nere burua eta naicen gucia, artu nazazu.

(*Deseizco comuniua pj. 12*)

## MARIA SANTISIMARI

### amasei garren eguneco bisita

¡Oh Maria Santisima, Virgiña maitia! Lagundu zayozu zure bitartecotasuna escatzen duten guciari: beguiratu zaiguzu, oh Ama biotz beratxacua, misericordiazco beguiaquin. ¿Cer, Jaungoicuaren Ama ceralacoz, atzenduco ote cera gutaz? orixen ez beñepeiñ. Zuc ongui daquizu ceiñ arrisco aundietan bici garen eta ceiñ erruquigarria den gure bicipidea mundu ontan. Ez, ez da egoqui, Zu, aiñ cupitasun aundico Ama, atzentzia gure beartasun aundi ontaz: zure podore aundiaquin flotu ditzazu gure animaren etsayac:

baldiñ Zuc laguncen badiguzu gogotic, ayec ez dute iñoiz deuz eguiñen gure caltean, bada, Jaun gucialdun arrec eguiñ zaitu podore aundicua ceruan eta lurrean: eta cenbatenaz eta indarsugua ceran, orduan eta biotz beratxagucua eta erruquitsugua cera.

**Erreguchua:**

Oh Maria, erruquitu zaite nitaz.

*(Azquen otoitza pj. 16)*

### SAN JOSERI

#### amasei garren eguneco bisita

Naiz edociñ aldetatic beguiratzen badegu ere zure bicitza arrigarria, nere Santu maitia, ecusten degu birtute gucien icaspide edo egenplo eder bat, nun cristab guciac bear duten icasi eta sayatu zure antzera. Zure beguiac eta zure biotza, mundu ontaco

zoraqueriac utziric, zauden beti goratuac Jaungoicuangana, Dabidec dion bezala. ¡Ah nere Aita, San Jose maitia, zori gaistuan nic ezdut eguiñ oraiñ arte Zuc bezala:! Goratu bearrean nere beguiac eta nere biotza Jaungoicuangana, iduqui ditut lurrera beguira, atseguiñ ciquiñen atzetic eta negarrezco balle ontaco ondasunan billa, bada Yaquinsuac dion bezala, mundu ontaco gauzac ez dire iduria eta zoraqueria baicic eta ezdute utzitzen biotzean quezcac eta naigabeac berceric. Erditsi zaidazu, Jose, nere Zaizalea, emindic aurrera ez dezaten eguiñ oraiñ arte bezala, eguizu Zuc bezala iduqui dezaten nere biotza lurreco gauzari itsatsi gabe, eta beti iduqui dezaten nere beguian aurrean ebangelioco itz ayec: ¿cer on arquituco du guizonac naiz mundu gucia irabaci, azqueneco galcen badu bere anima? Au ezaguturic ez naiz ebi-

llico mundu erguel onetaco zoraqueriaren atzetic eta beti billatuco dut cerua eta ez naiz gueldituco bertan sartu arte. Ala izan dedila.

**Erreguchua:**

Aitalen gloriosua, eguizu nere biotzac ez dacen nai izan ceruco gauzac baicic.

(*Azquen otoitza pj. 18*)

## SACRAMENTU SANTUARI
### amazazpi garren eguneco bisita

(*Asieraco otoitza pj. 13*)

Anima maitazaleanzat ez da atseguiñ aundigoric maitatzen duen arequiñ egotea baño. Baldiñ maitatzen badegu bada, eta eguiaz maitatzen badegu Jesucristo, emin gaude beraren aurrean: Jesusec Sacramentu Santu

orretatic ecusten gaitu eta enzuten ditu gure agozco eta biotzezco erreguac, ¿eta gu beraren aurrean egongo guera ixillic, deus esangabe, deus escatu gabe? Oraiñ poztu gaitecen cergatic gauden bere onduan, gozatu gaitecen berac daucan gloriaz eta cergatic alaco sutasun aundiaquin adoratzen duten ainbeste anima onac Sacramentu Santu orretan. Izan dezagun deseio aundi bat munduco guizon guciac maitatu dezaten Jesus Sacramentatua eta esquiñi beuren biotzac: guc beñepeiñ esquiñi dizcagun gueuren biotza eta gueuren amoriua eta Jesus bacar-bacarra izan bedi emindic aurrera gure biotzaren yabea. Aita Salesio poztasunaz betea guelditzen cen aditzen zuen aldiro itz eguiten aldareco Sacramentu Santuaren gañean, eta etzen beiñere aspertzen bera bisitatzen: deitzen bazuten atea idequitzera, biurtzen bacen bere

cuartora etzen egoten bisitaric eguiñ gabe bere Jaun maitiari, eta esan deique etzuela utzitzen egunean ordu bat bacarric bisitatu gabe, eta azquenic Jaungoicuac eman cion gracia bere bicia emateco Sacramentu Santu orregatic, bada Sacramentu Santu ori aitortu zuelaco eregearen aurrean, oyec ill zuten. ¡Oh nic erditsico banuque graci au! Jaungoicuac aldareco Sacramentu Santu onetan guri digun amoriuaren aunditasuna mundu guciari eracustegatic illceco gracia. Ea bada, Jauna, eguiten dituzun ezquero ainbeste milagro Sacramentu orretan, eguizu bat gueiago, eta au da ni naicen gucia zuganatzea: eman zaidazu indarra nere biotz guciaquin Zu maitatzeco. Nic ez dut nai munduco ondasunaric, eman zaiquiozu nai dezunari, nic nai dutena eta biotzbiotzatic escatzen dutena da Zure amorio santua: orixen da oraiñ

escatzen dutena eta beti escatuco dizutena: maitatzen zaitut, nere Jesus, maitatu nazazu Zuc ere, eta ez dizut gueyago deus escatuco.

**Erreguchua:**

Nere Jesus maitia, ¡noiz maitatuco zaitut eguiaz!

(*Deseiozco comuniua pj. 12*)

### MARIA SANTISIMARI

#### amazazpi garren eguneco bisita

¡Oh Jaungoicuaren eta nere Ama! Badaquit gucia cerala beratxa eta maitatzen gaituzula amorio samur batequin. ¿Cenbat aldiz biguñdu dezu Jesucristoren asarrea eta gueldítu da zure erregun bitartez gu cigorratu edo castigatu gabe? Zure escuetan daude Jaungoicuaren erruquitasun guciac. ¡Ay, nere Ama maitia! Zu,

zaudena beti deseioz betea salbatzeco, zuregana, erruquitasunaz eta damuz beteric eldu diren pecatariac, zurequin batean guero ceruan bici gaitecen: ez gueldituguri lagundu gabe ceruan, bada, guc izan dezaquegun zoriontasunic aundiena, Jaungoicuaren arpeguia ecusi eta beraquin egoteaz landara, da Zu ecusi, maitatu eta zure itzalpe gozuan egotia. Entzun ditzazu, oh Ama maitia, oraiñ gure erreguac, bada ongui daquizu zure Semeac ez dizula ucatzen escatzen diozun gauzaric.

**Erreguchua:**

Nere Ama maitagarria, eguiaz biotz guciaz maitatzen zaitut.

*(Azquen otoitza pj. 16)*

**SAN JOSERI**

**amazazpi garren eguneco bisita**

Ez dago dudaric, Jose Santua, Ama birgiñaz landara ezdela

izandu munduan iñor, Jesus aurtxuac Zu aiña maitatu duenic.

Eta eguiaz, iñor etzen zuc aiña escubide edo deretxo zuenic ala maitatua izateco, bada, ez bacarric mereci ciñuen amoriua ori, cergatic ciñen Jesusen Aita-ordecua eta bere zaizalea, baita ere cergatic ciñauden beti prest Jaungoicuaren borondatea eguiteco. Orregatic, zure maitazale Santa Teresac dio: Jaungoicuac zuri eman dizula gracia laguncéco biartasun gucietan, eta onela Jaunac nai duela guri adirazi, ala nola lurrean bicitu cen bitartian Jesus, egondu cen San Joseen mendian eta naiz izan Aita-ordecua bazuen escubidea aguinceco, ala era berian Jesusec eguiten duela ceruan, San Josec escatzen dion gucia. Eguizu bada aleguiñ gucia, Jose Santua, nere lagunzan, nere biotza dago beti prest eguiteco Jaunaren borondatea, eta orrela egonen naiz guertu

edo seguro illta onduan erditsico dutela Jaungoicuaren aguinduac eguiten dituenari esquinduco saria ure.

**Erreguchua:**

Oh nere Santu maitia, erditsi zaidazu beti eguiñ dezaten Jaunaren borondatea.

(*Azquen otoitza pj. 18*)

## SACRAMENTU SANTUARI
### emezortzi garren eguneco bisita

(*Asieraco otoitza pj. 13*)

Jesucristo gure Jauna aguertuco da egun batean Josefataco celaian, yarlecu aunditasunaz betian: baño, aldareco Sacramentu Santu orretan dago amoriozco yarlecu batean. Baldiñ erregue bat yuanen balitzeque bisitatzera artzai baten itxolara, aguertzeco

orrela artzai ari bere amorio aundia, ¡ceiñ esquergabequeri aundia ez litzeque izanen artzai onena, ez baluque bisitatuco aunitz aldiz, yaquiñic orretaco, beraquin an egotera etorridela! ¡Ay nere Jesus! Badaquit nere amorioz etorri cerala eta zaudela aldareco Sacramentu Santuan: ongui nai nuque nic, albanezaque, gau eta egun emin zurequiñ egon. Bada, oh nere Jesus, baldiñ Aingueruac baidaude emin arrituric Zuc guri diguzun amorioz, ez da arritzecua, Zu ecusiric aldare orretan nere amoriungatic, ni etorcia Zu poztutzera, emin Zure aurrean egotera eta alabatzera zure amoriua eta zure ontasuna, olaco mesedea eguiñ direlacoz naiz izanic ere ni aiñ gaistua. Ainguеruan aurrean alabatuco zaitut, yuanen naiz zure elizara Zu adoratzera eta esquerrac ematera Zure izen santuari, zure erruquitasun eta eguiagatic «Salm. 137». ¡Oh Jaun-

goico Sacramentatua! ¡oh aingueruaren oguia! ¡oh ceruco yanaria! nic maitatzen zaitut, baño ez ni eta ez Zu ez gaude content nere amorioz: maitatzen zaitut bai, baño aguitz gutxi. Eguizu Zuc, nere Jesus maitia, ezagutu dezaten zeiñ neurrigabecua den aiñ gutxi maitatzen duten ontasuna eta edertasuna: eguizu nere biotzac atera eta bota dezan urruti bere barrenetic mundu ontaco gauzaren amoriua, eta ala guelditu dadin uts-utsa, Zuc betetzeco zure amorio santuaquin. Zure ontasuna maitaaciceco eta nere animan sartzeco, Zu yeusten cera egunero cerutic gure aldaretara, nic ere bada gaurtic aurrera ez dut berce gaucic nai, baicic Zu maitatu, adoratu, esquerrac eman eta zure borondate santua eguiñ, Maitatzen zaitut nere anima guciaquin eta biotz eta gorpuz guciaquin. Baldin eman nai badirezu, Jauna, nere amoriuaren saria,

eman zaidazu amorio aundigua, su eta gar gueiago erre eta quiscali nadin beti zure amorio santuan mundu ontan eta bestean. Ala izan dedila.

**Erreguchua:**

Jesus nere maitetasuna, eman zaidazu beti maitetasuna.

*(Azquen otoitza pj. 16)*

### MARIA SANTISIMARI

**emezortzi garren eguneco bisita**

¡Oh gure Erreguiña aundia! Jaungoicuac ematen dizquizu zuri graci guciac. Deitzen dizute graciaz betea, cergatic Jaungoicuaren Semea sortu cen zure entraña garbietan Espiritu Santuaren eguitez. Enzun bada, ¡oh Birgiña maitia! gure otoitzac eta oroitu zaite gutaz. Zabalcizu gure

artean zure ondasunac eta zure aberastasunac, eta eman zaiguzu araco graciaren ugaritasuna, ceñaquin zauden Zu aiñ betea: Arcangel San Gabrielec esaten dizu graciaz betea. Mundu guciac oyu eguiten du zorionecua cerala. Guc ere oraiñ esanen dizugu: Jaungoicuac gorde zaitzala, Maria, graciaz betea, Jauna dago zurequin, erregu zazu gugatic Jaungoicuaren Ama Santa, Erreña eta Ama gurea erditsi ditzagun Jesucristoren esquiñzac. Ala izan dedila.

**Erreguchua:**

Oh Maria pecatarien gordelecua, salba nazazu.

*(Azquen otoitza pj. 16)*

**SAN JOSERI**

**emezortzi garren eguneco bisita**

¡Oh nere aitalen aundia! Zure birtute eder gucien artean, gaur

nai dut berexi bat-bacarra, ongui ezagutzeco, eta da, araco sotiltasuna ure ceñetan nabaritu ciñen cere bici gucian. Eta ala, araco abenduco gab otz izoztu artan. Belengo ostalari gogor aiec eman nai etzizutelacoz ostaturic eta ecusiric Maria, zure Esposa garbiaren beartasuna nai ta naiez, billatu bear izandu ciñuen estalpe otz bat bederic, eta guero Egiptora iguesi eguitean Maria eta Jesus aurtxuaquiñ, alaco naigabean artean eta bertze zure bicico ordu gucietan ere beti aguertu ciñuen alaco birtute eder ori eta orixen bera eracutsi cigun guerogo gure Salbatzale maitazaleac esanaz: Icasi dezazue nigandic, bada, naiz sotilla eta biotz umillacua, eta arquituco dezue ceuren animaren paquia. Auxen bera esan dezaquezu guri, Zuc, Jose maitea, erditsi zaidazu gracia Zuc bezala paque aundiaquin eraman dezaten mundu ontaco nai-

gabeac eta beartasunac eta guero atseguiñaz beteric bici nadin ceruan. Ala izan dedila

**Erreguchua:**

San Jose, nere zaizalea, erditsi zaidazu biotzeco paquea eta sotiltasuna.

(*Azquen otoitza pj. 18*)

**SACRAMENTU SANTUARI**
**emeretzi garren eguneco**
**bisita**

(*Asieraco otoitza pj. 13*)

Mundu ontan ez da guizonanzat gauza gozogoric, bere adisquideric aundienaren onduan egotia baño. ¿Eta, cer, ez degu izanen atseguiñ aundi bat egotian negarrezco balle ontan adisquidericlealen baten onduan, ceñac eman dezaquen guri ontasun guciac, eta maitatzen gaituen alaco amorio aundiaquin, eta guri di-

gun naitasunaz badago beti beiñere gure ondotic lecutu gabe? Ara nun dauquegun aldareco Sacramentu Santuan: antxen itz eguiñ dezaquegu berarequin nai degun gucietan, eta ordu gucietan, eta idequi gueuren biotza aguertu gueuren biartasunac eta escatu bear ditugun mesedeac. Guc, Sacramentu Santu ontan, ceruco Erregueaquin confianza osoaquin eta amorio aundiaquin itz eguin dezaquegu. Etzen txiquia Joseeren poztasuna, Escriturac dion bezala, Jaungoicua bere graciaquin yeutsi cenian carcelara bere naigabe artan poztuceco: baño aundigua da gure atzeguiña iduquitzean beti negarrezco lecu ontan gure Jaungoico guizon eguiña, beiñere gueuren ondotic lecutu gabe eta beti maitetasunaz eta erruquitasunaz betea gure alde. ¿Cer atseguiña ez da guilzapean edo preso dagon batenzat arquitzen badu adisqui-

de bat yuaten zayona bisitatzera maiz-maiz, itz eguitera eta laguncera bere beartasunian eta gañera eguiten duena alduen gucia andic len baño len ateratzeco? Orra bada, nun dauquegun Sacramentu ontan Jesucristo gure adizquideric oberena, ceñac indartzen eta sendotzen gaituen esanaz: Emin nago zuen amoriungatic: eldu naiz berariz edo espresamente cerutic zuen lurreco carcela ontara zuec poztutzera, zueri laguncera eta zuec pecatuen guilzapetic ateratzera: escatu zaidazue bada nai dezuen gucia, bat eguiñ edo yuntatu zaitezte nere borondateaquin eta ez dezue izanen ainbeste naigabe: eta guero etorrico cerate nerequin nere erreñura nun beteco zaituztet zoriontasun guciaquin. ¡Oh Jaungoicua! ¡oh maitetasun aditu edo comprenditu ez daitequena! Ceran ezqueroz aiñ biguiña cere umiaquin, bada gurequin

egoteagatic yeusten cera gure aldaretara: nic ere nai dut escuartu edo izan partea zure mesedetan: arcen dut asmo eguiazco bat etorceco Zu bisitatzera anitz aldiz, gozatzeco alduten gucia zure aurrean, bada ceruco santuac guelditzen dire zoriontasunaz beteac Zu ecusteaquin. ¡Oh ni egon albanaiteque beti emin zure aurrean, nere Jaun aundia, Zu adoratzen eta nere maitetasuna berritzen! Baldin munduco gauzangatic edo nere biotzeco epeltasunagatic ez banaiz etorcen Zu bisitatzera, orduan ateleca edo errista eguin zaidazu eta zucendu nazazu. Bistu dezazu nere biotzean deseio aundi-bat beti egoteco zure aurrean Sacramentu orren ondoan. ¡Oh nere Jesus maitagarria, baldin maitatu baciñuzen beti! baño oraiñ nere pozaric aundiena da, yaquitea orañic badutela denbora Zu maitatzeco ez bacarric beste munduan

baita ere mundu ontan: eta alaxen eguiñ nai dut. Maitatu nai zaitut bada ciñez, nere biotz-biotzeco maitia, Zu cera nere ontasun eta nere gauza guciac: maitatzen zaitut nere biotzaquin, gorputzaquin eta gauza guciaquin eta indar eta alegiñ guciaquin.

**Erreguchua:**

Nere Jaungoicua lagun zaidazu Zu maitatzen.

(*Azquen otoitza pj. 16*)

## MARIA SANTISIMARI

### emeretzi garren eguneco bisita

Zereganatu nazazu, ¡oh Virgiña Maria! laister egiñ dezaten zure unguenduaren usai gozuaren atzetic. Zereganatu nazazu, cergatic nere pecatuen zamac edo cargac eta nere animaren etsayaren asmo gaistoac ez direte

utzitzen zuregana urbiltzia. Zu cera eracusten dezuna eguiazco yaquinduria. Zu cera pecatariari erdisten dizuna Jaungoicuangana biurtzeco gracia, cergatic ceran beuren bitartecua. Azqueneco, Zu cera esquiñtzen dezuna betico gloria Zu maitatzen zaituzten guciari, cergatic ceran Jaungoicuaren ondasun eta aberastasun gucia, eta Zu bere doaia, graci eta mese gucien iduquizalea.

**Erreguchua:**

Oh Maria, zorionecua Zu ezagutu eta maitatzen zaituena eta Zutan confiatzen duena.

*(Azquen otoitza pj. 16)*

## SAN JOSERI

### emeretzi garren eguneco bisita

Cenbat eta gueiago ebilcen dituten nere goguan zure birtuteac, ¡Oh nere Santu maitia! or-

duan ta gutxiago iduritzen zait naicela zure antzecua. Gaur arte bicitu naiz nere animaz oroitu gabe, San Agustiñec esan zuen bezela: gure anima, Jaungoicuac bere antzera eguiña, ez daitequela ase munduco ondasunaquin baicic Jaungoico ber-beraquin. Zu, oh Jose maitia, bicitu ciñen, Jaungoicuaren maitetasunaz betea, eguiñaz beti bere borondatea, munduco gauzari itsatsi gabe zure biotza, eta zure atseguiñic aundiena cen egotia beti Jesus eta Mariaren ondoan. ¿Cer zaizu zuri aberats edo pobre bici munduan, baldin gaur baizaude ceruan alaco birtute ederraren arguitazunaz betea? Eguizu, Jose, nere lagunzale maitia, eguiñ dezaten zuc bezela eta casoric eguiñ gabe munduco ondasun cirrilda oyez, ari nadin gorputz eta anima guciaquin beti maitatzen araco on gucien Ona ure guero zu-

requin batean gozatu dezaten ceruan. Ala izan dedila.

**Erreguchua:**

¡Oh Jose santua! eguizu zure bitartez erditsi dezaten eguiazco zoriontasuna.

*(Azquen erregua pj. 18)*

**SACRAMENTU SANTUARI**
**oguei garren eguneco**
**bisita**

*(Asieraco otoitza pj. 13)*

Etorrico da denbora, ceñetan izanen den iturri agueri bat, David erreguiaren etxean eta Jerusalendarrentzat, nun garbituco den pecataria. (Zac. 13.) Jesus aldareco Sacramentu Santuan da iturri ori, denanzat idequia dagona, ceñetan nai degun aldiro garbitu dezazquegu gueuren animac, egunero eguiten ditugun pecatuaren mantxatatic. Gutaco

batec utsen bat eguiten badu, ay, ¡ceiñ gauza egoquia eta pozgarria den laster yuatea Jesus Sacramentatuan gana! Bai, nere Jesus maitia, esquincen dizut ala eguitea beti emindic aurrera, batez ere, yaquiñ ezquero iturri onetaco urac, ez bacarric garbitzen nautela, baita ere, ematen diretela arguitasuna eta indarra berriz ez erortzeco pecatuan, pocic eramateco nere bicico naigabeac, eta bistutzen duela nere biotzean zure maitetasunaren sua Zu maitatzeco. Badaquit ontaraco zaudela ortxen aldare orretan, esperuan noiz bisitatuco zaituten, eta zure maitazaleac eguiten ditizuten bisitac, ordaincen dituzula emanaz graciac ugari.

¡Ay nere Jesus maitia! erruquitu zaite, arren, pecatari aundi ontaz: garbitu nazazu gaur eguiñ dituten pecatuaren mantxa gucietatic: damu dut, Jauna, biotzbiotzetic Zu ofendituaz: eman

zaidazu indarra eta zure lagunza ez gueiago pecaturic eguiteco, eta bistu dezazu nere biotzean Zu aunitz maitatzeco deseio bici bat. ¡Oh, nor egon leiteque beti zure ondoan! araco, zure serbitzari leal Maria Diaz, Santa Teresaren denboran bicitu cen ure bezala, ceñac erditsi zuen Abilaco Obispuaren baimena bizitzeco elizaco tribuna batean nun zagon beti aldareco Sacramentu Santuaren aurrean, ceñeri deitzen cion bere auzo-laguna: eta etzen beiñere andic lecutzen, confesatu eta gure Jauna artzeco baicic. Fray Francisco del Niño Jesus, carmelita oñutsezco beneragarria pasatzen cen aldiro elizan ondotic, nun zagon gure Jauna Sacramentatua, eciñ egon cen elizan sartu gabe bisitatzera bere Jaun maitia, eta esaten zuen, etzela egoqui bere adisquide baten etxearen aurrean pasatzea an sartu gabe, cer modu esan eta bi itz bera-

quin eguiñ gabe: baño bera etzen orrequin bacarraquin guelditzen, baicic alzuen denbora gucian egoten cen bere biotzeco Jaun Sacramentatuaren aurrean.

¡Ah nere ontasun bacar eta neurrigabea! badaquit eguiñ eta guelditu ciñela Jaungoicozco Sacramentu Santu orretan, eta zaudela aldare orretan nic maitatu zaitecen, onetaco eman direzu biotz bat Zu maitatzeco gai edo capaz dena. ¿Baño nic, olaco esquer txarrecua, certaz maitatu zaitut aiñ gutxi? ez, ez da asqui aiñ amorio epelaquin maitatzea olaco ontasun aiñ maitagarria. Izanic Zu, Jaungoico bat, ontasun, ondasun eta bertze gauza gucietan neurriric gabea, ni berriz lurreco ar bat, deus balio ez duten bat, ez litzeque gauza arrigarria izanen nere bicia emanen banuque zuregatic, bada Zuc lenago eman ciñuen neregatic, guelditu ciñen Sacramentu orretan

neregatic eta esquincen cera Aita Beticuari nere amorioz.

Zuc mereci dezu maitatzea amorioric aundienaquin, eta nic nai zaitut maitatu munduan eta ceruan den amorioric aundienaquin. Lagun zaidazu, nere Jesus maitia, nere deseiu au bete dezaten, lagun zaidazu Zu maitatu eta zure borondatea eta zuc nai dezun gucia eguin dezaten.

**Erreguchua:**

Nere Jesus maitia da neretzat, eta ni naiz berantzat.

*(Deseiozco comuniua pj. 12)*

## MARIA SANTISIMARI

### oguei garren eguneco bisita

¡Oh Maria, Ama gozua! Zuc arquitu ciñuen gracia Jaungoicuaren aurrean, cergatic berac gorde cinducen jatorrizco edo pecatu originalen mantxatic, eta izandu ciñen betea Espiritu Santuaz,

eta beraren eguitez sortu cen zure entraña garbietan Jaungoicuaren Seme bera. Zuc artu ciñtuen mesede oyec denac, ez bacarric zuretzat, baita ere gure onaraco, guri laguntzeco gueuren naigabeatan. Eguia da, Ama maitia, ala eguiten dezula: Zuc laguntzen diozu onari gracian irauneraziz, eta gaistuari prestatuaz escatzeco eta erdisteco beuren pecatuen barcaciua. Zuc laguncen diozu eriotzeco orduan daudenari, gorderic zure itzalpean ordu estu artan, infernuco etsayac ez deitzan galdu, baita ere laguncen diozu illta onduan, artuaz cere escuetan gure animac eta eramanaz betico zoriontasunera. ¡Oh Ama erruquitsua! Zorionecua Zuri serbitcen dizuna eta Zutan dauquena bere esperanza.

**Erreguchua:**

¡Oh Maria zurea naiz, salbanazazu.

(*Azquen erregua pj. 16.*)

## SAN JOSERI

### oguei garren eguneco bisita

¡Oh Jose doitsua, nere zaitzale maitia! orci-toqui edo sepultura zurituac, deitzen dio zure Seme Jesusec araco fariseo aundiqueriaz edo orgulloz betea aieri, ceñac garbitzen zuten bacarric campoco aldea, eta etzuten casoric eguiten barrengo aldeaz, naiz ciquiña bazagon ere, ayen birtute guciac ciren gañecuac edo agueriac eta dena eguiten zuten ez Jaungoicua serbitu eta alabatzeco, baicic beuren buruac alabatzeco. Gaurco egunean ere badire asco, fariseo ayec bezala eguiten dutenac. Aundiqueri eta orgullua bertzeric ez da bazter gucietan, eta ni ere bai, nere Santu maitia, aitorzen dut damuz beteric, erori naiz pecatu orretan beiñ baño gueiyagotan. Zu, mundu ontan bicitu ciñen bitartea etziñen olacua izandu. Ceruco

doai guciaz betea, bicitu ciñen Nazaretco cere zurguiñ-lanetan, cere etxetxuan gordea, lore txiqui politac belarran artean gordetzen diren bezala: baño zure birtutearen usai gozua sumatzen cen Jaungoicuaren yarlecuan, ceñac atsegiñ aundiaquin ecusten zuen zure apaltasun edo umildadea. Eguizu, Patriarca aundia, zure antzera iguesi eguiñ dezaten nic ere munduco aundiquerietatic, beiñere billatu gabe munduco alabanza guezurrezcoac, ari nadin beti Jaungoicua atseguintzen, ceñac maitatzen dituen txiquiac eta umillac.

**Erreguchua:**

Oh Jose santu apala edo umilla, eguizu ni ere izan nadin zure antzecua apaltasunean guero zurequin batean egoteco ceruan.

*(Azquen otoitza pj. 18)*

**SACRAMENTU SANTUARI ogueitabat garren eguneco bisita**

*(Asieraco otoitza pj. 13)*

Munduaren asieran eguiñ zuen Jaungoicuac atseguiñ-baratze edo lurreco paraisuaren erdian ugalde edo iturri ur garbizco bat, ango landaric, plantac eta belarrac urtatu edo erregatzeco. (Gen. 2.) Era berean, gure Elizaco paraisuan, San Juan Crisostomoc dion bezala: paratu du aldareco Sacramentu Santuaren iturria, gure animac erregatu eta ugaritzeco eman dezaten birtutezco lore ederrac eta santutasunaco frutuac. Orregatic Santu guciac negarrezco lur ontan lasterca yuan ciren beti, basauntza egarri aundico baten antzera, Jaungoicozco Sacramentu orren iturrira, ceñetan beti arquitu zuten gozotasuna, atseguiña eta consulo aundiac. Aita Baltasar Albarez, naiz

arquitu edoceiñ lanetan, eciñ egon cen noicean beiñ bere beguiac goratu gabe eta aldareco Sacramentu Santua zagon lecu aldera beguiratu gabe. Bisitatzen zuen anitz aldiz eta batzuetan gaba osoac pasatzen cituen Sacramentu Santu orren aurrean. Negar eguiten zuen ecustean munduco erregue eta aundimendien jaureguiac yendez beteac, ayeri agur eguiteco, naiz beuren escuetatic ez artu baicic mesede llaburrac, txiquiac, urriac eta gutxi irauten dutenac: elizac berriz, nun dagon erregue gucien Erreguia, amoriozco yarlecu batean, guciz aberatsa, ondasun aundi eta beti irauten dutenaz betea guri emateco, eliza oyec daude utsac, iñor gabe: eta esaten zuen, aundia cela conbentuetan bici cirenaren zoriona, bada batere beuren etxetic atera gabe, nai zuten ordu gucietan, naiz gabaz, naiz egunaz bisitatu cezaqueten Jaun

aundi ori aldareco Sacramentu Santuan beuren elizatan. ¡Ah nere Jesus maitia! orreiñ ontasun eta maitetasun aundiaquin deitzen nazun ezquero, naiz ecusi nere miseri, esquer txarra eta nere pecatuac, ez dut oraiñ beldurtu nai gogora ecartzian nere miseriac eta nere pecatu aundi eta eciñ contaalacuac, daquigun ezquero Zuc edoceiñ pecatari biurtu edo conbertitu dezaquezula. Biurtu, ondu nazazu bada ni, pecatariric aundiena au: quendu dezazu nere biotzatic zuregana zucencen ez den maitetasun gucia: quendu zure gogoco ez diren deseio gucic: eta quendu zure serbitzioco ez diren asmo gucic. Nere Jesus, nere maitetasuna, nere ondasuna, nere gucia, Zu bacarra nai zaitut atseguiñdu, Zuc bacarrac mereci dezu nere maitetasuna, Zu bacar-bacarra nai zaitut maitatu nere biotz guciaquin. Lecutu nazazu Zu etza-

ren gauza gucietatic: elcartu edo yuntatu gaitecen bioc, gueyago elcarrengandic lecutu ez gaitecequen moduan, ez mundu ontan eta ez bestian ere. Ala izan dedila.

**Erreguchua:**

¡Oh nere Jesus gozua! ez utzi ni zuregandic beiñere lecutzia.

(*Deseiozco comuniua pj. 12*)

### MARIA SANTISIMARI

**ogueita bat garren eguneco bisita**

Zuregana eldu naiz, ¡oh Jaungoicuaren eta nere Ama maitia! bada Elizac deitzen dizu misericordiaren Ama. ¿Eta cer? ucatu aldezaquezu iñoiz ere pecatariari zure bitartecotasuna, aiñ Jaungoicuaren gogocua, eta ez badizu Zuri beiñere ucatzen, ez eta graci bat bacarric ere Ez dacela gueiago iñorc aipatu zure erruquitasunic, dio San Bernardoc, baldiñ bada bat bacarric ere, zu-

regana etorcen denic bere beartasunetan, estutasunetan eta naigabeatan, guelditu denic zure lagunzaric gabe: Emin eldu naiz bada ni ere zuregana, badaquit ez didazula ucatuco zure lagunza escatzen badizut confianza osoaquin. Bai, uste dut erregutuco dezula nitaz nic baño berotasun aundiguaquin eta erditsico dizquidazula, nic escatzea ausartzen naicen baño mesede aundigoac. ¡Oh erruquiaren Ama! araco, Zutan, denac arquitzen duten ontasun aundi arrec, ¿utzico ote nau lagundu gabe, arquitzen naicenean betico condenatzeco arriscuan? ¡Oh Maria, nere Ama gozua! ni gucia naiz zurea, lagun zaidazu nere anima pobretxua au salbatzen.

**Erreguchua:**

Nere Ama maitia, zuc salbatu biar nazu.

(*Azquen otoitza pj. 16*)

## SAN JOSERI
### ogueita bat garren eguneco bisita

Baldiñ cristaba guciac, Maria, zure Esposa garbia, eguiaz edo arrazobe aundiaquin, baidauquete beuren Ama, lagun-zale eta bitartecotaz, era berian Zu ere, oh Patriarca aundia, bear zaituzte iduqui beuren Aita eta bitartecoz: orregatic Eliza-Ama Santac autatu zaitu bere ume gucien zaizale. Araco Jose Santua ure, Jaunac, Faraon erreguearen onduan paratu zuena, bere anaiataz otoitz eguiteco, da zure iduri bat, bada Zu zaude, Jesucristo, ceruco Erreguearen onduan, bere ondasun eta aberastasunaren beguira-zale eta zabalzale. Ni, cristab gucien artean bearsuena, eldu naiz gaur zuregana, nere Santu maitia, zure lagunza, aundiaren billa, ixuri ditzazu ugari ceruco ondasunac nere biotzean. Ongui daquit ez dutela mereci olaco mesederic, ¿baño, baldiñ Zuc, Eli-

za- Ama Santac niri emana cerana nere bitarteco eta zaitzaletaco ucatzen badirezu zure lagunza, nora yuanen naiz? ¿cer eguiñen dut? Ala ere, uste dut lagunduco direzula, bada, Zuc ez dezu mundutarrac bezala eguiten, baicic nayago dezu lenic aditu eta lagundu bearsuari.

Aditu bada nere erreguac eta erditsi zaidazu gracia zure icaspide eta pausuetan ebilli ta ondorean arquitu nadin egunenbatean zurequin ceruan. Ala izan dedila.

**Erreguchua:**

Oh Jose Santua, biarsuaren lagunzalea, erruquitu zaite nitaz.

(*Azquen otoitza pj. 18*)

**SACRAMENTU SANTUARI**
**ogueitabi garren eguneco**
**bisita**

(*Asieraco otoitza pj. 13*)

Liburu santuac esaten duen esposa zabillen bere maitiaren

billa, eta nola ez baizuen arquitzen, topatzen zuen guciari galcen cion: ¿ecusi aldezue nere animac maitatzen duena? (Cant. 3) Orduan etzagon Jesus lurrean, baño, baldiñ bere anima maitazale batec billatzen badu oraiñ Jesus, beti arquitzen du aldareco Sacramentu Santuan. Aita Abila beneragarriac esaten zuen: eliz gucien artean, etzela arentzat naitagarrigoric, Jesus Sacramentatua arquitzen cen eliz ure baño.

¡Oh nere Jaungoicuaren maitetasun neurri gabea, mereci dezuna bertze neurrigabeco maiteta sun batequin maitatzea!

¿Nola apaldu cera ainbesterano, oguiaren antzan gorde arte guizonen artean bicitze gatic eta beuren biotzetan sartzegatic? ¡Oh Jaungoico guizon eguiña! Gueiegui apaldu cera, gueiegui maitatu gaituzulacoz. ¿Nola utzi nezaque nic nere biotz guciaquin Zu maitatu gabe, yaquiñic cer

eguin dezun Zuc nere maitetasuna zureganatzeco? Maitatzen zaitut nere indar guciaquin, eta orregatic naigo dut eguiñ zure borondatea nerea baño: nere atseguiña da zuri atseguiña ematea, nere Jaungoicua, nere amoriua eta nere on gucia. Bistu dezazu, Jauna, nere biotzean deseio aundi bat zure aldarean aurrean zuri lagun eguiteco eta alduden gucietan Zu artzeco comunio santuan. Zu, Jauna, sagrario orretatic niri deica zaude eta ni izanen nitzeque esquer gabe gaisto bat ezbanuque gogo aundiaquin artuco zure esquince edo conbite gozua ori. ¡Ay nere Jesus! Auts eguizu edo deuseztu dezazu nic munduco gauzataraco duten zaletasuna edo aficiua, bada Zuregana, nere Eguillea, zucendu bear ditut nere maitetasun eta asmo guciac. Maitatzen zaitut nere Jaungoicuaren ontasun maitagarria: Zutaz landara ez det mun-

duan deus nai. Emindic aurrera oinperatuco ditut nere pozac eta nere atseguiñac, bada gauza gucietan eta beti naidut eguiñ bacar-bacarric zure borondate santua. ontzat artu ditzazu, nere Jesus maitia deseio oyec, bada oraiñ arte pecataria izandu bainaiz ere, nai zaitut maitatu emindic aurrera, lagun zaidazu cere graciaren indarraquin. Baldiñ oraiñ arte zorigaiztoan bicitu bainaiz infernuco etsayaren menean, eguizu, Jauna, gaurtic aurrera izan nadin zure serbitzale cintzo eta leal bat. Ala izan dedila.

**Erreguchua:**

Maitatzen zaitut, Jesus nerea, eta besarca aundi batequin estutzen naiz zurequin.

*(Deseiozco comuniua pj. 12)*

## MARIA SANTISIMARI

### ogueita bi garren eguneco bisita

¡Oh Jaungoicuaren Ama, eta nere Ama maitia! Zure ontasunac ez du beiñere bota zure ondotic, zu billa damuturic elduden pecatariric. ¿Baño cer? ¿Eliza-Ama Santac uts eguiñen aldu deitzen dizunean bere bitartecua eta pecatarien iguesl ecua? ¡Ah! ez dadila guertatu beiñere nere pecatuen aunditasunac paratu dezaten trabaric zure erruquitasunari, ceñetan dauquezun guretzat igueslecuric seguruena. Ez dadiela beiñere esan, Jaungoicuaren Ama beratxac, ceiñangandic yayo cen erruquitasunaren iturria, ucatu diola bere lagunza beregana eldu den pecatarian bateri. Zure eguiñ biarric edo oficioric aundiena da Jaungoico eta guizonen artean baquea eguitea. Lagun zaidazubada, arren, zure misericordi aundi orrengatic, damuturic el-

dunaiz nere pecatu gucietaz, bada ayec guciac baño aundigua da zure erruquitasuna.

**Erreguchua:**

Cantatuco ditut betiraunde gucian, Mariaren misericordiac.

*(Azquen otoitza pj. 16)*

## SAN JOSERI

### ogueitabi garren eguneco bisita

¡Oh nere Patriarca santua! Zure alaba maiti Santa Teresac esaten zuen: etzuela ezagutu iñor Zu eguiaz maitatu eta serbitu zaituenic, ceruco bidean eta birtute gucietan ugari aitzintu gabe. Eta ez daiteque bertze modutan guertatu zaren ezquero Zu birtute gucien icaspidea, eta eraman cintuan ezquero alaco zailtasun aundiaquin naigabe eta neque guciac: berezcua da, Zuc cere maitatzaleatan birtute gucien de-

seio aundi bat zabalzea. Erditsi zaidazu bada niri ere birtute gucien naicari aundi bat, bada aundia da zure escumena, oh nere Santu maitia, eta aundia ere da nere biartasuna. Zure lagunzarequin erditsico det gucia, baño, batez ere birtute gucien amoriua eta zintzotasuna. Eguizu, Jose santua, munduco nere ebillera gucietan beti iduqui dezaten nere beguiaren aurrean birtute gucien amoriua ori, eta mundu ontaco itsasuan orixen izanen da nere izarra, orrec arguituco dit ez erortzeco peligruetan, orrec gozatuco ditu nere biotzeco naigabeac eta guero sartuco nau ceruan. Ala izan dedila.

**Erreguchua:**

¡Oh Jesus Aitaordeco santua! lagun zaidazu, arren, olaco ume zurz edo aitaric gabeco ume bearsuari.

(*Azquen erregua pj. 18*)

## SACRAMENTU SANTUARI
### ogueitairu garren eguneco bisita

*(Asieraco otoitza pj. 13)*

Cristab anitzac arrisco eta neque aundiaquin eguiten dituzte bide luceac bisitatzegatic Jerusalen eta inguruco lecu santu ayec, ceñetan, Jesucristo gure Salbatzalea sortu, bici eta ill cen. ¡Ah! ¡eta nola, guc ecustean cristab orien debocio berua, lotsatu bear degun gure zabarqueri eta esquergabequeriaz! bada, utzitzen degu anitz aldiz bisitatu gabe Jesucristo, Jaun bera ure illcena galbariuan eta dagona gure elicetan, gueuren errietan eta gueuren etxearen onduan: ez degu bide luceric eguiñ bear, Jesus aldareco Sacramentu Santuan bicitatzeco, ¡eta ala ere ceiñ gutxi oroitzen gueran beraz! San Paulinoc dio: Jerusalena yuaten diren peregrinuac, gogo anndia-

quin ecarcen dutela Jesucristo yayocen ganbelaco edo enterratu zuten lecuco lur pisco bat. Bada ceiñ amorio aundiaquin eta ceiñ deseio beruaquin ezquiñuque yuan bear guc bisitatzera aldareco Sacramentu Santua, ¿nun dagon Jesus ber-bera, eta maiz-maiz bisitatzeco ez degu eguin bear alaco bide luceric ez ta ere pasatu arriscoric? Cristab on batac, ceñeri Jaungoicuac eman cion aldareco Sacramentu Santuaren maitetasun aundi bat, carta batean, bertze gauzan artean esaten zuen: «Nic ecusi dut argui eta garbi, nere on gucia eldu zaitela aldareco Sacramentu Santutic: nic utzi det mundua eta bere gauzac eta eman eta esquiñi naiz naicen gucia Jesus Sacramentatuari. Ecusten dut nola eciñ contaala gracia ez diren ematen, cergatic ez ditugun billatzen Sacramentu Jaungoicozco orretan. Ezagutzen det ceiñ deseio aundia

duen gure Jaunac zabalzeco bere mesediac eta graciac Sacramentu onen bitartez. ¡Oh misterio santua! ¡Oh Ostia consagratua! ¿Nun ecusten degu Ostia ontan biceiñ ongui Jaungoicuaren almen edo podore aundia? cergatic Ostia ontan arquitzen da Jaungoicuac guregatic eguiñ zuen gucia. Ceruco zorioneco ayec dauqueten Jaungoico bera dauquegu guc ere olaco maitetasun arrigarriaquin lurrean gueun elicetan, orregatic ez degu cerutarren enbidiric. Eguizu aleguiñ gucia Sacramentu Santu onen maitetasunaren sua bistu dedin munduco guizon gucien biotzetan. Ni onela mintzatzen naiz, cergatic Sacramentu onec paratzen nau cer eguiten duten ez daquitela, gueldítzen naiz oso txoraturic, eta nic nai izanta ere ez naiteque egon minzatu gabe orrenbesteco maitetasuna mereci duen Sacramentu Santun ga-

ñean. Nic ez daquit cer esan eta cer eguiñ Jesus Sacramentatuaren maitetasunaz.» Olaxen acabatzen-du bere carta.

¡Oh Ceruco Serafiñac! Zuec zaute atseguiñaz beteric Jaungoicuaren inguruan bere maitetasunaren suan quixcalcen, eta ala ere ceruco Erregue onec etzuen guelditu nai izan zuengatic Sacramentu orretan, baicic guregatic. Utzi bada niri. ¡Oh Aingueru santuac! amorioz erre nadin, edo zuec erre ta quixcali nazazue Jaungoicuaren amoriuaren suan zuen antzera, olaxen zuec eta gu guciac batean maitetasun orretan quixcaliric bici gaitecen. ¡Oh nere Jesus ona! Eguizu ezagutu dezaten guizonari diozun amoriuaren aunditasuna, ecusiric olaco zure maitetasun larria, guerogo ta gueigo aunditu dadin nere biotzean Zu maitatzeco deseiua. Maitatzen zaitut, Jaungoico maitagarria, gau-

za guciac baño gueiago eta beti nai zaitut maitatu, ez bertze gatic, baicic Zuc ala nai dezulaco eta Zu atseguiñtzegatic.

**Erreguchua:**

Nere Jesus, Zutan siñesten dut, zutan esperatzen dut, Zu maitatzen zaitut eta zuri ematen dizut nere biotz gucia.

*(Deseiozço comuniua pj. 12)*

## MARIA SANTISIMARI

### ogueitairu garren eguneco bisita

¡Oh Maria erruquitsua! Oroitu zaite ez dela iñoiz aditu munduan, zuri cere lagunza escatu dizunic, utzi dezula lagundu gabe eta bota dezula zuregandic. ¡Oh Maria! erregu zazu denangatic, eta batez ere nigatic: bada izanic ni bertziac baño pecatari

aundigua, dut zure lagunza eta erreguaren premia aundigua.

**Erreguchua:**

¡Oh nere Ama maita, Maria Santisima! eguizu nic izan dezaten confianza aundi bat zutan.

*(Azquen otoitza pj. 16)*

## SAN JOSERI

### ogueitairu garren eguneco bisita

¡Oh nere Patriarca maitia, San Jose! Ecusiric Aita Beticuac, zure birtutearen aunditasuna, zuri aguindu cizun zaitzeco eta guratso-ordeco eguiteco lurrean bere Seme Jesucristo, mundu gucia salbatzeco guizon eguiñaquin. Zuc aitaric oberena eta maitazaleenac bezala bete ciñuen aguindu edo encargu santu ure, zintzo beguiratuaz Jesus aurtxuari bere lentabicico urte ayetan, lagunduaz

bere beartasun gucietan, beiñere utzi gabe, ordu batian ere zure eguiñ bear aundi ure. Ni, Jose, nere lagunzale maitia, pecatu eguiñ dutelic, yuan naiz infernuco demoniuaren, nere animaren etsayaric aundienaren atzetic eta nere bicitza pecatuz beteaquin galdu det nere Aita cerucua eta arquitzen naiz oraiñ beraren mesede, gracia eta lagunza gabe.

Olaco beartasunean, ¡oh Jose doitsua! zuregana eldu naiz, zure itzalpe eta lagunzan billa. Peligro aundiaren artean, umezurtz edo guratsoric gabeco umean guisa nago lagunzaric gabe, beguiratu dezazu bada nitaz, erditsi zaidazu gracia nere Jaungoicuaquin paquea eguiteco eta izan zaite neretzat bigarren aita. Baldiñ, Zuc erregutzen badiozu nitaz zure semetxo Jesuseri, unec artuco nau bere besutan ebangelioco seme ondazalea bezala, eta emanen dit bere gracia eta ola garbituric

nere pecatu gucien mantxatatic, yuanen naiz cantatzera zurequiñ batean ceruan Jesusen alabanzac. Ala izan dedila.

**Erreguchua:**

¡Oh Jose santua, Jesusen Aita-ordecua! ez utzi lagunzaric gabe umezurtz edo guratsoric gabeco ume erruquitsua au.

(*Azquen erregua pj. 18.*)

## SACRAMENTU SANTUARI ogueitalau garren eguneco bisita

(*Asieraco otoitza pj. 13*)

Zu cera eguiaz Jaungoico gordea (Luc. 45.) Beguiratzen badiogu Jaungoico gure Jaunac gure maitetasunangatic eguin dituen gauza gucieri, ez degu arquituco bat bacarric ere, ceñetan aguercen diren obequi San Lucasen itz

oyec, aldareco Sacramentu Santuco misterio beneragarri ontan baño, nun dagon gure Jaungoicua gucia gordea. Gure araguiz yanci cenian edo Encarnacioco misteriuan gorde zuen bere Jaungoicotasuna eta aguertu cen lurrean guizon eguiña: baño guero, guelditu cenian guregatic aldareco Sacramentu Santuan: gorde zuen bere guizontasuna ere: eta bacarric ecusten degu, dio San Bernardoc: oguiaren iduri bat, aguertzeco guri orrela bere maitetasun aundiguia.

Nere Salbatzale maitia, ecustean ceiñ amorio aundiaquin maitatzen dituzun Zuc guizonac, ni guelditzen naiz arrituric eta cer esan yaquiñ gabe. Zuc Sacramentu onetan, gure amorioz, gordetzen dezu zure aunditasuna eta zure gloria, eta or zauden bitartean iduri du ez dezula bertze lanic eta bertze eguiñ bearric baicic guizonac maitatu eta mai-

tetasun au beuri aguertu. Baño... oyec... ¡Oh Jaungoico aundia! ¿Cer itzulico dizute? ¡Oh Jesus, guizonaren amorioz zoratua zaudena! Barca zaidazu ola itz eguiten badut, ecusiric guizonac gueiago beguiratzen dutela beuren onari, zure on izate eta onrari baño. ¿Etzañequian, nere Jesus biotzecua, cenbat naigabe eta citalqueri eguiñen cintizun guizonac Sacramentu Santu orretan? Nic ecusten dut eta nic baño aguitzaquin obequi ecusten dezu Zuc, munduco guizonaric gueyenac etzaituztela nai ezagutu Jaungoicotaz Sacramentu Santu orretan. Nic badaquit guizon oriec beuruc, beiñ baño gueiagotan oiñpean ebilli ditutela osti consagratuac, baita ere bota dituztela lurrera, urara, sura. Ecusten dut ere, ¡oh nere Jaungoico maitia! nola cristab anitzac arindu eta aguertu bearrean pena eta sentimentua, zuri eguiñaco irain

edo ofensagatic eta Zu adoratu eta maitatu bearrean, oyec ere etorcen dire elizara Zu ofenditzera eta utzitzen zaituzte bacar-bacarric casoric eguiñ gabe zure aldaretan eta batzuetan zaude, ez arguiric, ez loreric eta adornurican ere gabe. ¡Ay nere Salbatzale maitia! Nic albanazaque, ceiñ pocic garbituco nituque nere beguietaco negarrequin baita ere nere zañetaco odolarequin, araco zorigaistoco lecu ayec, ¡ceñetan Sacramentu Santu onetan izandu cen ofenditua zure biotz maitagarria! Baño au ez badezaquet eguiñ, arcendut beñepin asmoa Zu bisitatzeco eta adoratzeco anitz aldiz Sacramentu Santu orretan, oraiñ eguiten duten bezala, nolabaitere esquerrac emateco guizonac eguiten dizquizuten irain edo injuriaren ordez. Onzat artu dezazu oh Aita Beticua, munduan den guizon cupigarrienac eguiten dizun esquinza

laburra au: onzat artu dezazu araco zure Seme Jesucristoc gurutzean eman cizun eta aldareco Sacramentu Santuan egunero ematen dizun atseguiñ eta gloria neurri gabeangatic. ¡Ay nere Jesus maitia! Nic bistu albanezaque munduco guizon gucien biotzetan zure maitetasunaren sua, Zu maitatzeco Sacramentu Santu orretan, aguitz pocic eguiñen nuque, naiz ontaco eraman bear bai nituque ere nequeac eta naigabe aundienac.

**Erreguchua:**

¡Oh Jesus maitagarria! eguizu denac ezagutu eta maitatu dezaten zure biotz gozua.

*(Deseiozco comuniua pj. 12)*

## MARIA SANTISIMARI

### ogueitalau garren eguneco bisita

¡Oh gure Ama maitia! Zu beti zaude prest lagunceco pecatariari, bada emin daucazu zure deiaz pecatari aundi bat, ez ucatu oraiñ niri zure laguntza sendua, eta lagun zaidazu agudo: baldiñ Zuc zure erruqui aundiaquin salbatzen badezu milla infernu merecí dituen pecatari bat, zurea izanen da gloria eta zuri izanen dizut zor olaco mesedea. Zure erreguac balio aundicuac dire zure Seme Jesusen aurrean, orregatic Zuc erditsi dezaquezu neretzat, nic bear dituten graciac eta birtuteac: eguiñ zaidazu bada mesede ori Jesucristori diozun amorioz, ¡Oh Maria beti garbia! beti aitortuco dut San Bernardoquin, Zu Jaungoicuan, eta Jaungoicuaren urrengo cerala nere esperanzaric aundiena.

**Erreguchua:**

¡Oh nere Jaungoico maitia! eman zazquidazu Mariac neretzat escatzen dizquizun graciac.

*(Azquen otoitza pj. 16)*

## SAN JOSERI
### ogueitalau garren eguneco bisita

Job santuac dio: guizonaren bicia dela laburra eta bici dela munduan beartasunaz eta naigabez betea. Eta, ¡ceiñ eguia aundia den auxen, nere Jose biotzecua baita ere eguia da, ¡cenbat eta aundigua den gure argaltasuna eta aultasuna, orduan eta aundigua dela gure soberbia eta aundi naia! ¿Cer erguelqueria da au? Edociñ gauzagatic orgulloz betetzen guera, instante bateco gusto ciquiñ baten gatic eguiten degu edociñ gauza, eta Jaungoicua serbitzeco berriz, eta onguia eguiteco ez guera muguitzen,

edociñ gauzagatic aserratzen eta naigabetzen guera ezbaguiñaqui bezala, mundu ontaco onrac eta ondasunac direla iguzquiac idorcen duen belarra bezala, deus balio ezdutela, eta eguiazco atseguiña, bacar-bacarric arquitzen dela Jaungoicuaren leguea bete, bera maitatu eta beraren borondatea eguitean. Zuc ¡oh nere Aitalen edo Patriarca aundia! Etziñuen ola eguiñ mundu ontan bicitu ciñen bitarte, Zuc uste ciñuen deus etziñuela balio, eta ala ere ceiñ azcartasun eta pacienci aundiaquin eraman dituzu mundu ontaco neque eta naigabeac aundiac baiciren ere, orregatic naiz arquitu baciñen ere atsecabe eta peligro aundien artean, beiñere etziñuen galdu zure biotzeco paquea.

Erditsi zaidazu bada niri ere, oh nere Aita amorosua, zuc bezala eguiteco gracia, zure pausuac seguitzeco indarra eta zure la-

gunza, garaitzeco mundu ontan nere animaren etsayac eta guero sartu nadin ceruan. Ala izan dedila.

**Erreguchua:**

Oh Aitalen santua, eman zaidazu indarra zuc bezala eguiteco ceruco bidean.

(*Azquen otoitza pj. 18*)

## SACRAMENTU SANTUARI ogueitabost garren eguneco bisita

(*Asieraco otoitza pj. 13*)

San Pabloc alabatzen du Jesucristoren obediencia, esanaz: obeditu zuela bere Aita Beticuari eriotzeraño. Baño aldareco Sacramentu Santuan aguitz aundigua da bere obediencia: bada emin ez bacarric obedecitzen du Aita Beticuari baita ere guizona-

ri, eta munduac iraunen duen arte. Yeusten da cerutican guizon bateri obedecitzeco, eta guizonac nai duen biceiñ agudo, aldare gaiñean arquitzen da. Bertan dago muguitu gabe utzitzen duten lecuan, naiz aguerian custodian, naiz gordea sagrariuan. An duaye, gure Jesus maitia, naiz carricaz-carrica procesiuan, naiz edoceiñ etxetara eriac bisitatzera, eta gure Jauna artzen dutenian yuaten da ala onen nola gaistuaren biotzera. Mundu ontan bicitu cen bitartean obedecitzen zuen bere Ama Maria Santisimari eta bere Aitordeco San Joseri, dio San Lucasec, baño aldareco Sacramentu Santuan obedecitzen du munduan diren apez guciari.

Utzi dezazu, egun ontan itz eguiñ dezaten zurequin, ¡oh Jesusen biotz maitagarria! ceñatic atera ciren Sacramentu guciac eta batez ere amoriozco Sacra-

mentu au. Nai nizuque eman ainbeste gloria eta onra, cenbat Zuc ematen diozun Aita Beticuari Sacramentu Santu orretan. Nic ongui daquit aldare orren gañean maitatzen nauzula, araco gurutzean neregatic illzean izandu ciñeren maitetasun beraquin. Arguitu zazquizu, ¡oh biotz Jaungoicozcua! ezagutzen etzaituzten guciac. Zure irabaci edo merecimentuangatic atera ditzazu len baño len edo arindu eta laburtu purgatoriuan sufritzen dituzten oñaceac eta naigabeac anima gaixua ayec, direnac ya zure betico lagunac edo esposac. Nic adoratzen, alabatzen eta maitatzen zaitut ordu ontan munduan eta ceruan maitatzen zaituzten anima guciaquin, quendu dezazu, ¡oh Biotz guziz garbia! nere biotzetic munduco gaucen bidegabeco zaletasuna, eta bete dezazu cere maitetasun santuaquin. ¡Oh biotz gozua! artu eta iduqui dezazu ne-

re biotz gucia, eta eguizu gaurtic aurrera izan dedin dena zurea. ¡Oh biotz aguitz santua! Paratu eta yosi ditzazu nere biotzean, mundu ontan ainbeste urtez, nere maitetasunaz eraman cintuen neque eta naigabeac, nic ere zure maitetasunaz eraman ditzaten pacienciaquin mundu ontaco neque guciac. Nere Jesusen biotz umilla, eguin nazazu biotz umillacua. Biotz sotilla eta beratxa, ondu nazazu, eta quendu nere biotzetic zure gogocua ez den gucia, biurtu dezazu ceregana ez dezaten nai izan Zuc nai dezuna bertzeric. Eguizu azqueneco ez nadin bici mundu ontan baicic Zu maitatzeco, Zu atseguiñtzeco eta zure borondatea eguiteco. Ezagutzen dut aunitz zor dizutela. ¡Ay Jauna! zuregatic nere bicia emanen banuque ere, gauza gutxi izanen litzeque, zuri zor dizuten maitetasuna ordainceco.

**Erreguchua:**

¡Oh Jesusen biotz gozua! Zu bacar-bacarra cera nere biotzeco jabea.

*(Deseiozco comuniua pj. 12)*

## MARIA SANTISIMARI
### ogueita bost garren eguneco bisita

¡Oh Maria, nere Ama-maitia! ¡ceruco eta lurreco Erreguiña! Zu cera Jaungoicuac guri eguiñ nai ditugun misericordi gucien gordezalea. Ceurrec esaten direzu: cerequin dauzquezula ondasunac, Zu maitatzen zaituztenac aberastutzeco. Ea bada, Ama biotzecua, aberastu ditzazu ceruco ondasunaquin Zu billatzen zaituzten guciac, Nere Ama-maitia, eguia da, pecatari aundi bat naicela, baño baita ere eguia da, aunitz nai zaituztela maitatu: erruquitu zaite, bada, arren, nitaz, ez nazazu bota zuregandic,

lagun zaidazu nere bicitza gucian eta batez ere nere eriotzeco ordu estu artan, erditsi dezaten egun batean Zu ecustea ceruan. Ala izan dedila.

**Erreguchua:**

Maria Santisima, eguizu guciac billatu dezagun zure lagunza.

*(Azquen otoitza pj. 16)*

**SAN JOSERI**

**ogueita bost garren eguneco bisita**

¡Oh Patriarca doitsua! mundu ontan bertze gauza gaistuan artean ildurratu edo mortificatzen gaituena da, gueuren burua gueiegui maitatzea, orregatic ecusten ditugu batzuetan istillu aundiac, samintzen zaizquigu atseguiñ oberenac eta gure lagun urbillacuac eciñ burutu gaituzte. Orregatic cristabaren lenbicico eguiñ bearra da, bere biotzatic aldendu bere buruari dion maite-

tasun gaistua ori, ceñac ainbeste calte eta ainbeste pecatu eguiñazten duen eta ceiñ den zure Seme Jesusec eracutsi zuen caridade ederran caltecua. Eta ori erdisteco, ez da bertze bideric, baicic zure antzera eguiñ eta zure icaspide ederrac seguitu, bada Zuc etziñuen izandu lanic olaco maitetasun gaistua ori garaitzen. Erditsi zaidazu bada, nere Aita maitia, zuc bezala ildurátu edo mortificatu dezaten nere griña edo pasio txar guciac eta arquitu dezaten nere animantzat, araco, zuc mundu ontan bicitu ciñen bitartean izandu ciñuen paque ederra ure, ceiñ izanen den guretzat egalac bezala egatzeco negarrezco lur ontatic ceruco gloriara.

**Erreguchua:**

San Jose gloriosua, eguizu ildurátu edo mortificatu dezaten nere griña edo pasio txar guciac.

(*Azquen otoitza pj. 18*)

## SACRAMENTU SANTUARI ogueita sei garren eguneco bisita

*(Asieraco otoitza pj. 13)*

(Poztu zaitezte eta alabatu dezazue ceuren Jauna, Sionen bici zatenac, bada ceuren artean dago Jaun aundia, Israelco Santua. (Is. 12.) ¡Oh nere Jaungoico maitea! ¡Nolaco atseguiña izan bear guenduque, eta cer pozaz beteac egon bear luquete gure biotzac, yaquiñic gueuren artean, gueuren errian, gueuren elicetan, gure etxearen ondo-ondoan bici dela aldareco Sacramentu Santun, santu gucien Santua, Jaungoico eguiazcua, maitetasuna bera, ceñac bera ecusiaz edo bere presenciaquin eguiten dituen zorionecuac ceruco santuac! Sacramentu Santu au ez da bacarric maitetasunezco Sacramentua, baita ere maitetasuna bera, edo Jaungoicua bera, ceñeri, bere umeari

duen neurrigabeco maitetasunaz, deitzen zayon maitetasuna edo caridadea. « Deus charitas est. » Baño nic aditzen dut quejatzen cerala, oh nere Jesus Sacramentatua. «Hospes eram et non collegistis me» Zu etorri ciñela mundu ontara gure onaraco eta guc ez dizugula eman ostaturic gure biotz eta animetan. Eguia da, Jauna, arrazobe dezu. Ni neurre naiz esquergabe orietaco bat, utzi zaituztena bacarric, noizen beinca bederic bisitatu gabe. Castigatu nazazu naidezun bezala, baño ez neregandic alde eguiñaz. Ez, nere Jauna, ez, ez naiz izanen oraiñ arte biceiñ esquer txarrecua, nai dut eñmendatu. Gaurtic aurrera, ez bacarric nai dut etorri maiz-maiz Zu bisitatzera, baita ere nai dut egon alduten denboric luceena zure onduan. ¡Oh Salbatzalle erruquitsua! eguizu izan nadin zintzua, eta ecarri ditzadan nic bertze guciac nere icaspide edo

ejenpluaquin zure aurrera, zuri Sacramentu Santu orretan lagun eguitera. Nic aditzen dut nola Aita Beticuac esaten duen: «au da nere Seme maitia, ceñetan dauqueten nere atseguiñ gucia» bada, baldiñ Jaungoico batac arquitzen badu Zutan bere atseguiñ gucia, ¿nola nic ez dut izanen pozaric aundiena zurequin egotean negarrezco lur ontan? ¡Oh su errezalea eta gucia deuseztera biurtzen dezuna! quiscali eta urtu dezazu nere biotzean diren munduco gauzaren deseio guciac, bada munduco gauzaren maitetasunac galdu eta zeregandic aldendu nezaque, oh nere Salbatzale maitia. Eguiñ dizquidazun ezquero oraiñ arte ainbeste mesede: eguiñ zaidazu bat gueiyago. Quendu dezazu nere biotzatic zuregana zucendutzen ez den maitetasun gucia. Naicen gucia yarcen naiz zure escu bedicatuetan, eta egun ontan esquincen dizut nere bicia,

naiz izan lucea edo laburra egoteco beti Zu maitatzen Sacramentu Santu orretan. Zu nere Jesus Sacramentatua izanen cera nere aleguiñ eta maitetasun gucia ala bicitzan nola eriotzeco orduan: eman zaidazu, nere Jesus maitia, gracia eta lagunza gure Jauna artzeco nere azqueneco eritasunan ill baño lenago eta guero eraman nazazu zure zorioneco erreñu artara. Ala izan dedila ala espero dut.

**Erreguchua:**

Nere Jesus maitia, ¿noiz etorrico da, zure arpegui ederra ecusi dezaqueten egun zorionecua ure?

*(Deseiozco comuniua pj. 12)*

### MARIA SANTISIMARI
### ogueita sei garren eguneco bisita

¡Oh Jaungoicuaren eta nere Ama-maitia, Birgiña gozua! San

Bernardoquin esanen dizut oraiñ: Zu cera misericordiaren Erreguiña: ¿eta ceiñ dire zure mendecuac, errucarriac ez badire? Zu erruquiaren Erreguiña eta ni pecatari gucien artean errucarrina. Ea bada, Ama-maitia, baldiñ Zu bacera erruquiaren Erreguiña eta ni pecatarien artean aundiena, orduan bada ni naiz zure mendeco aundiena, orregatic Zuc beguiratu eta zaitu bear nazu ni, beste guciac baño gueiyago. ¡Oh ceruco nere Ama-maitia, nere laguntzale indarsua! Ongui daquizu nere premiaren berria, lagun zaidazu eta erruquitu zaite nitaz.

**Erreguchua:**

¡Oh Maria, Zu cera nere sendotasuna, nere paquea, nere osasuna eta nere gucia.

*(Azquen otoitza pj. 16)*

## SAN JOSERI

### ogueita sei garren eguneco bisita

¡Oh Patriarca gloriosua! ¡nola uts eguiten duten araco cristab ayec, uste dutenac conbentuan sartu direnac bacarrac eguiñ bear dutela penitencia eta erditsi dezaquetela cerua munduco atseguiñan artean, beuren buruari deus ucatu gabe, emanaz beuren araguiari escatzen duen gucia! Jesucristoc bere Ebangelio santuan, batez ere, bere pasioco denboran, aguindu cion bere Apostoluari penitencia, oraciua eta erne egoteco pecaturic ez eguiteco: eta oyec era berian ez dire beiñere aspertu cristab guciari gauza bere erecusten. Zure bicitza, nere Lagunzale maitia, da icaspide edo ejemplo bici bat eta etziñuen izandu beiñere bertze atseguiñaric, Jaunac ceruraco autatu dituenari bialtzen dituenac baicic. Nic oraiñ arte eguiñ dut

dena uquer, ez Zuc bezala, bada nere araguiari ez diot deus ucatu, eta ebilli naiz beti iguesca illdura edo mortificaciutatic eta penitenciatatic. Oraiñ arte orrela bicitu naiz, baño nago aguitz damuturic. Orregatic eldu naiz zuregana, Jose santua, eta escatzen dizut zure lagunza indarsuan bitartez erditsi zaidazun indarra eta gracia zure antzera eguiteco lurrean eta guero arquitzeco atseguiñaz beteric ceruan. Ala izan dedila.

**Erreguchua:**

¡Oh Jose, nere santu maitia! eguizu maitatu dezaten illdura edo mortificaciua.

(*Azquen otoitza pj. 18*)

**SACRAMENTU SANTUARI**
**ogueita zazpi garren eguneco**
**bisita**

(*Asieraco otoitza pj. 13*)

Eliza-Ama Santac dio Sacramentuaren otoitzetan: «Ez dela

erreñu bat bacarric dauzquenaric beuren Jaungoicuac aiñ urbill nola dauquegun guc gueuren Jaungoico ona.» Gentillac aditzean gure Jaungoicuac gure maitetasunaz eguiten dituen gauzac, esaten zuten: ¡oh, ceiñ ona den cristaban Jaungoicua! ¡ceiñ ona den! Eguiaz, naiz gentillac asmatzen baicituzten ere beuren gogoco Jaungoicuac, ala ere ez degu iracorritzen edo leitzen ayen liburuetan asmatu zutela iñoiz ere Jaungoico bat gure Jaungoicuac aiña guizona maitatzen duenic: ceñac aguertzeco bere maitetasuna, ure maitatzen dutenari eta aberastutzeco bere ondasunaquin, eguiñ zuen amorciozco milagro aundi au, guelditzea guregatic, gure betico lagun eguiñic, gordea gab eta egunaz aldare orretan, sagrariuan barrenean, gure ondotic eciñ lecutu bailitz bezala instante bataz ere. ¡Ah, nere Jesus gozua! Ongui ba-

daquit eguiñ ciñuela cere milagroric aundiena, gurequin egoteco ciñuen ayerra aundi ori betetzegatic. ¿Baño, cergatic, Jauna, iguesi eguiten dute guizonac zure aurretic? ¿nola bici daitezque ainbeste denboran zure ondotic urruti, zuregana urbildu gabe, eta aiñ gutxitan bisitatzen zaituztela? Zure aurrean egoten badire ordu laurden bat, iduritzen zaioten mende edo siglo bat, aiñ aundia da beuren naigabea eta gogo txarra. ¡Oh nere Jesusen paciencia, ceiñ aundia ceran! baño badaquit, Jauna, cergatic den aiñ aundia, aundigua delacoz Zuc guizonari diozun maitetasuna, eta orregatic zaude beti, iñoiz ere lecutu gabe guizon esquergabe orien ondotic.

¡Ay nere Jaungoicua! ¡izanic Zu neurrigabeacere osotasunean, era berean ceraneurrigabea cere maitetasunean! eguizu ez nadin ni izan emindic aurerra esquergabeco

orien antzecoa, oraiñ arte bezala. Eman zaidazu nic zuri izan bear dizuten aiñaco amoriua. Bacen denbora bat (zorigaiztoco denbora) ceñetan ni ere aspertzen nitzen zure onduan egotian, cergatic etziñucen maitatzen edo gutxi maitatzen cindutelaco. Baño, baldin zure lagunzarequin maitatzen bazaitut bear den bezala, orduan, nere Jesus Sacramentatua, beiñere aspertu gabe egonen naiz zure ondoan gabaz eta egunaz. ¡Oh Aita Beticua! esquincen dizut zure Semea bera, eta beraren merecimentuagatic escatzen dizut aldareco Sacramentu Santua maitatzeco maitetasun aundi eta bero bat, eta orrela pasatzen naicen aldiro Jesus Sacramentatua dagon elizan aurretic, bistu dedin nere biotzean deseio suzco bat an sartu eta egoteco alduten denbora gucian beraren aurrean.

**Erreguchua:**

Nere Jaungoicua, eman zaidazu Jesusen maitetasunaz aldareco Sacramentu Santuan ganaco maitetasun aundi bat.

(*Deseiozco comuniua pj. 12)*

**MARIA SANTISIMARI**

**ogueita zazpi garren eguneco bisita**

Jaungoicuac gorde zaitzala ceruco edertasuna eta lurreco gure itzalpea edo amparua, Jaungoicuac gorde zaitzala, betico Erreguearen Ama maitia, milla aldiz zorionecua: Zuc, Andrea, zure Seme Jesusen landara daucazu gauza gucien aguintea. Zuri beti eta denbora gucietan jende guciac macurturic burua eguiten dizute agur: zure oñatara erortzen da auspez mundu gucia: zure izena aditzean icaratzen dire demoniuac: zure arguitasunaren dirdariaquin lecutzen dire illuntasu-

nac: eta Zuc itz eguitean edo Zuc aguintzean idequitzen dire eta zabal zabalac guelditzen dire ceruco ateac. ¡Oh Jesusen urrengo cristabaren esperanza! ¡oh erruquiaren Erreguiña! ¡oh gure bicitzaco gozotasuna! Zuregana eldu naiz adiaz edo suspiroz negarrezco balle ontan. Ea bada, Amamaitia, lagun zaidazu nere neque eta naigabeatan eta beguiratu nere beartasun gucietan eta destierro onen ondotic eracutsi zaidazu zure sabelaco fruitu bedincatua, Jesucristo, bici dena eta aguincen duena betiraunde edo eternidade gucian.

**Erreguchua:**

Maria, zure icena, da nere itzalpea.

*(Azquen otoitza pj. 16)*

## SAN JOSERI

### ogueita zazpi garren eguneco bisita

Eremuan edo desiertun bici ciren Ermitañuac esaten zuten, gure animaren etsayac garaitzeco eta beuren tentacioetan ez erortzeco ari beardegula beti cerbait lanetan, baturic edo juntaturic Mariaren otoitza Martaren lanaquin. Eta ¡nola uts eguiten duten, cerura juateco, uste dutenac, naicua dela otoitz eguitea bacarra, lanic eguin gabe! oh Aitalen gloriosua, orregatic esaten du gure Salbatzale maitiac, bere Evangeliuan ere: «Atozte neregana lan eguiñaz necatuac zautenac, eta nic emanen dizquizutet indar berriac laneraco». Baldiñ bear badegu icaspide edo ejemplon bat, ¿nun arquituco ditugu Jesucriston beran eta Zutan baño ederraguac, nere Santu maitia? Zure etxeco premiac estalzeco aritzen ciñen beti lanean gueldi-

tu gabe Nazaretco zurguiñ-lecuan: ceñetan laguntzen cizun, cerutic gu salbatzeco eta birtute gucien ejemploa emateco yeutsi cen Jaun berac: olaco icaspideac ecusita ¿norc izanen du ausardia lan eguitea ezetzi edo despreciatzeco? Eguizu, nere Santu maitia, zure antzera ari nadin beti lanean, beñere alperric egon gabe, izan zaite nere maisua: erditsi zaidazu Jaunangandic, berac paratu nauen lecuan bici nadin beraren borondatea den bezela. Olaxen mundu onetan zuc bezela eguiñ ta ondoan, erditsico det egunen batean arquitzea zure ondoan ceruco zoriontasunean. Ala izan dedila.

**Erreguchua:**

Aitalen Santua, eguizu nic ere zure antzera maita dezaten laneguitea.

(*Azquen erregua pj. 18.*)

## SACRAMENTU SANTUARI
## ogueita zortzi garren eguneco bisita

*(Asieraco otoitza pj. 13)*

Jaungoicuac eman digun esqueroz bere Semea, San Pabloc dion bezela: ¿certaz beldurtu ucatuco ote digun escatzen diogun gucia? Guc badaquigu Aita Beticuac ematen diola Jesucristori duen gucia. Alabatu dezagun, bada, gure Jaungoico maitiaren ontasuna, erruquitasuna eta escuzabaltasuna, ceñac aberastu gaituen ondasun ta graci guciaquin, emanaz guri Jesucristo gure Jauna aldareco Sacramentu Santuan.

¡Oh munduaren Eroslea! ¡oh Jaungoicuaren Seme guizon eguiña! nic esan dezaquet: Zu nerea cerala eta gucia nerea nic nai duten gucietan: ¿bañan, esan ote dezaquet nic, era berean, zurea naizela, eta gucia zurea Ceurrec nai dezunean? ¡Ah nere Jesus

maitea! eguizu ez dedien munduan gueiyago ecusi olaco nasqueri eta esquergabequeri belzazaric. ¿Nola izan deiteque, Zu nerea izatea nic nai duten gucietan, eta ni zurea ez izate Zuc nai dezun gucietan? Jauna, ez dadiela guertatu gueiyago olacoric. Nic, gaur berean esquintzen dizut oso-osoric nere biotz gucia, nere bicia, nere borondatea, nere pensamentuac eta nere eguite guciac: agur eguiten diot edo despeditzen naiz munduco gauza gucietatic eta Zure escuetan jartzen naiz, eguiteco beti zure borondatea. Erre nazazu zure Jaungoicozco maitetasunaren garretan. Ez dut nai munduco gauzac izan dezaten deus eguiñ bearric gueyago nere biotzean. Eguiñ dituzun aleguiñac, eracusteco niri ceiñ maitetasun aundia ciñeren, nic maitatzen etzinduten denboran, ematen dit esperantza artuco nauzula oraiñ maite zaitu-

tenean eta naicen gucia zurea izan nai dutenean.

¡Aita Beticua! nic esquintzen dizquizut zure Seme maite Jesusen biotz santuaren, bircute, naicari ta on guciac, ontzat artu ditzazu neregatic eta beraren irabaci edo merituangatic, oyec guciac nereac diren ezqueroz, bada, Jesusec neretzat eman dizquit, eman zaizquidazu berac neretzat escatzen dizquizun mesede ta graci guciac, Jesusen biotzeco irabaciaquin batean ematen dizquizut esquerrac eguiñ dizquidazun mesede gucietaz, eta ayequin ordaintzen dizquizut nere pecatuen zorrac eta beuren bitartez uste dut emanen derezula bearduten gracia eta guero gauza gucien gañetic zure maitetasun aundi bat. Unetaraco, badaquit oraiñ arte neurrec galerazi dutela, bañan gucia ceurrec onguitu edo erremediatu bear dezu. Nic escatzen dizut Jesucristori diozun

maitetasunangatic, ceñac esaten digun, emanen digula beraren icenean escatzen dizugun gucia: nic ez dut nai bertze gauzaric baicic Zu maitatu, zuri naicen gucia eman eta ez beiñere gueiago izan zurequin esquer-txarrecua oraiñ arte izandu naicen bezela. Entzun nazazu, Jauna, eta eman nic escatzen dutena: eguizu gaur izan dedila ni zuregana eguiaz biurtzen naicen eguna, emindic aurrera ez nadin egon Zu maitatu gabe. Maitatzen zaitut nere Jaungoicua, maitatzen zaitut ontasun muga gabea, maitatzen zaitut nere maitetasuna, nere cerua, nere osaguillea edo medicua, nere bicitza eta nere gauza guciac.

**Erreguchua:**

Nere Jesus, gucia nerea, zuc maite nazu, nic ere bai Zu.

*(Deseiozco comuniua pj. 12)*

## MARIA SANTISIMARI

### ogueita zortzi garren eguneco bisita

¡Oh Maria! ceiñ aundia den nere biotzac artzen duen atseguiña, aditzen duten aldiro, nola Eliza Santac eta zure maitazaleac deitzen dizuten «Mater amabilis» Ama maitagarria. ¡Eguiaz, nere Ama gozua! Zu cera munduco gauza gucien artean zindoena edo nobliena, garbiena, ederrena, biguñena, santuena eta maitagarriena. ¡Oh, baldiñ denac ezagutu eta maitatuco bacinduzquete Zuc mereci dezun bezala! Orra, nere Erreguiña maitagarria, nic oraiñ nai dutena: bai, nai zinduzquet maitatu aunitz neurriric gabe, baño nere indar laburraquin eciñ erditsi det maitetasun au, Zuc erditsico direzu Jaungoicuangandic: erditsi zaidazu bada, nere Ama-maitia, nic escatzen dizut auspezturic lurrean, eta gaurtic aurrera ez bacarric izanen naiz

zure serbitzalea, baita ere nai dut izan zure serbitzalearic zintzuena eta aundiena. Ala izan dedila.

**Erreguchua:**

Oh Maria, nere Ama-maitia, bestetu dezazu, bestetu edo mudatu nere biotza, Zuc eguiñ dezaquezu.

*(Azquen otoitza pj. 16)*

**SAN JOSERI**

**ogueita zortzigarren eguneco bisita**

San Agustiñec dio: ¡oh San Jose doitsua! Jaungoicuac eguiñ gaituela berarentzat, eta gure biotzac ez dutela ez paqueric eta ez atseguiñaric beraren aurrean arquitu arte ceruan. Iduquico baguiñuque beti beguiaren aurrean eguia ori, Zuc munduan bicitu ciñen bitartean iduqui ciñuen bezala, ez guiñeque ebillico ainbeste quezca eta nequeaquin munduco ondasunaren atzetic,

ceñac gure biotzetan ez duten utzitzen samintasunac eta naigabeac baicic eta gure animac izanen luquete araco santu guciac, eta batez ere, Zuc, Jose santua, beti izandu ciñuen biotzeco paque eta atseguiñ ure. Orregatic ceruan gozatzen dezu gaur, iñorc asmatu ez dazquen aiñaco gloria, bada emin lurrean eraman ciñuen cere besuetan cerua eta mundua eguiñ zuen Jaun bera. Eguizu, Jose, nere lagunzale maitia, zure antzera ez dezaten billatu bertze gauzaric baicic concienciaren paquea eta animaco poza, eta utzi eta oiñperatu dezaten mundu ontaco ondasunac eta atseguiñ illaun, iguescor eta deus balio ez dutenac, ceñac, Iaquiñsuac dion bezala, deramazquiten beti beurequiñ naigabe eta oñaceac. Orrela eguiten badut, mundu ontan beran asico naiz gozatzen ceruco paquea eta atseguiña. Ala izan dedila.

**Erreguchua:**

Oh nere Santu maitia, erditsi zaidazu nere animanzat eguiazco paquea.

(*Azquen otoitza pj. 18*)

### SACRAMENTU SANTUARI
### ogueita bederatzi garren eguneco bisita

(*Asieraco otoitza pj. 13*)

Ni nago atean deica. (Apocalip. 3) ¡Oh Artzai maite-maitia, zure ardiaren maitetasunangatic, etzen asqui izandu zuretzat gurutzean beiñ illtzea, baicic nai izan ciñuen guelditu Jaungoicozco Sacramentu orretan gure elizataco aldaretan, mundua-mundua den bitarte gure ondoan egoteco! ¡Ah! nic banaqui gozatzen zure laguntasun maitagarritic eldu diren ontasunac, graciac eta mesedeac, zure Esposa santac bezala, ceñac

esaten zuen: «Ni yarri nitzen araco aunitz deseiatzen nuenaren itzalpean» (Cant. 2.) ¡Ah, nere Sacramentu guciz maitia! ¡baldiñ nic maitatuco bacinduzcat ciñez! orduan bai naiconuqueia eguiaz egon belaunica gab eta egun osoac custodia baten aurrean aldare orretan, eta atseguiten zure ondoan, nere Jaungoico maitia, naiz egonic gordea oguiaren iduriaren azpian, arquituco nituque nic emin, araco biotz-biotzetic maitatzen zaituztenac arquitzen dituzten poza eta atseguiñ Jaungoicozco zoragarri ayec.

¡Oh Jauna! zereganatu nazazu cere edertasunaren indarraquin, eta Sacramentu Santu orretan aguertzendirezun maitetasun neurrigabecuaren gozotasunaquin. Bai, nere Salbatzalea, orduan utzico ditut munduco gauza guciac eta atseguiñ guciac, eta laster eguiñen dut Zu Sacramentatua zauden lecura. ¡Oh cenbat aitzincen

duten birtute gucien bidietan, araco zorioneco anima ayec etorcen direnac eta egoten direnac luce, maitetasunaz beteric, Sacramentu Santu orren aurrean ¡ay Jauna! ni lotsatzen naiz zure aurrera etorcia ola uts-utsa, nere anima birtutez eta obra onaz apaindu gabe. Zuc, nere Jesus ona, aguindu dezu, ez deitecela etorri aldarera, Zu onratzera eldu direnac utsic, cerbait esquindu gabe. «Etzara aguertuco nere aurrera esquinza edo ofrendaric gabe» (Exod. 23) ¿Cer eguiñen dut bada nic? ¿ez etorri Zu bisitatzera? ¡Ay, nere Jesus maitea! Ez da ori Zuc nai dezuna. Etorrico naiz ezer ez gabe, utsa naicen bezala eta Zuc bete eta aberastuco nazu ceurrec nai dezun mesede, birtute eta beste zure doai guciaquin. Badaquit ontaraco guelditu ciñela Jaungoicozco Sacramentu orretan, ez bacarric lagunceco eta mesedez betetzeco zure maitala-

riac baita ere erregutzeco cere Aita Beticuari pecatariangatic eta aberastutzeco ugari bearsu guciac. Ea, bada, Jauna, asi zaite gaur nerequin, aditu nazazu, erruquitu zaite nitaz, eta poztu dezazu zure ume cupigarri au. Nic adoratzen zaitut, o nere biotzeco Erreguea, o guizonen eguiazco maitazalea: ¡oh Artzai cere ardiac gueyegui maite dituzuna! Zure maitetasunaren yarlecu edo tronu ontara eldu naiz gaur, eta ez duten ezquero deus Zuri esquinceco, esquincen dizut nere biotz otz, birtute gabea au guelditu dedin zure maitetasunaz betea Zuc nai dezuna eguiteco, olaco biotzaquin maitatu zaidazquet eta olaco biotzaquin maitatu nai zaitut. Garbitu dezazu, Jauna, eta guelditu bedi nere biotz gucia zure borondate santuaren menean lotua: eguizu guziz bioc elcartu edo yuntatu gaitecen, eta atzendu nadila ni nere buruaz eta munduco

gauza gucitaz, eta ez dut bertze gauzaric nai baicic Zu maitatu, Zu serbitu nere biotz, nere anima eta nere gorputz guciaquin. Maitatzen zaitut bada nere Jesus Sacramentatua, nere biotz, nere bici eta nere anima guciaquin.

**Erreguchua:**

Nere Jesus maitea: Zu bacar-bacarra asqui zaitut.

(*Comunio espirituala pj. 12*)

### MARIA SANTISIMARI
### ogueita bederetzi garren eguneco bisita

¡Oh ceruco Erreguiña, nere Ama-maitia! Zuc dezu, zure laguntza billa etorcen diren pecatarien bitarteco edo abogadaren icena: ea bada, Ama beratxa, artu dituzun ezquero cere gaiñ zure laguntza escatzen dizuten pecatari guciac gordetzea, ona nun

dauquezun gaur pecatari au, Santo Tomas Billanuebacuaquin esaten dizuna: ea bada, gure bitartecua edo abogada, eguizu cere gaiñ artu dezun lana, gorde eta zaitu nazazu. Eguia da, denbora lucean izan naicela pecatari aundia: gaizquia eguiña dago: baño oraiñ Zuc onguitu edo erremediatu eta lagundu dezaquezu, ni nago oso damuturic: Zuc esaten badiozu Jesucristori barcatzeco niri nere pecatuac, zure Semeac barcatuco dizquit eta salbatuco naiz.

**Erreguchua:**

¡Oh Maria! Zuc eguiñ nazaquezu santu bat, eta uste dut eguiñen nazula.

*(Azquen otoitza pj. 16)*

## SAN JOSERI

**ogueita bederetzi garren eguneco bisita**

Jesucristo gure Maisuac dio bere Ebangelio Santuan, oh Jose

santua, ceruco bidea dela mearra, estua eta arriscoz betea, infernuco bidea berriz zabala, erraza eta lorez estalia, ceñan azpian gordetzen den pecatuaren subea. Eta, ceiñ eguia den au, San José, nere lagunzale maitia, bada, ecusi dut neurrec, cergatic gurutzeco bide estuan ebilli bearrean, oraiñ arte ebilli naiz bide zabalean, infernuco bidean, nere gorputzari atseguiñac eguiñaz, pecatuz-pecatu.

¡Ceiñ bestelacuac edo diferentiac izandu ciren zure bideac eta zure bici modua mundu ontan! Beti erne Jaunaren deiari, etziñuen une edo instante batian ere utzi ceruco bide estua, eta sayatu ciñen gogo aundiaquin birtute guciac erdistera. Eta, ¿nola ez? cere onduan baciñaunque beti Jesus, biciaren, graciaren, santutasunaren eta birtute gucien Eguillea, ceñac maitatzen eta beguiratzen zizun bere aitordecua bezala. Eguizu, nereSantu maitia,

orixen bera zure itzalera eldudenr pecatari aundi onequin. Erditsi zaidazu nere Salbatzale maitagarriangandic, zintzo eta ernetasun aundiaquin eguin dezaten aleguiñ gucia nere animaren salbaciua erdisteco. Orrelaxen zure lagunzarequin sartuco naiz egunen batean ceruan. Ala izan dedila.

**Erreguchua:**

Eguizu, Santu maitia, beti ebilli nadin birtuteco bide estuan zure antzera.

(*Azquen otoitza pj. 18*)

## SACRAMENTU SANTUARI

### ogueita amar garren eguneco bisita

(*Asieraco otoitza pj. 13*)

¿Cergatic gordetzen dezu cere arpeguia? (Job. 14) Beldur aundiaz betetzen cen Job santua, ecustean nola Jaungoicuac gor-

detzen cion bere arpeguia. Baño ecustian guc, nola Jesucristoc gordetzen duen aldareco Sacramentu Santuan bere arpeguia eta bere aunditasuna, ez degu beldurtu bear, baicic confianza eta maitetasun aundi bataz bete bear degu: ¿cergatic, baldiñ, ceruco Erregue unec aldareco Sacramentuan aguertuco baluque bere aunditasuna eta bere gloriaren dirdaria, nor azartuco edo atrebituco litzeque berangana urbilcera, aguertzeco bere biotzeco naitasunac eta bere beartasunac?

¡Ah, nere Jesus! Zu gordetzen cera Sacramentu Santu orretan oguiaren idurian, guizonan aldetic gueiago maitatua izateco, eta billatu nai zaituzten ordu gucietan arquitu zaitezten. Arrazobe zuen Isaias Profetac esatean: guizonac minzatu eta oyu eguiñ dezaten mundu gucian denari adiracitzeco ceiñ maitetasun neurrigabea eta cer gauza arrigarriac

asmatu dituen, gure Jaungoico onac guizonaren oneraco: «Notas facite in populis adinventiones ejus» (Isai 12.) ¡Oh Jesusen biotz maitia! Zuc bacar-bacarric dezu mereci izatea munduco guizon gucien biotzen jabea: ¡oh biotz maitagarria, gureganaco maitetasunaren su garraz betea! ¡Oh su bicia, urbiltzen zayon gucia urtutzen duena! erre ta quiscali nazazu naicen gucia, eman zaidazu bici berri bat cere graciazco eta maitetasunezco bicitza bat Zure borondateaquin bat egui̇ñ eta lotu nazazu alaco moduan, gueyago beiñere aldendu ez nadin. ¡Oh biotz gozua, beti idequia animaren gordelecua izateco, artu nazazu! ¡Oh biotz erruquitsua, gure pecatuengatic gurutzean aiñ oñace aundiaz betea, eman zaidazu nere pecatu gucien damu eta gorroto aundi bat! Bai, ongui daquit, aldareco Sacramentu Santu orretan dezula gaur ere, galba-

ricco gañean gurutzean neregatic illcean ciñuen maitetasun bera, eta orregatic dezu ni zuganatutzeco aiñ gogo aundia. Eta ¿noiz arte gogor eguiñ bear dut, eta ¿noiz arte ebillico naiz iguesca zure maitetasun eta borondate santuangandic? ¿noiz arte iraunen dut zure oñetara auspezca erori gabe? ¡Oh nere Jesus maitia! zure eriotzeco irabaciangatic, zauritu nazazu, lotu, elcartu eta josi nazazu naicen gucia zure biotzari. Nic gaur erabaquitzen edo artzen dut determinacio aundi bat, zure graciaren laguntzarequin, eguiteco zure borondate santua alduten obequina. Bai, oinpian paratu nai ditut, munduco cer esanen dutenac, nere gorputzac nai lituquen atseguiñac, munduco zoraqueriac eta beste gañeraco Zu maitatu eta serbitzea galeracitzen diterezten gauza guciac. Lagun zaidazu ceurrec, Jauna, nic alaxen eguiteco eta

gaurtic aurrera nere pensamentuac eguite eta deseiuac izan deitecen zure borondate santuaren gogocuac. ¡Oh Jaungoicuaren maitetasuna! atera eta bota dezazu nere biotzatic baldiñ arquitzen bada bidegabeco edo biar ezden maitetasunic mundu ontaco gauzari. ¡Oh Maria, nere esperanza! Ez da Zuc Jaungoicuangandic erditsi ez dazquezun gauzaric: erditsi zaidazu bada Jesusenganaco maitetasun garbi suzco bat: eguizu nic maitatu dezaten Jesus, nere biotz guciaquin nere eriotzeco orduraño arte, ala uste dut, ala izandedila.

**Erreguchua:**

¿Norc lecutuco nau Cristoren maitetasunatic?

*(Deseiozco comuniua pj. 12)*

## MARIA SANTISIMARI

### ogueita amar garren eguneco bisita

¡Oh Maria, nere Ama-maitia! Zu cera, San Buenabenturac dion bezala, ume zurcen edo guratsoric gabe diren umiaren Ama. Ceruco Aita galdu duten pecatari errucarriac dire umezurzac. Zuregana bada, eldu naiz, ¡oh erruquiaren Ama! nic galdu dut nere Aita cerucoa, beraren gracia galdu dutenian pecatuarequin, baño ala ere nere zoritxar edo desgraci aundi ontan, Zuc, nere Ama-maitia, Zuc lagundu nazaquezu: Pozaz betetzen da nere biotza aditzean, nola Inocencio Aita Santu irugarrenac zutaz dion: ¿Norc beñere deitu zaitu Zuc entzun gabe? ¿Nor juanda beiñere infernura, bere pecatuaz damuturic zuri umildadeaquin zure laguntza escatu dizunic? Bacar-bacarric galcen da zuregana juaten ez dena, zure laguntza escatzen ez

duena. Zuregana nator bada gaur, nere Ama-maitia, erruquitu zaite nitaz, lagun zaidazu, ez zure ondotic bota, Zuc nai badezu salbanazaquezu. Ala izan dedila.

**Erreguchua:**

Lagun zaidazu, Maria, lagun zaidazu.

*(Azquen otoitza pj. 16)*

**SAN JOSERI**

**ogueita amar garren eguneco bisita**

¡Oh nere Santu maitia! cristab guciac deitzen dizute eriotzeco orduco lagunzaleric oberena, eta zuregana duaz zure maitazale eta deboto guciac eriotzeco ordu estu artan: eta jaquiña da, ez dela azqueneco ordu artan infernuco etsayac gure animaren caltean eguiten dituen aleguiñ izugarriac garaitzeco, laguntza oberic zure eta zure Seme Jesus eta Maria

zure Esposaren icen santuac deitzia bezalacoric. Eta, ¿certaz arrituco guera ori ala guertatziaz, baldin Zu bacar-bacarra izandu baciñen guizon gucien artian, Jesus eta Mariaren besuetan ilceco gracia eta zoriontasuna izandu ciñuena? ¡Orregatic zuregana eldu naiz, nere Jose maitia! Ez utzi ni bacarric ordu estu artan, lagun zaidazu, eta gorde nazazu infernuco etzayaren atzaparratatic eta eguizu eriotzaren oztasuna asitzen denian zabaltzen nere gorputzean eta ecin muguituz gueldìtzean, izan dezaten indarra nere mingañian zuri deitzeco, eta esateco zure icen santua, Jesus eta Mariaren icen bedicatuaquin batian eta biotzean ere izan dezaten azcartasuna zuri deitzeco maitetasun aundiaquin eta eguiteco ordu artan fede, esperanza eta caridadezco eguite edo acto beruac, sartu nadin guero ceruan. Ala izan dedila.

**Erreguchua:**

Jose Santua lagun zaidazu nere azquen orduan.

(*Azquen otoitza pj. 18*)

## SACRAMENTU SANTUARI
### ogueita amaica garren eguneco bisita

(*Asieraco otoitza pj. 13*)

Aundia izandu cen Jesucristoc Samaritanari aguertu cion maitetasuna, jarriric Sicarco iturriaren ondoan egondu cenian bere zai edo esperuan beregana ecarri eta salbatzeco.

Baño oraindic aundigua da, guizon guciari aguertzen dion maitetasuna, jeutsitzen delic egunero cerutic gure aldarietara, nun dagon gure esperuan eta eraman naiaz bere anima maitiac beregana, beraquin egon daitecen denbora pixco bat beren, bistutzeco biotz gucietan bere

maitetasunaren sua. Jesus Sacramentatua dago aldare gucietan, iduri du dagola solasian eta esaten duela. Guizonac, ¿certaz iguesi eguiten dezue nere aurretic? ¿certaz etzate etorcen? ¿cergatic etzate urbiltzen neregana, ainbesteco maitetasuna dizuten eta zuengatic aiñ umilduric nagonangana? ¿cergatic beldurtzen cerate? Ez naiz eldu ni oraiñ mundua juzgatzera, baicic nago gordea maitetasunezco Sacramentu ontan, eguiteco guizon gucieri mesede aundiac eta cerura eramateco neregana datocin guciac.

Anima Jaungoico-zaleac: jaquiñ dezazue, ala nola dagon Jesucristo gure Jauna biciric ceruan gutaz beti erregutzen, alaxen ere dago aldareco Sacramentu Santuan beti gab eta egunaz gutaz erregutzen eta esquincen Aita Beticuari bere gorputza, guri erdisteco eciñ esan ala mesede, graciac eta misericordiac. Orre-

gatic esaten zuen cristab Jaungoicozale batac: juan bear guiñuquela Jesus Sacramentatuangana beraquin egon eta itz eguitera uste edo confianza aundiaquin eta batere beldurric gabe, adisquide batec bere adisquide aundi batequin eguiten duen bezala. Bada, Jauna, aiñ aundia den ezquero zure ontasuna nereganaco, utzi zaidazu idequi dezaten nere biotza eta esan dezaten: ¡Oh nere Jauna! ¡oh animan maitazalea! ongui daquit ceiñ esquergabequeri aundiaquin ordainzen dizuten guizonac. Zuc maitatzen dituzu oyec, eta oyec etzaituzte maitatzen Zu: eguiten diozu eciñ esan ala mesede eta beurec ez dizute ematen zitalqueriac eta naigabeac baicic. Adiraci nai diozu zure dei maitatia, eta oyec eżdizute aditu nai, esquincen dizquiozu cere graciac eta mesedeac, eta beurec ez dituzte artu nai. ¡Ah nere Jesus! ¿Eguia ote da, ni ere

denbora batian izan naicela ayec bezala, esquer txarracua eta gaixtua? ¡Ay nere Jaungoico maitia! Bai, eta ceiñ eguia aundia den ni ere, zori gaiztuan, ala izan naicela! Baño emindic aurrera ez bacarric ez naiz izanen oraiñ arte bezala, baicic naidut ordaindu eguiñ dituten utsac, eta aleguiñ gucia eguiñen dut emindic aurrera Zu atseguintzeco bici naicen bitartean. Aguindu dezazu, Jauna, nai dezun gucia, pocic eguiñen dut batere utsic eguin gabe: adiraci zaidazu nere confesore, guratso eta bertze nere gañian dauden bitartez eta nic belaxen eguiñen dut guztia. Nere Jaungoico maitia, arcen dut asmo aundi bat gordetzeco zure mandamentu santuac eta eguiteco beti zure borondate santua, onetaraco naiz galdu biar baditut ere nere aideac, adisquideac, ondasunac nere osasuna eta nere bicia ere: bai, galdu bedi dena, zure borondate

santua eguiteagatic. ¡Zorioneco galtzea, zure legue santua gordetzegatic eta zure biotz maitia atseguintzeagatic galcen diren gauzac! ¡Oh nere biotzeco Jaungoicua! Maitatzen zaitut ontasun neurri gabea, maitatzen zaitut munduco gauza guciac baño gueiago, cergatic ala dezun mereci, nai dut bat eguiñ edo juntatu nere biotz txiqui otz au cerueco Serafiñen biotz maitetasunez betia ayequin. Zu bacar-bacarra maite zaitut, oh nere Jesus Sacramentatua, eta Zu bacar bacarra maitatu nai zaitut oraiñ eta beti betiraunde gucian. Ala izan dedila.

**Erreguchua:**

Nere Jaungoico maitia, nere Jaungoico maitia, ni zurea naiz eta Zu nerea.

(*Deseiozco comuniua pj. 12*)

## MARIA SANTISIMARI
### ogueita amaica garren eguneco bisita

¡Oh Maria, Birgiña gozua, Jaungoicuaren Ama eta pecatarien bitartecua, naigabez betiac daudenan atseguiña! beguiratu zaidazu misericordiazco beguiaquin eta entzun zure serbitzale gaisto baten erreguac, eta eguizu izan nadila Zuc maite eta zure biotz garbian escribituac dauzquezun ayen artecua. Garbi dezazu nere anima, oh Birgiña garbia, pecatuen mantxa gucietatic: quendu ditzatzu nere biotzatic zure gogoco ez diren gauza guciac, eta munduco gauzataraco atseguintasun eta eraspen bidegabecuac, eta sartu dezazu oyen lecuan ceruco gauzaren deseio garbi eta maitetasun aundi bat. Erregu zazu nigatic zure Seme Jesuseri oraiñ eta beti, batez ere nere eriotzeco orduan eta araco Juicioco egun icaragarri artan, ce-

ñetan eman bear duten contu estua emin eguiñ, esan eta pensatu duten guciaz, zure bitartez iguesi eguiñ dezaten infernuco penatatic eta erditsi ditzadan ceruco atseguiñac zure onduan. ¡Oh Birgiña garbia, nere Ama maitia! ez lecutu beiñere zure beguiac pecatari erruquigarri onetatic: nere gorputza eta nere anima zuri ematen dizquizut, zucendu nazazu gauza gucietan, eta gorde nazazu gaitz eta peligro eta etsay gucietatc: escazaiozu zure Semeari nere pecatuen barcaciua eta eman daizadan eguiazco fedea, esperanza aundia eta caridade bicia eta Espiritu Santuaren gracia bere borondate santua eguiteco eta libra dezan erri eta Erreñu au, peste, guerra, gose eta lurricaritatic: azqueneco, nere Ama maitia, libragaitzazu ni, nere aideac, senideac, adisquidiac, ongui eta gaizqui-eguilleac eta cristab guciac gaitz gucietatic.

**Erreguchua:**

¡Oh Maria, nere Ama gozua, eguizu ni izan nadin, dena Zurea.

*(Azquen otoitza pj. 16)*

**SAN JOSERI**

**ogueita amaica garren eguneco bisita**

Etorcen denian erri batera erregue aundi bat edo guizon fama aundico bat, erri artaco jende gucia juatenda lasterca bera ezagutzera. ¿Nolacua ez du izan bear, bada, gure deseiua eta gogua ezagutzeco Zu, zerana Santuric aundiena eta gloriosuena? Oraiñ arte ezagutzen zaitugu aditzeaz bacarric eta zure birtutearen aipu edo famaz: ¿nolacua izanen da bada gure poza ecusten zaitugunean arpeguiz arpegui ceruan dezun edertasun aundi artan? ¿eta Zu alaxen ecustegatic cer ezdute

eguiñen zure maita-zaleac? Baldiñ mundu ontan Zu onratzen eta alabatzen zaituztenac arquitzen badute aiñ atseguiñ aundia, ¿nolacua ezda izanen Zu ecustean ceruco glorian eta zure onduan gozatzian?

¡Oh San Jose, nere lagunzale maitia! erditsi zaidazu mesede ori: eguizu zu bezala bici nadin mundu ontan, arquitzeco guero ceruan, Jesus, Maria eta zure onduan betiraunde edo eternidade gucian. Ala izan dedila.

**Erreguchua:**

San Jose gloriosua, erditsi zaidazu nere animaren salbaciua.

*(Azquen erregua pj. 18.)*

# CERURA JUATECO NOLA BICI BEAR DEGUN

## EGUNERO EGUIN BEARRAC

*Goiz arratsetan otoitzac eguiñ—Dezaquenac meza santua enzun egunero eta gure Jauna artu—Aldareco Sacramentu Santua bisitatu egunero elizan, ecin juan bacera elizara, etxetic eliz aldera beguira belaunicatu eta eguiñ bisita: Arrosario santua errezatu gabero, albadezu famillian.—Liburutxo on batian ordu laurdentxo bat leitu.—Gogozco otoitza edo meditacio pisco bat eguiñ.—Otordu aurre eta ondoren Jaunari otoitz eguiñ.—Jaietan eta igandetan meza santua eta besperac entzun.—Larunbatero confesatu eta egunero gure Jauna artu, eta ori ezpadazaquezu illa-*

*betian beiñ confesatu eta gure Jauna artu.—Larunbatiac Ama Birgiñari esquiñi, ostialac Jesusen Biotzari, ostegunac Aldareco Sacramentu Santuari, astiazquenac San Joseri eta ola beste egunac eta cerbait mortificacio eguiñ. —Urtero San Ignacioren ejerciciuac eguiñ, dezaquenac.—Illabetero artu egun bat osoa cere conciencia esamiñatu, cere eriotzeco orduan pensatu eta bicitza santuan aurreratzeco.—Gabero guatzean sartu baño len egun gucico eguiñac esamiñatu eta acto contriciozcua eguiñ, pecatuac gorrotatu eta Jaungoicua maitatu.*

## GOICEAN EGUINBEARRAC

*Iratzarritzen zaren bezala egun berrian, Jaungoicuac eguin dizun mesede orregatic, berari esquerrac eman esanaz «Deo gratias» eta belaxen jequi perezaric gabe.*—Gurutze santuaren—*eguiñ eta, esquiñi Jaunari egun artaco neque*

*eta beste obra guciac: errezatu Angelus, eta onela barcapen edo indulgenciac irabasten dire.*

## OTOITZA

Cerurco nere Aita maitia, gauza gucien Asiera, Iraupena eta Azquena, Zuc deusezatic eguiñ niñuzun eta zure escutatic arzen ditut gauza guciac, orregatic umiltasun aundiaquin zure aurrean auspeztu ta ematen dizquizut esquerrac. Nola baizaren Eguia bera, Zutan siñesten dut eta Zuri siñesten dizut. Oso zintzua zeralacoz uste dut ez dituzula utzico bete gabe zure aguinduac edo promesac eta cergatic zeran Ontasun muga gabea maitatzen zaitut biotz-biotzetic eta nere lagun projimua maitatzendut nere burua bezala zuregatic. Ezquerrac

anitz ceruco nere Aita maitia, cergatic eguiñ nazun Zu ezagutu, alabatu, serbitu eta maitatzeco mundu ontan eta guero Zurequin izateco zorionecua ceruan. Esquerrac anitz nere Jaungoico maitia, cergatic garbituric nere anima pecatu originalen mantxatic Zure Seme Jesusen odolaren bidez eguin nazun Eliza-Ama Santaren umea: dena Zure escutatic eldu zait eta orrenbeste masede eguin tirezun Jauna ¿nola ordaindu zaitut? Ay nere Jauna aundia ¡pecatuaquin eta esquergabequeriaquin! damu dut, Jauna, biotzbiotzetic eta escatzen dizut laguntza berriz ez eguiteco pecaturic. Asmoa artzen dut beti eta beti Zu maitatzeco, pecatu gucietatic eta pecatuen bidetatic iguesi eguiteco. Esquincen dizquizut gaurco nere pensamentu, itz, deseo, lan naigabe eta neque guciac, Zu alabatzeco, nere pecatuen zorrac ordaintzeco, baita ere purgatorioco

animan mesedean. Iduqui zazu, Jauna, nitaz erruquitasuna.

*(Aita gurea, Ave Maria eta Credo.)*

**VIRGIÑA MARIARI**

**otoitza**

¡Oh Jaungoicuaren eta nere Ama maitia! ni naicen gucia esquintzen naizazu eta nere onguinai eta maitetasunaren aguercaiaz, ematen dizquizut egun ontan nere beguiac, nere enzumenac, nere mingaña, nere biotza, itz batian ni naicen gucia. Zurea naicen ezquero. ¡Ama erruquitsua! zure gauza bat bezala, zaitu, lagundu eta zucendu nazazu.

*(Ave Maria.)* (100 d. indl.)

## VIRGIÑA MARIARI
### Bernardo santuan otoitza

Oroitu zaite, ¡oh erruquitsua Birgiña Maria! munduaren asieratic orain̄ arte, zure laguntza escatuta, nai duena erditsi gabe iñor guelditu ezdela, ez eta ere Zure aurrera naigabez beteric etorri eta pozaric gabe guelditu dela. Zure ontasun onetan confianzaz betea, eldu naiz Zuregana, nere Ama maitea, ez nazazu utzi, baicic entzun dizazu nere erreguac eta zereganatu nere deiyac. Ala izan dedil. (300 d. indl.)

## SAN JOSERI
### eriotzeco orduraco otoitza

¡Oh Santu indarsua, guizon gucien zoriona, pecatarien igues-lecua, cristabaren esperanza sendoa, naigabetuan sendagai gozua,

biarsuaren lagunzalea! Nere azquenaco ordua nai eta nai-ez etorrico da, nere bizitzac zurearen antzeric izan ezduela gogoratzean, nere anima estutasun aundian arquituco da: mundu ontatic bestera pasatze icaragarria izanen da, etsayac infernuco indar guciaquin gogor eguiñen dit. Ordu artaraco, bada, oraiñ deitzen zaitut. Nere Aita, zure laguntza billa eldu naiz: nere fedea, esperanza eta caridadea auldu ezdaitecen eriotzeco orduan lagun cerazu. Jesus eta Mariac garai estu artan lagun eguiñ dezagutela eta infernuco etsai guciac guregandic aldendu ditzazula escatzen dizut. Jesus Maria ta Zu biotz guciaz maitatuaz gure bicia acabatu dedin paquean. Ala izan dedila.

Jesus, Jose ta Maria, nere biotza eta nere anima ematen dizutet.—Jesus, Jose ta Maria, nere azquen asnasean lagun zerazue.—Jesus, Jose ta Maria, ni illzean

nere anima artu dezazue. (Aldiro 300 d. indul.)

### Gure Ainguerú zaitzaleari

¡Ainguerú santua! Jaungoico gure Jaunac bere ontasun neurrigabean, jayo nintzen ezquero, nere laguntzat emana zerana, arguitu, gorde, lagundu ta zaitu nazazu egun ontan.

*(Aita gurea, Ave Maria, Gloria.)*

### Santu gucieri erregua

Nere icenaco Santu eta ceruco beste Santu guciac lagundu niri egun ontan eta nitaz otoitz eguizue Jaunaren aurrean pecaturic eguiñ gabe bicita ceruratu nadin.

*(Aita gurea, Ave Maria, Gloria.)*

### Bazcari eta afari aurrean eguin bear diren otoitzac

*Aitaren eta Semiaren*: Jauna,

gu eta oraiñ zure escutic artu beardegun janaria bedincatu dezazu, iraun dezagun zure serbitzio santuan eta ceruco mayan artu gaitzazu. Ala izan dedila.

*Aitagurea...*

**Bazcari eta afari ondoan**

*Aitaren eta Semearen...* Esquerrac, Jauna, eman diguzun janariangatic, zure paquea izan bedi gure animetan eta eman zaiguzu guero ceruco bicitza. Ala izan dedila.

*Aitagurea...*

**Tentaciutan**

¡Oh Maria! nere Ama maitia, lagun cerazu, bada, zurea naicela badaquizu.

**Gabaco otoitzac**

*Arrosario santua errezatu eta bertze*

*otoitzac goicean bezala eguiñ ta onduan, conciencia esamiñatzeco esan:*

Nere Jaungoicomaitia, esquerrac ematen dizquizut gaur eguiñ dizquidazun mesede guciengatic eta eman zaidazu oraiñ zure arguitasuna eta lagunza gaur eguiñ dituten utsac ezagutu ta damutu nadin.

*Oraiñ esamiñatu ya itzaz, pensamentuz, deseioz eta eguiñaz pecaturic eguiñ dezun eta bela barcaciua escatu esanaz:*

Nere Jaungoico maitia, emintxen eldu naiz zure aurrera, damuz beteric cergatic pecatu eguin duten, erruqui zaite nitaz eta barcatu cerazu, arcen dut asmo aundi bat gueyago pecaturic ez eguiteco zure graciaren laguntzaquin Zu maitatzeco eta zure serbitzio santuan nere bici gucian ebiltzeco eta eman zerezu egun berria ecusteco gracia zure gogua ala bada.

*Guatzean edo oean sartzian. Ciñatu eta esan:*

Jesus, Jose ta Maria nere biotza eta nere anima ematen dizutet: Jesus, Jose taMaria nere azquen asnasean lagun cerazue: Jeesus, Jose ta Maria ni illzean nere anima artu dezazue.

**Angelus**

*(Arguiezquilla, egurdia eta illunezquilla aditzean esan dezazu.)*

B.—Jaunaren Ainguerua c berriona eman cion Mariari.

R.—Eta Espiritu Santuaren bidez sortu zuen. *Ave Maria.*

B.—Ona emin Jaunaren serbitzaria edo esclaba.

R.—Zuc diozun bezala eguiñ bedi nitan. *Ave Maria.*

B.—Jaunaren Semea guizon eguiñcen.

R.—Eta gure artean bicitu cen. *Ave Maria.*

B.—Jaungoicuaren Ama gutaz otoitz eguizu.

R.—Jesucristoren esquintzac erditsi ditzagun.

## OTOITZA

Escatzen dizugu, Jauna, ixuri dezazula zure gracia gure animetan, Zure Seme Jesucristoren guizon eguitea Ainguerruan bidez ezagutu degunac, Beraren Pasio eta eriotzaz bistu ondoreco atseguiña erditsi dezagun, Jesucristo gure Jaun berangatic. Ala izan dedila. (300 d. indl.)

## AMA BIRGIÑARI
### goicean

¡Oh Birgiña garbia, Jaungoicuaren eta nere Ama-maitia! Zure maitetasun beratxaren billa duacin anima gucien bitartecotasun beticua, escazaiozu zure Seme Santu eta gure Jaun Jesu-

cristori izan ditecen beraren gogocuac egun ontaco nere pensamentu, itz, deseio eta eguiñ guciac.

*Ave Maria...*

**SAN JOAQUIN eta SANTA ANARI**
**otoitza**

¡Oh Joaquin eta Ana! ¡Ama Birgiña Mariaren guratso zorionecuac! Maria Santisimaren guratso izateco artu ciñtuzten doai aundi ayen gatic, Maria Birgiña eta bere Seme Jesusen lagunza erditsi zaiguzue, orrela beuren borondate santua eguinta eriotz ondoren zuequin eta ayequin batean arquitu gaitecen ceruan. Ala izan dedila.

**ANTONIO SANTUARI**
**otoitza**

Nere biotzeco Antonio santua: ecusiric ceiñ indarsua zeran Jaungoicuaren aurrean, bada ainbeste gauza arrigarriac eguiñ eta eguiten dituzu egunero zure maitaza-

lean mesedean, ni, munduan den pecatariric eta bearsuaric aundiena emin eldu naiz zure oñetara, negarrez eta damuz beteric ofenditu dutelacoz nere Salbatzale maitia, erditsi zaidazu zure lagunza indarsua pecatutic ateratzeco, berriz ez erortzeco eta Jaunaren maitetasunian aunditzeco, bere serbitzio santuan irauteco, garbitasunean bicitzeco, baita ere mundu ontan bear ditugun paquea, ondasunac eta osasuna ala bada Jaungoicuaren borondatea: eta alaco milagro aundiac eguiñ dituzun ezquero, nere lagunzale maitia, gaur eguiñ zazu bat gueiago nere mesedian eta azqueneco erditsi cerazu eriotzeco ordu on bat bedicatu eta alabatu ditzagun zurequin batian gure Jaungoicuaren misericordiac betiraunde gucian ceruan. Ala izan dedila.

*Aita gurea...*

## ASISCO FRANCISCO SANTUARI

### otoitza

Asisco Francisco santua, zuc esquiñi ciñuen ezquero Jaungoicuaren icenian escatzen degun gucia emanen ciñuela, Jesucristo eta zure zauriaren icenean erditsi zaidazu, nere pecatuen damua, aldareco sacramentu santuaren maitetasun aundi bat, purgatorioco animaren zoriontasuna: pecatariac ondu, fedea zabaldu, guezurbideac galdu eta mundu gucia Jaungoicuaren maitetasunean erre ta quiscali dezazu.

Ala izan dedila.

## LOYOLATAR IGNACIO

### santuari otoitza

San Ignacio, nere lagunzale maitia, Jaungoicuaren gloria mundu gucian zabalzeco autatua, Jaungoicuarengana biurtu ciñen

bezala beti billatzen ciñuen Jaungoicuaren gloria aundiena, erditsi zaidazu nic ere zure antzera billatu dezaten beti gauza gucietan Jaunaren gloria, guero bici nadin beraren glorian zurequin beti ceruan. Ala izan dedila.

### Ongui confesatu eta gure Jauna artzeco eguiñ bearrac

Ona, nere cristab maitia, ¡nola agueri den gure Jaungoicuaren biotz erruquitsua! ¿Cer izanen cen gutaz, baldiñ batayo onduan pecatu eguinta, izan ezpaguiñun confesioco Sacramentua? ¡Ay ceiñ zoritxarrecuac izanen guiñen! Gure Jaunac, bada, gutaz cupituric eguiñ digu olaco mesede aundia, utzi digu sacramentu ori, gure pecatuac, naiz izan larriac, itsusiac eta aunitz, bearden bezala confesatuta erditsi dezagun Jaunaren gracia eta beraren adisquidetasuna. Confesatzen ce-

ran aldiro, prestatu bear dezu cere azqueneco confesiua bailitz bezala. Ainguerú batec esanen balizu, ori dela zure azqueneco confesiua, confesatu ta bela ill bear dezula, ¿nola etziñeque prestatuco? ¿nola esamiñatuco ciñuque zure conciencia? nolaco damua eta pena etziñuque izanen cere biotzean, Jaungoicuan contra pecatua eguiñ dezulacoz, eta nolaco negarraquin etziñtuque aguertuco pecatu guciac, garana bat bacarric utzi gabe? bada eguizu olaxen beti: ezdaquizu ala guertatuco zaizun, eriotza dago beti gure ondcan, gure inguruan. Esamiña eguiteco artu dezazu bearden denbora, ez lasterca eta nola nai eguiñ: asamiñatu zaite Jaungoicuaren legueco mandamentuz-mandamentu, ecusi, gogora ecarri ceiñ ta ceiñ autsi dituzon eta cenbat aldiz, nun eta norequin ebilli ceran, ta olaxen pensamentuz, itzaz, deseioz eta

eguiñazco pecatuac gogora ecarri ta onduan artu bear dezu damu eta asmo aundi bat berriz pecaturic ez eguiteco eta umiltasun aundiaquiñ aguertu zure pecatuac Aita confesoriari.

### Esamiñ aurreco otoitzac.

¡Nere Joungoico maitia! Ecusten dezu nola nere beartasun gucietan eta nere gaitz gucietan zuregana eldu naicen, orregatic oraiñ nai dut eguiñ confesio on bat eta ortaco, nere pecatuen illuntasun ontan bear dut zure arguia: zure erruquitasun aundiagatic, Jauna, arren, nic bear duten arguia eman zaidazu nere concienci illuneco bazterrac argui ecusteco eta nere pecatuac nere animan dauden bezala ezagutzeco, ezagututa ondorin gorrotutzeco damua, eta ongui confesatzeco gracia escatzen dizut eta uste dut emanen derezula Je-

sucristo zure Seme Jaunangatic. Ala izan dedila.

*Aita gurea...*

### MARIA SANTISIMARI

¡Oh Maria, Jaungoicuaren eta nere Ama maitia! Gurutzearen azpian zure Semiarequin, neregatic eraman ciñtuan oñace ate naigabeangatic erditsi cerazu confesio on bat eguiteco lagunza: Jose santua, nere Aingueru zaitzlea eta beste nere gogoco santu guciac esca dezazue nitaz, eguiñ dezaten confesio on bat bearden bezala prestaturic. Ala izan dedila.

*Aita gurea...*

(Oraiñ esamiñatu, len esan degun bezala, eta esan beiñ eta gueiyago «*Nere Jesucristo Jauna*» eta aleguiñ gucia eguiñ damu aundi bat arzeco cere biotzean.)

### Esamiñ ondoco otoitzac

¡Oh nere Jaungoico guciz mai-

tia! emin eldu naiz zure aurrera, damuz eta naigabez beteric, cergatic ofencitu zaituten.

¡Nere Jesus ona! Zuc bete nazu graciaz eta mesedez eta nic... eta nic, esquerrac eman bearrean ¿cer eguiñ dut? Ay Jauna ¡pecatu! Zure contra goratu, Zu naigabetu, Zu gurutzean berriz josi ¡Nere Jaun ona! olaco pecatari aundia, nora juanen naiz, ¿cer eguiñen dut? emin, emin erori nai dut zure gurutzearen oñetara eta emin, Jauna, nago damuz beteric, eman cerazu biotzeco samintasun aundi bat, pusca dezazu nere biotza damuz, ixuri dezazu zure odol tanta bat nere biotzera eta garbi nazazu, erruquitu zaite nitaz, Jauna, erruquitu zaite nitaz, bada umiltasunaz beteric emin nago auspezturic zure aurrean eta biotz umiltasunaz eta damuz betea ez zuregandic bota. «Cor contritum et humiliatum, Deus non despicies» Zure eriotz eta

odol ixurtzearen merecimentuagatic erruquitu zaite. Jauna. ¿Cer eguin dut? Jaungoicua naigabetu dut. Nere ceruco Aita, nere Eguillea, nere Salbatzallea ofenditu dut. Pecatu bat bacarrac mereci bazuen infernua, neriac ainbeste eta aiñ aundiac, ¿cer ezdute merecico? Bai, pecatu eguiñ dut eta galdu dut cerua, Jaunaren gracia, beraren adisquidetasuna eta ceruco escubidea eta mereci ditut infernu guciac ¡Baño Jauna! nere pecatuac aundiac eta ainbeste badire ere, zure erruquitasuna da baztergabea, da aundigua, gurutze orretan ixuri dezu zure odol gucia ni salbatzegatic, utzi diguzu confesioco sacramentua guri barcatzeco, oroitu zaite, bada, Jauna, zure erruquitasun neurrigabecoaz eta barca cerazu; damuz beteric artzen dut asmo eguiazco bat gueyago ez pecaturic eguiteco, ez, Jauna, ez, lenago ill berriz pecatu eguiñ baño,

lenago galdu dena berriz Zu ofenditu baño. ¡Ay nere Jesus ona, nere Jesus maitia! Zu neregatic guizon eguiñ ciñen, neregatic gurutzean, alaco oñacen artean ill ciñen: nic esquerrac eman bearrean, Zu maitatu bearrean, zure odola eta maitetasuna oinperatu ditut, orregatic Zuri eman dizquizuten naigabean damuz eta penaz emin naucazu lotsaz eta beldurraz betea, eman cerazu, Jauna, oraiñ ongui confesatzeco laguntza eta gracia.

Eta Zuc, nere Ama maitia, ¡Maria Santisima! Ama ceran bezala, lagun cerazu nere pecatuaz azturic; damuturic eldu naicen ezquero artu nazazu, eta oraiñ damu ciñezco bat eta nere pecatu guciac ongui confesatzeco laguncerazu, zure biotzeco zazpi atsecabe eta oñace ayetaz escatzen dizut.

Ala izan dedila.

## SAN FRANCISCO JAVIERCOAREN

### damu eguintza

Ez narama, Jauna, Zu maitatzera
Zuc niri aguindutaco ceruac
Ez beldurgarrizco infernu goriac
Pecaturaco bidea uztera.
Cupitzen nau, Jauna, Zu ecustiac
Gurutzean josi eta burlatua
Gorputz gucia oso zauritua
Eta zure eriotz eta nequeac.
Zu maitatzeco ez dut bear Ceruric,
Ez eta ere beldurrezco infernu belzaric
Biyac balaude ere quenduric
Naico nizuque biyotz suz beteric,
Escatu gabe nic beste sariric,
Zure maitetasun gozua baicic.

(Ni pecataria esan eta Aita confesorearen oñetara juan eta zure pecatuac berari aguertu)

### Confesio ondoreco otoitza

¡Nere Jesus ona! Cergatic barcatu dizquidazun nere pecatuac,

betico eriotzatic eta infernuco sutic libratu nazun, eta nitaz izan dezun erruquitasunaz, beti esquerrac emanen dizquizut. Eguiñ direzun mesede aundi ontaz, nere animac beñere atzendu gabe, beti bedicatuco zaitu. Nere Salbatzale maitagarria, zure lagunzarequin nai det bete zure legue santua, beti ebilli ceruco bide zucenetan, ontaraco nere biotzean sartu dezasu zure beldur santua. Eguizu, Jauna, ez nadin zure ondotic beñere lecutu, bici nadin zure gracian eta zure eriotz eta pasio santuaren merecimentuangatic erditzi dezadan guero ceruco zoriontasuna.

Eta Zuc, nere Ama maitia, Maria Santísima, ez nazazula utzi zure lagunzaric gabe oraiñ eta beti cerura arte.

### Gure Jauna artzeco otoitzac

### baño len itz bi

(Jesucristo gure Jauna, gureganaco maitetasunaz betea gueldítu da Aldareco Sacramentu Sacramentu Santu orretan, ez, guc berari urrutitic beguiratzeco, ez beiñ edo bertze gure biotzean sarceco, baicic, maiz-maiz, aldegun gucietan gure biotzean artzeco. Gaurco egunean Eliza-Ama Santaren deseiua da, cristab guciac egunero gure Jauna artu dezaten, ala Aita Santu Pio X garrenac aguertu zuen (S. C. C. 20

Dec. 1925) orregatic Elizaren naiya bete nai badezu, zure confesorearen baimenaquin, meza entzuten dezun aldiro gure Jauna artu dezazu, artaraco astean beiñ confesatu zaite eta pecatu mortalic ez izan ezquero, gogo aundiaquin, maitetasun aundiaquin, errespeto aundiaquin, umiltasun eta siñesmen biciaquin gure Jauna artzea asqui dezu. Norbaitac esango du: nic ez dut mereci, ni ez naiz digno egunero gure Jauna artzeco, ortaraco beardu izan santua. Ez, uquer esaten dezu, Jesus comuniuan ez da santutasunaren saria, baicic da santutasuna erdisteco bidea, onceco indarra. Orregatic cenbat eta obequi prestatzen ceran, orduan eta on eta irabaci gueyago artuco ditu zure animac. Bezperatic, guatzera yuatean, asi zaite prestatzen Jauna artzeco, eta iratzarritzen ceran bezala gogora ecarzu, nola ordu gutxian barre-

nean eldu den zure biotzera zoriontasunic aundiena: eta obequi prestatzeco, ona, emin otoitz gayac. Elizan sartzian bela beguiratu sagrariora.)

**Gure Jauna artu aurreraco otoitzac**

¿Cer dago Sagrariu ortan? ortxen dago zure Jaungoicua, toqui txiqui ortan, ceruan eta lurrean eciñ cabitu den Jaun ure, beraren Jabea, guizonari dion maitetasun aundiengatic dago ortxen preso Sagrariu orretan, neurrigabeco Jaun ure bera, santu gucien Santua, erregue gucien Erreguea, ¡Santutasuna ber-bera! Eta Aunditasun orren aurrean, ¿ni cer naiz? ecer ez, ¡lurreco autsa baño gutxiago! Eta, ala ere, neregana eldu cera, ¿nere Jesus maitia? ¿Ta nerequin eguiaz eta eciñ esan alaco moduan bat eguiñ nai dezu? ¿Ta nere janaria izan nai dezu? ¿Eta nere biotzean sar-

tu nai dezu? ¿Zu nerea ta ni zurea izateco? ¡Ah nere Jaun eta Jaungoico maitia! ¡nic beñepiñ beti maitatu ba cindut! ¡beñere ofenditugabe! ¡beiñere pecaturic eguiñ ezpanu! ¡Ay, norc, izan lezaque bere anima betea birtute guciaquiñ, santu gucien santutasunaquin! ¡Ala ere, Zu nere biotzean artu eta iduquitzeco digno eznitzeque! ¿Ta nere anima aiñ bearsua eta utsa ecustean, cer eguiñen dut? ¿nora juanen naiz? Esanen dizut San Pedro Apostoluac bezala: «Jauna, nere ondotic alde eguizu, bada pecatari aundia naiz.» ¿Baño, nora juanen naiz? ¿Zu gabe, cer eguiñen dut? Zure itzac betico zoriontasuna ematen dute. ¿Zu gabe, nere zauriac, norc sendatuco ditu? ¿nere griña edo pasio txarren sua, norc itzalicodu? ¿Nere etsayac garaitzeco indarra, norc emanen dit?

¡Ay nere Jesus ona! Nere bidea, nere eguia, nere bicia, Zu

cera. ¿Zuregandic alde eguiñ ezquero cerdago neretzat? ezer ez, deus ez, baicic guezurra, utseguiña, eta betico eriotza. Zuc badaquizu pecatariric aundienac ontzen eta santu eguiten. Ondu eta santu eguiñ nazazu. ¡Nere Jauna ta Jaungoicua! ¡atoz, atoz! biotz guciaquiñ maitatzen zaitut, damu dut, Jauna, damu dut biotz-biotzetic Zu ofendituaz... ¡Atoz, nere Jesus maitea! atoz, nere anima ya eciñ egonda... Zu artzeco deseioz beteric dago, atoz, bada nere biotzaren atseguiñgarria, atoz, len baño len...

Atsecabetuen pozgarria, Ainguerauaren gozagarriya, ceruco atseguiña. Santu gucien zoriontasuna, atoz, gaizqui dauden gucien sendaguillea edo medicua... Atoz, nere Jaungoico maitia, eta zure fediaren arguitasunaquin bete dezazu nere anima: atoz eta nere etsai gucietatic gorde nazazu eta gaitz gucietatic libra nazazu,

nere griña edo pasio txar gucien sua itzali dezazu. Nere bicia, nere cerua, nere ona, eta nere gucia, atoz, eta len baño len sartu zaite eta nere biotzearen jabe eguin zaite. Atoz nere Jauna eta Jaungoicua, eta nere biotzera etorcian ecarri ditzazu zure doaiyac eta laguntza guciac.

¡Nere Ama maitia, Birgiña Maria! lagun zaidazu zuc ere garai ontan: eman zaidazu maitetasun aundi bat, Zuc Belengo estalpian cere besuetan artu eta besarcatu ciñuen bezalaco maitetasunarequin nic ere artu eta besarcatu dezaten nere biotzian Zuc sortu ciñuen Seme maitia, Jesucristo gure Jauna. Ala izan dedila.

(Jauna artzeco garaiya etorcen denian esazu «Ni pecataria» eta bela iru aldiz) Jauna, ni ez naiz digno, Zu nere biotzean artzeco: baño esan bedi zure itz santua eta nere anima izanen da sendatua eta salbatua.

(Gure Jauna artu ta bela esquerrac eman, eguin dizun mesede aundiaz: escuac copetan eta beguietan paratu, beguiac etsi eta biotzaz itz eguiñ Jaunari eta maitetasun aundiaquin esan berari gogora etorcen zaizun gucia, ez labur gueldi tu escatzean, aguertu zure premiac, zure miseriac, eta escatu anitz, zuretzat, zure guratso, ume, senide ta aideantzat, Eliza-Ama Santanzat, Aita Santunzat, purgatorioco animentzat, pecatariac biurtzeco, zure onguieguille ta gaizquieguillentzat, fedea zalbatzeco, blasfemia mundutic lecutzeco eta guero otoitz oyec.)

### Gure Jauna artuta ondoreco otoitzac

¡Oh nere Jesus maitia! ¡ongui etorria izan zaitela nere biotz pobretxu ontará! ¿Baño... cer da au? ¡nere Jesus maitea!... ¡Zu nere biotzean! ¡Zu, Jaungoicuaren Se-

me bicia, ceruco eta lurreco Erreguia!... ¡Zu, gauza gucien Jabea, garbitasuna eta santutasun ber-bera nere biotz errucarri ontan!... ¡Oh ceiñ aundia den zure ontasuna! zure erruquitasuna, zure nereganaco maitetasuna! ¿Baño... eguia da, Zu zaudela nere biotzian?... ¡Bai! Zu oso-osua, Zure gorputz, odol, Anima, Guizontasun ta Jaungoicotasun ber-bera nerequiñ dagola siñesten dut, Jauna, eta siñesmen au aitorzegatic nere bicia milla aldiz emanegonuque.

¿Eta oraiñ eguiñ direzun mesede aundi ontaz, nola esquerrac eman Zuri, nere Jesus maitia? Atozte nere animaco potenciac, nere biotzeco naicariac, nere gorputzeco sentiduac eta auspeztu zaitezte zuen Jaungoicuaren aurrean. Ceruco Ainguerusc atozte eta nic oraiñ nere biotzean dauqueten Jesus maitiari esquerrac eman dizquiozute, Ceruco Santuac lagun cerazute oraiñ Jaun-

goicua alabatzen eta maitatzen.

¡Nere Ama maitia, Maria Santisima, zure Seme maitiari, nic eciñ eman dizquiot esquerrac bearden bezala, ta Zuc nere ordez eman zazquiozu. Esayozu, nic nai nuquela maitatu Zuc maitatzen dezun bezala, ceruco Santuac, Serafiñac eta Querubiñac maitatzen duten bezala! Bai, nere Jesus maitatzalea, nic oraiñ besarcatzen zaitut nere biotzean, zure Amac Belengo estalpean jayo ta bela besarcatu ziñuzen bezala, ta maitetasun ber-beraquin nai siñuzquet maitatu, Maitatzen zaitut Jauna, maitatzen zaitut nere biotz guciaquin, nere animaquin, nere gorputz guciaquin eta naicen guciaquin. Zu maitatu, zurequin bici, Zu serbitu zure gogua eguiñ beti, Zurequin egon, Zure borondatea eta Zure aguiñduac eguiñ, Jauna, auxen da nic nai dutena. ¡Oh nere Jesus maitia! ez nere biotzetic gueiyago atera, ez

neregandic lecutu, etorri ceranezquero nere biotz pobretxo ontara... zaude beti nerequin: maitatzen zaitut nere bicia baño gueiyago, eta barca zaidazu, Jauna, esaten badizut; Zuc ere ni maitatzeco: eta alaxen bioc elcar maitatuaz bici gaitezen beti eta beti mundu ontan eta bestean. ¿Eta, norc, nere Jesus ona, etzaitu maitatuco ecusiezquero Zuc cer eguiñ dezun neregatic? Cerua utzi, aurtxo bat eguiñ, gurutzean oñace icaragarrian artean ill, ta Aldareco Sacramentu Santu ortan, gure maitetasunaz gueldituu, mundua-mundua den arte: ¿Olaco gauzaric, nori gogoratuco zatzion, Zuri ezpada, Jesus maitagarria? Eman cerazu, bada Jauna, ceurrec maitetsun aundi bat Zu maitatzeco. Jauna, ez gueyago pecaturic, ez gueyago Zu naigabetu, ez gueyago Zu ofenditu: Zu maitatu eta zurea izan oraiñ eta beti, orixen nai dut eta ori egui-

teco lagunza eman cerazu. Jauna, nere biotzean zaude, eta ez dizut utzico emindic ateratzea beñere: Zure odol balio aundicuaquin erosi nazun esquero, ez utzi lan ori erdizca, bucatu edo acabatu gabe, erruqui zaite nitaz eta ixuri nere animan ugari zure doaiyac, zure graciac, zure mesedeac, zure indarra ta lagunza, santificatu nadin, zure maitetasunaren sugarran quixcali nadin, betiraunde gucian ere, guero Zu maitatzen bici nadin Zurequin ceruan. Au bere eguizu, Jauna, munduco guizon guciaquin, denac ecarri ditzazu zure aldarearen aurrera eta gucien biotzetan bistu dezazu zure maitetasunaren sua, olaxen Zu maitatuaz pecaturic eguiñ gabe bici daitezen. Desterratu dezazu, Jauna, infernuco itz blasfemi ciquiñ ori mundu gucitic eta bere ordez zabaldu zure alabanzac eta bedicaciuac: oroitu zaite ere purgatorioco ani-

ma cupigarri aietaz, zure esposa maitiataz eta zure eriotzeco irabaciangatic atera ditzazu len baño len su artatic, azqueneco eman zaidazu mundu ontan osasuna, ondasunac eta bertze gauzac zure gogua den bezala.

Ala izan dedila.

(Ez elizatic atera laisterca, gure Jauna artuta bela, ascoc eguiten duten bezala, gutxienaz ordu laurden bat zaude Jesusequin izquetan, esquerrac eman ta mesedeac escatzen. Jesus den gucia da zurea, dena dago zure biotzean, dena eman dizu, esayozu bada escaria berrituaz:)

### ESCARIA

«Nere maitia da gucia neretzat, eta ni gucia nere maitienzat» (Cant. II. 16) Oh nere Jesus maitia etorri zeran ezquero nere biotz uts ontara eta Zeurrec esaten deren ezqueroz escatzeco nai dituten mesede guciac, Zu etorri

cerala ni aberastutzera, Zeurrec bada nai dezun ezqueroz nic escatzea, banua fede biciaquin eta esperanza osoaquin nere escariac berritzera. Nic ezditut billatzen, Jauna, lurreco gauzac: ez escubideac, ez aguintaritzac, ez ondasunac ezta ere atseguiñac. Nic oraiñ Zure aurrean auspezturic eta gogoric bicienaquin escatzen dizutena da: oraiñ arte eguin dituten pecatu gucien maitetasunezco damu bici bat, ayen barcacio oso-osoa, emindic aurrera pecaturic, den txiquienic ere, ez eguiteco laguntza, santutasunaric aundienara igotzeco ta bicitza santuan ta Zure gracian nere azqueneco asnasea eman arte irauteco indarra: munduco gauzaren deuseztasuna eta Zuc cenbat dezun mereci maitatzea maitetasun muga gabe batequin ezagutzeco arguitasuna.

Quendu zaidazu, Jauna, nere biotz gogor, otz au, eta bere le-

cuan paratu beste bat, biotz bat, bere eraspen, nai ta deseio gucietan zurearen antzecoa: biotz bat Zure maitetasunaren suaz betea: biotz bat damutasunaz ta umiltasunaz betea: biotz bat sotilla: biotz bat ari dena beñere aspertu gabe Zu maitatzen emin lurrean eta guero ceruan betiraunde gucian.

Badaquit, nere Jesus ona, ez dutela mereci nic olaco mesedéric, baño eguin zaidazu zure biotzeco ontasun ta erruquitasunangatic, Zure Ama Mariaren irabaci ta erregungatic, Zure Aita cerucuari diozun maitetasunangatic: eta Zu gucia, nerea ceran ezquero, nic ere nai dizut eman naicen gucia Ignacio santu Loyolacuaquin. Nere azcatasun edo libertade osoa, nere oroimen, adimen eta naimen oso-osoa, duten eta izanen duten gucia, artu dezazu, Jauna, Zuc emanac dire, denac zureac dire eta nai dezuna

eguizu ayetaz: zure maitetasuna ta lagunza eman cerazu eta naicua dut.

Cristoren Anima, santutu nazazu,
Cristoren Gorputza, salba nazazu,
Cristoren Odola, ase nazazu,
Cristoren sayetseco ura, garbi nazazu,
Cristoren eriotz-nequea, indartu nazazu,
Jesus ona, entzun nazazu,
Zure zaurietan, gorde nazazu,
Zugandic alde eguitea, utzi ez nazazu,
Etsai gaistuangandic, libranatzazu.
Nere eriotz garaiyan, deitu nazazu,
Zuregana juateco, aguindu cerazu.
Zure Santu guciaquin alabatu zaitzadan,
Betiraunde gucian. Ala izan dedila.

**Jesucristo gurutzean josiri otoitza**

¡Oh nere Jesus ona eta guciz gozoa! emintxen naucazu Zure aurrean belaunicaturic, eta aldu-ten debocioric senduanaquin erregutzen ta escatzen dizut, sortuazi eta josi dezazula nere biotzean fede, esperanza ta caridadezco

gogo indarsuac, nere pecatuen damu eguiazcua eta gueyago pecaturic ez eguiteco asmo azcar sendo bat: nic bitartean biotzberotasun eta damutasun aundiaquin Zure bost zauriac goguan artu ta consideratzen ditutela, nere beguian aurrean iduqiaz araco Zuregatic, ¡Oh Jesus maitia! Dabid profetac esaten zuena: «Nere escu-oñac zulatu eta nere ezur guciac contatu dituzte.»

*(Jaun artu ondoren, otoitz au esanta Aita Santuaren alde escatu ezquero, Aita gure bat naicua da, irabaci leique barcapen osoa edo indulgencia plenaria: Pio IX 31 Jul. 1858. Orretaco Jesucristo gurutzean josian imagiñaren aurrean eguin bear du. Purgatorioco animari esquiñi leique. Egunean beiñ bacarric irabazten den barcapena da. Leo. XIII 20 Jun. 1872.)*

**Gure Jauna artzen, meza entzuten den gucietan eta bertze edoceñ ordutan eguiñ leiquen Otoitza, Jaungoicuari blasfemiaquin eguiten zazquion irain edo ofensac ordaintzeco.**

## OTOITZA

Neurrigabe, betico, gucial-dezun Jaungoicua, santutasuna berbera, munduaren Jabea ta Jauna, ceñan aurrean, Serafiñac eta beste gañeraco cerutar guciac deusezturic auspeztzen dire, Zu adoratzeco: baño guizonac: Jaungoicozco odolarequin erosiac, eta muga gabeco ontasunaz beteac, ¿cer eguiten dute? beuren infernuco itz blasfemi ciquiñaquin Zu mindu edo ofenditu, Zure Seme Jesusen Odol balio aundicua oimperatu. Nic bada, naiz izanagatic munduan den pecatariric errucarriena, samintasunaz eta naigabez beteric, ecustean olaco txarqueri eta irain edo ofensa aundiac, pocic emanen nuque nere bicia olaco blasfemi icaragarriac galeracitzeco: bañan au alaxen eciñ eguin ezdezaqueten ezquero, biotz-biotzetic nai ditut

ordaindu alduten eran Zure ofensa aundi oriec.

Nai nuque bada, Jauna, mingaiñ ciquiñac blasfematzen duten aldiro Zure icen santua, edo Zure Seme Jesusen Odol balio aundicua, edo Aldareco Sacramentu Santua, Jesus Maria ta cerutarren icen santua, nainuquela diot, eman Zuri ainbeste eta ainbeste esquer onac, bedicaciuac ta gorapenac cenbat ematen dizquizuten ceruan Serafiñac, cenbat eman ta emanen dizquizuten Santu eta Zure maitazale guciac munduaren asieratic bucatu edo acabatuarte.

Bai, nere Jaungoicua, Zure eta beste Santuan calte edo contra blasfematzen den aldiro, nai dizut esquiñi araco ceruco Ainqueruac abestutzen edo cantatzen duten Santo, Santo, Santo, ure, ainbeste aldiz nola diren izarrac ceruan, ostuac zugaztietan edo arboletan, ur tantac eta are picorrac itsasuan, ainbeste, cenbat

maitetasunezco eguipen garbi, beruac ematen dizquizun Maria Birgiñac.

Atozte oraiñ ceruco Aingueru ta Santuac eta lurreco Jaungoicozale eta cristab on guciac eta esan dezagun:

Bedicatua izan bedi Jaungoicua.

Bedicatua aren Icen Santua.

Bedicatua Jesucristo Jaungoico ta Guizon eguiazcua.

Bedicatua Jesusen Icena.

Bedicatua bere Biotz aguitz Santua.

Bedicatua Jesus Aldareco Sacramentu Santuan.

Bedicatua Jaungoicuaren Ama aundi Maria guciz Santua.

Bedicatua aren sortze santu ta mantxa gabea.

Bedicatua Maria Birgiña ta Amaren Icena.

Bedicatua aren Esposo guciz garbi Jose Santua.

Bedicatua Jaungoicua bere Aingueru ta Santuetan.



**JESUSEN BIOTZARI**
**eguiten zazquion txarquerien ordañez esquintza ona**

¡Jesusen Biyotz guciz maitagarria! ¡Beñere aitzen ez den etorburu eta birtute gucien Jabea! ¡Norańo goratu nazun! Zure antz ta iduricua eguiñ ta beti maite izan ez ecic, neregatic esquer txarreco guizonen artean oguei ta amairu urtez bicituta guero ainbeste icerdi, neque ta negarren ondoren, gurutzean azqueneco odol tanta ixuri arte gueldítu etziñen. Eta nereganaco dezun maitetasuna asetzeco, ori

naicua ezbalitz bezala: nere pozgarri, janari ta bicia izateco, eciñ esan alaco Sacramentu aundi ori asmatu ciñuen.

¡Eta cer, nere Jesus ona! ¿Zure contra asco altxatuco cirelacoz, Sacramentu ortan naigabe eta bidegabe asco artuco cituzula etzañequin? Zure maitetasunaren ordañez, oztasun eta esquergabequeri txar anitz eguiñen cizuten cristabac izango cirela etzañequin ba? ¡Nic bederic maitetasun bicaiñ-bicaiñ ori beti ongui ordaindu banizu! ¡Baño ay, ni ere esquergabe oyetaco bat izan naiz! ¡Nic ere orreiñ mesede aundiac ecertan artu gabe, aunitz aldiz Gurutze lotsagarrian iltzez josi zaitut! Bañan oraiñ, nere bidegabe aundi ta esquer-txarqueric ecustean, damu aundi bat artzen dut: eta Zure aurrean auspezturic, gozagarri aundi bat eman nai dizut.

¡Bai, nere Jesus guciz maitia!

ainbeste txarqueriaz oraiñ arte oroitu ez naicelacoz, barca zaidazu. Zu Sacramentuan bisitatzera etorri naicenian, epel ta zabarra izan naicelacoz, barca zaidazu. Elizan beguirapenic gabe eta nola nai ebilli naicelacoz, barca zaidazu: batez ere, nere bicitz osoan ainbeste Jaun-artze epel ta txar eguin ditudalaco, barcatu, Jauna, barcatu zaidazu.

¡Nic oraiñ ematen dizuten gozagarri txiqui au artu zaidazu. Nere Jesus aguitz maitagarria, damutasun aundiaquin, nic indartu ta bicaindu banezaque! ¡Nic eta beste pecatari aunitzac gueuren pecatuaquin ciquinduco toquietara joan ta nere negar tantaquin garbitu ta nere zañetaco odolaquin igortzi albanezaque! Baño au eguiñ ezdazqueten ezquero, Zurequiñ beti bicitzeco dauqueten asmo ona, onez arzazu: ta neurre ere. Zuretzat artu nazazu.

Nere gogo ta asmo oyec epelac izanagatic, cristau zintzo aunitzen maitetasun, Zure Ama guciz atsecabetuaren irabaci eta Zerorrenari batutzen edo juntatzen dituten ezquero artu ditzazu, Jauna.

Maitetasuna, maitetasunaz ordaintzeco duten asmo sendoa Zure odolaquin eguiztatuta edo sellatuta onzat artu dezazu, emindic aurrera Zu beti gogoratu, Zutaz itz eguiñ, Zugatic gauza guciac eguiñ eta samintasunac eraman, Zu bacar-bacarra maitatu, Zuregatic bacarric bici, Zu ceruan aurrez-aurre ecusteco garai pozgarriya gogoan iduquiaz bici nadin. Alai izan dedila.

---

## MEZA SANTUA

### (oarpenac)

Cristab gucientzat, debocioric ederrena ta onena da Meza santua: cergatican den Jesucristoren Gorputz eta Odolaren esquintza, gurutzeco esquintzaren oroipenan gure aldaretan, ogui ta arduaren iduripean esquinzen dena.

Jesucristoc gurutzeco esquintzan ill cen ta ixuri zuen eguiaz bere odola: eta mezacuan, aren oroipena delacoz Jesucristo odolixurtze gabe esquintzen da, ontan dago bi esquintze oyen berdiñeñeza.

Meza bat bacarrac, Jaungoicuari glori gueyago ematen dio, ceruco Aingueru ta santu guciac baño.

Mezaco esquintza santua eguiten zayo Jaungoicuari: lenbicico: Bera, gauza gucien asiera ta etorburua bezala onratzeco: bigarren lecuan, Beregandic artu ditugun lagunza ta mesedeaz esquerrac emateco: irugarren, Bera paquetzeco, eta gure pecatuen zorra ordaintzeco: laugarren: Beregandic bear ditugun lagunza guciac erdisteco eta azqueneco, garbilecuco edo purgatorioco animan alde.

Mezara etorri bear dezute al dezun gucietan, egunero ta obe. Mezan egon bear da debocio aundiaquin, ez bazterratatara beguira, ez irriz ez eta ere lo. Guizasemeac ez dute joan bear mancutsic, ta emacumeac ongui jantziric, lepoa estalia, besuac ere bai.

**Mezaco misteriuaren aguerpena**

*Apezac:* Meza jaunzian, Jesucristo gure Jauna bere Pasio gogorrean aguertzen digu.

*Amitoa:* da oyal zuri bat, burutic bera apezac artzen duena: eta esan naidu nola Judiuac Jesucristori burla eguiteco eta matelezurrecuac emateco arpeguia estali cioten.

*Albac:* nola Cristo zuriz jaunzliric, Herodesec burlaz Pilatcseri bigaldu cion.

*Cinguluac:* nola Jetsemanico baratzean, Jesus guregatic socaquin guerritic lotu zuten.

*Manipulo* ezquerreco besocoac: nola azotatzeco escuac lotu zizquioten.

*Estola*: lepotic gurutzaturic artzen du, ta esan nai du, nola Jesus galbarioco mendira eraman zutenian lepotic socaquin lotu zuten.

*Casullac:* gucian gañean artzen duena da, ta esan nai du, nola irri ta burla eguiteco jauntzi cioten, soñeco gorri bat.

*Calizac:* Jesus lurperatu zuten sepultura.

*Patenac*: edo calicen gañeco platerxuac, sepultura etsitzeco paratu cioten arriya.

*Corporal* ta paliac: Jesusen gorputza lurperatzeco paratu zizquioten oyalac esan naidute.

*Aldareac:* galbarioco mendia adirazten du. Mez-emallea: ez da ya guizon bat, zu salbatzeco Aita Beticuari bere burua esquintzera duayen Jesucristo bera baicic.

*Introituac*: mez-asiracuac: nola legue zarraco santuac, Jesucristo guizon eguiteco deseiyoz beteric zauden esaten digu.

*Kirie-eleison:* Trinidadeco lagun bacotxari iruna ematen zazquiyo, eta esan naidu «Jauna gutaz erruquitu.»

*Gloriac:* Aingueru ta artzayac,

Jesus jayo cenian, nolaco poza artu zuten esan nai du.

*Dominus vobiscum:* esatean, Jesucristoc pecatariac bereganatzeco izandu zuen naitasun aundia aguertzen digu.

*Credoac:* cristabac siñetsi bear duena eracusten du. *Incarnatus est*, apezac esatean, belaunicatzen guera, Maria Birgiñaren errai garbietan araguitu cen Jaungoicua adoratzeco. Ecusiric nola Jaungoicuaren Semea goiberatu cen, ¿ez ditugu utzico gueuren arroqueriac?

*Esquinza*: Ogui-ardo mantxa gabeac, Jesucristoren gorputza ta odol biurtuco direnac esquintzen zazquio Jaunari. Calizara botatzen diren ur tantac, Jesucristo ill ondorean Longuinosec lanzaz sayetsa zulatuta ateracen ura adiraci nai du.

*Lavabo:* Mez-emalleac garbitzen ditu biatzac adirazteco ceiñ garbitasun aundia bear den ani-

maren eta gorputzaren aldetic, baita entzun bear dutenac ere nolacua bear duten.

*Orate fratres:* esatean, Jesucristoc Apostoluari Jetsemanico baratzean erne egon ta otoitz eguiteco esan ciola adiraci nai dezaque.

*Sanctus:* Nola Jerusalendarrac, erramo-adarrac artuta pozaz beteric ateri ciran Jesucristoren bidera cantatuaz: cerutarrac bezala Santua, Santua, Santua da gaur eldu zaigun Jauna, esan nai du.

*Mementoan:* Meza emallea, escuac batu, burua macurtu ta ixillic, bici diren gucien alde ari da otoitz eguiten. Jesus ere bere Pasiuan orrelaxen egondu cen, gucian alde otoitz eguiñaz, baita ere bere gaizqui-eguilliaz.

*Gure Jauna goratzean:* Jesucristoren gorputz ta odola goratzean, nola gurutzean josiric goratu zuten esan nai du.

*Illen Mementoan:* Garbilecuan edo purgatoriuan dauden animan alde, mez-emalleac otoitz eguiten du.

*Nobis quoque peccatoribus-ean:* Mez - emalleac bere escuaquin bein jotzen du petxua: Jesus gure Eroslea illtzean, Centurionac eta beste anitzac Jaungoico eguiazcuaren Semea cela ezaguturic, aitortu ta artu zuten damutasuna, esan naidu.

*Pater noster-ean:* Zazpi escarico Aita gureac, Jesusec gurutzean esan cituen zazpi itzac, gogora leizaque.

*Hostia erdicatzean:* Jesus iltzean, bere anima linbora juan cela, guratso santuaren animac ateratzera, adiracitzen digu. Jesucristoren animan ta gorputzan guelditucen, Jaungoicotasuna, Jesucristo bera, Ostiaren iru pusquetan oraiñ arquitzen den bezala.

*Pax Domini ta Agnus Dei:*

esatean nola Jesucristoc bere icasleari bere paquea eman cion gogogora ecartzen digu eta Mezemalleac Gure Jauna artzen du: Zuc ere, gogoz beren artu dezazu.

Azquen otoitzac: Jesucristoc bere Aita Beticuari gure alde eguiten dizquion otoitzac esan naidute.

*Ite missa est:* Meza bucatu edo ocabatu dela, Jaungoicuaren Semeac, gu erosteco, bere burua berriz esquiñi duela esan nai du.

## MEZA ENTZUTECO ERA

### Esquintza

Nere Jaungoico maitia: entzutera nuayen meza au, esquintzen dizut, eguiñ dizquidazun mesede gucietaz esquerrac emateco, nere ta beste gucien pecatuen barcaciua erdisteco: garbilecuco edo purgatorioco animan naigabeac arintzeco. Zure gloriaraco eta nere animaren onaraco izan bedi.



**Mezan asieran**

Aitaren, eta Semearen, eta Espiritu Santuaren icenean, Amen. Apezaquin batean esan «Ni pecataria.» Nere Jaungoico maitia, Jaun guci-aldezuna, gutaz erruqui zaite, eta gure pecatuac barcatuta cerura betico eraman gaitzazu, Amen.



**Apeza aldarera igotzean**

Esan dezazu. Jauna gure txarqueriac garbitu ditzazula escatzen dizugu, zure elizara beti biotz garbiaquin sartzeco. Amen.



**Kirietan**

Trinidade Santuari escatzen diogu erruquitasuna, esanaz: Jauna erruqui zaite nitaz, Jauna erruqui zaite nitaz, Jauna erruqui zaite nitaz. Jesucristo erruqui zaite nitaz, Jesucristo erruqui zaite nitaz, Jesucristo erruqui zaite nitaz, Jauna erruqui zaite nitaz, Jauna erruqui zaite nitaz, Jauna erruqui zaite nitaz.



## Glorian

Aingueruac alabatu dezatela, Jauna, zure ontasuna, Zu jayo ciñenian bezala. Oraiñ zure graciaz gure animetan jayo nai dezu. Gloria, bada, ceruan Jaungoicuari, ta paquea lurrean guizon zintzuari. Alabatzen, bedicatzen, ta adoratzen ta glorificatzen zaitugu, Jauna, Zure gloria aundiagatic esquerrac ematen dizquizugu. Jaun, Jaungoico, ceruco Erregue, Jaungoico Aita guciaaldezuna, Jaungoico Aitaren Semea, munduco pecatuac garbitu dituzuna erruqui zaite gutaz.



**Dominus vobiscum**

Lentabicico otoitzetan. Jauna, meza-emalleac, Santuen bitartez escatzen dizuna, nic ere escatzen dizut.

Jauna, aren eta nere erreguac entzun ditzazu. Eman zaidazu zure laguntza lurrean ta ceruan betico zoriona. Jesucristo gure Jaunaren irabaciangatic. Amen.



**Epistolan**

Nere Jesus maitia, eguizu nere anima bete dedila Profeta santu eta Apostoluac eracutsico eguiaz, zure aguinduac beteric, ceruco bidean galdu ez nadin. Amen.

---



**Ebangeliuan**

(Zutitu denac ta ciñatu) Jauna, Ebangeliuan ematen direzun argui, dotriña ta fedeaz, esquerrac ematen dizquizut eta eman cerazu indarra fedea aitortzeco eta zure aguinduac betetzeco, munduan nere ebill-bideetan nabillen artean. Amen.



**Credoan**

(Esazo credo debocio aundiaquin, Apostoluac emanaco dotriña den bezala. Credo esanta onduan:) Jauna, Zuc Eliz-ama Santari eracutsi dizquizun Fedeco egui guciac siñesten ditut. Eman cerazu laguntza, bici naicen bitarteco eguiñ guciac fede bici batequin eguiteco ta azquenean zure gloria ceruan. Amen. (Ecusi 278-n orri aldia.)



**Ofertoriuan**

Jaungoico guci - aldezuna ta Beticua, mez-emalleaquin batian esquintzen dizut osti mantxaric gabe ta Edari osasungarri ori, zure glori aundienaco, niri ta mundu guciari eguiñ tiguzun mesedeaz esquerrac emateco: nere ta denan 'pecatuen ordañaz: baita ere emin arquitzen eta beste cristab bici ta illentzat, bear ditugun laguntzac ta graciac erdisteco. Zure Seme, gure Jaunangatic. Amen.



**Escuac garbitzean**

Jauna, ez utzi nere anima galtzea. Nai dut urbildu Sacramentu Santu orretara anima ta gorputz garbiaquin eta bear den bezala jauntziric.



**Orate fratres esatean**

Jaungoicuaren alabanza ta gloriaraco, eta gure ta Eliza-Ama Santaren oneraco esquintza ori Apezaren escutic, gure Jaunac artu dezala. Ala izan dedila.



**Sanctus esatean**

Jauna: alabatzen ta glorificatzen zaitut, ceruco Aingueru ta Santu guciaquin, eta beñere aspertu gabe esan nai dizut: Santu, Santu, Santu, ceran Jaungoicua, Zure aunditasunaquin ceru-lurrac betetzen dituzu, Zuri alabantzac ceru goyetan. Ala izan dedila.



## Memento esatean

¡Aita erruquitsua! Jesucristo Zure Seme Bacar, gure Jauna, Maria Birgiña ta ceruco Santu guciac bitarteco ditudala Eliz-Ama Santaren alde otoitz eguiten dizut, Elizaren Aguindari ta umeac paquetu, gorde, elcartu, eta zaitu ditzazun. Nere guratso ta senide, aide, onguille, gaizquille, Aita confesore ta pecatari gucien ta batez ere illtzeco zorian daudenan alde escatzen dizut: zure graciara guciac biurturic, Zu maitatzen guciac bici daitecen.

Ala izan dedila.



## Consagracioan

Nere Jesus maitia: azquenaco afarian eman ciñion Apostoluari zure gorputza eta zure odola. Zure ontasun ta erruquitasun aundiangatic, escatzen dizut nic ere artu dezaten Sacramentu Santu ori: eta orrela Zu bici zaite nerequin eta ni Zurequin Zu beti maitatzen. Ala izan dedila.



**Gure Jauna goratzean**

(Apezac gure Jauna goratzean, beguira zayozu osti santuari fede bici ta beguirapen aundiaquin esanaz:) «Nere Jauna eta nere Jaungoicua» (zazpi urte ta zazpi berrogueico indul. Pio X) eta esazu: Adoratzen zaitut, Jesus, nere Jaungoicotzat, ta Osti santu orretan adoratzen dut Zure Gorputz Jaungoicozcua, gurutzeco aldarean mundu gucia salbatzeco esquiñi cena. Siñesten dut Zu ortxen zaudela.



**Caliza goratzean**

Adoratzen dut, Jauna, Zure Odol bicaiñ ori, gure maitetasunez ixuria: gure animac garbitzeco, Zuc emana: Odol balio aundico orretan esperatzen dut nere pecatuen barcaciua izanen dutela. Erruqui zaite nitaz, erruqui, Jauna.



## Gure Jauna goratu ondorean

¡Jaungoico maitia! eguizu esquintza ori, zure Aingueruac zure aurrera eraman dezatela: Zure Semearen Gorputz ta Odol Santua artzen degun guciac esquintza orren bidez ceruco laguntza erditsi dezagun: Jesucristo gure Jaun beraren bitartez.

Ala izan dedila.



**Illen mementoan**

Beguira zaiozu, Jauna, begui onez, Zure maitezale izan ciren ayeri ta mundu ontatic aterita Garbilecuan oñacez beteric arquitzen direnari: ta batez ere, nere guratso, senide, aide ta adisquidiari, guciac cerura eraman ditzazu, Jauna, Jesucristo gure Jaun beraren bidez.

Ala izan dedila.



## Pater noster esatean

*Esazu Aita gure, oroituric soseguz bere zazpi escariac.*

## Pater noster esanta ondoan

¡Oh nere Jesus maitea! Zure anima Jaungoicotasunaquin batean yeutsi cen Habraan-en toquiyan zauden guratsuaren animac ateratzera gloriaz betetzeco: eman cerazu niri ere laguntza ta gracia, nere anima pecatuen mendetic atera, infernuco bideac utzita, Santu guciequin ceruan alabatzeco. Ala izan dedila.



**Ostia erdiçatzean**

Nere Jesus, animaren guiaria, zure icasleac bezala eraman nazazu bide zucenatic: nere biotza ta nere adimena bete ditzazu zure maitetasun ta arguitasunaquin: emin Zure naiya eguiñaz ceruco gloria erditsi dezagun.

Ala izan dedila.

———



**Pax Domini esatean**

¡Oh Jesus maitagarria! Zure bistuera gloriosuaquin idequi ciñuen betico bicitzaco atea ta ori aditzera eman ciñion zure Apostoluari esanaz: Paquea izan dedila zuequin. Escatzen dizut, Jauna, pecatutic graciara bistuta gueigo ez erortzeco bear duten lagunza.

Ala izan dedila.



**Agnus-Dei esatean**

Munduco pecatuac quentzen dituzun, Jesus ona, erruqui zaite gutaz.

Munduco pecatuac quentzen dituzun, Jesus ona, erruqui zaite gutaz.

Munduco pecatuac quentzen dituzun Jesus ona, paquea eman zaiguzu.

---



### Jauna artzean

Jauna, nere pecatu guciac barcatu ta nere anima garbitu dezazu. Zure aguinduac gordetzen lagun cerazu, Zugandic alde eguiñ gabe beti bici nadin. Ala izan dedila. Jauna, ni ez naiz gai edo digno, Zu nere animan sartzeco, baño esan dezazu itz bat eta nere anima guelditaco da sendatua ta salbatua.

*(Iru aldiz esazu ta zuaz gure Jauna artzera: eta ez badezu artu bear, eguizu gogozco edo deseiozco comuniua esanaz:)*

¡Nere Jesus maitia! ¡Sacramentu orretan eguiaz arquitzen cerala

siñesten dut, zorionecua ni oraiñ nere biotzera etorrico baciña! ¡Anima garbien Esposo maitia, zure maitetasunezco su ta garretan ni erre ta garbitzera atoz! ¡Nere Jesus ona! ¡maite zaitut, beti maitatu bacinduzan! ¡beñere pecaturic eguiñ gabe! Sacramentu orretan gaur Zu eguiaz artzen etzaitututen ezquero, nere deyac entzun ta zure maitetasun Jaungoicozcua eman zaidazu. Ala izan dedila.

*(Beguiac etsi ta piscabat egon zaite Jesus ona ta beraren maitetatsuna goguan ebilliaz.)*

---



**Liburua beste aldera eramatean**

Esaten digu nola eriotzeco illunbetatic, Ebangeliuan arguitasunera, zu bezala anitz ere, Judiuac ta fede gabeac etorri cirela. Orreiñ mesede berexia, Jauna, ¿nola ordainduco dizut nic? ¿Cer ecusi dezu nitan, eciñ esan alaco mesede ori niri eguiteco?

——



### Azqueneco otoitza

Mez-emalleac esaten dituenac adirazten digute, Jesucristoc bere Aitari gure alde eguiten dizquionac. ¡Nere Jesus maitia! Zu beti ari cera gure alde escaca, eguizu, Jauna, nic ere izan dezaten nere anima ceruratzeco gogo edo deseiyo aundi bat, eta elcarturic nere escariac Zureaquin erditsi dezaten ceruco zoriontasuna.

Ala izan dedila.



### Ite Missa est eta Bedicaciuan

Meza Santua entzun dut, debocio txiquiaquin egon naiz, Jauna, ta barcatu; gaur pecaturic ez eguiteco lagun cerazu eta oraiñ mez-emalleac ematen diten bedicaciua au, ill onduan neregana etorri dedila.

*Aitaren, eta Semearen eta Espiritu Santuaren icenean Amen.*

---



## Azqueneco Ebangeliua

(*Zutic ciñatu*)

Jaungoicuaren Seme bacar guizon eguiña, Espiritu Santuaren bidez, Maria Birgiña garbiaren sabelean ni salbatzeco, ta Zure araguitze, bicitz ta eriotzeco misteriuac berrituric, gaur berriz esquiñi ceralaco, eta meza santua entzuteco laguntza eman direzulaco: esquerrac ugari ematen dizquizut. Eman cerazu zure gracia Zu maitatuaz bicitzeco lurrean ta guero ecusita gozatzeco ceruan. Ala izan dedila.

**Elizatic atera baño len**

Esayozu Jesus Sacramentatuari: Nere Jesus maitia, emin utzitzen dizut nere anima ta nere biotza, ta zure baimenaquin, banua nere eguiñ bearrac eguitera. Bedicatu nazazu ni eta nere etxecoac Amen.



## CALBARIOCO GURUTZE BIDEA

*Gurutze santuaren...*
*Nere Jesucristo Jauna...*

**Esquintza**

Aita Beticua, Jaun gucia-aldezuna, beguiratu, ez guri, baicic Zure Seme maite Cristoren arpegui ederrari: eta esquintzen dizquizut Calbarioco bide santu onetaco ebillera guciac, zure Seme Jesusen atsecabeac bere irabaci guciaquin batean, zure onra

ta gloriaraco eta gure pecatuen barcacioaraco: eta ceruco otoitz onetan diren barcapen edo indulgenci guciac, Aita Santuac nai duen bezala eguiñaz irabaci nai ditugu, Zuri esquintzeco, Ama Birgiñaren escutatic, garbilecuco edo purgatorioco animaren laguntzaraco eta gure animac ceruratzeco. Al izan dedila.





**Lenbicico gueldi-aldia edo estaciua**

*Pilatosec, Gure Jesus maitia gurutzean illtzera, erabaqui edo sentenciatu zuen lecua.*

(Adoratzen ta bedincatzen zaitugu Cristo gure Jauna, cergatic zure gurutze santua-gatic erosi ta salbatu baiciñuen mundua.)

¡Oh nere Jesus maitia! Azote, aranza, miñ eta lotsaz beteric, ixill eta umill zure eriotzeco epai edo sentencia, gure pecatuangatic aditu ciñuen Pilatosen agotic. Jauna, zure biotzeco maitetasun

ta ixiltasun orregatic, eman cerazu, eguiazco damutasunez nere pecatuen cate-etatic ateratzeco laguntza, eta azquenean aditu dezaten nere aldeco sentencia.

Amen.

*(Aita gurea.)*

Erruqui zaite, Jauna, erruqui, eta zure erruquitasunaz anima difuntuac erditsi dezaten ceruco gloria. Amen.



**Bigarren gueldi-aldia edo estaciuá**

*Gure Jesus maitiari gurutzea eman cioten lecua.*

(Adoratzen ta bedicatzen zaitugu Cristo gure Jauna, cergatic zure gurutze santuagatic erosi ta salbatu baiciñuen mundua.)

¡Oh nere Jesus maitia! Isaac zintzuac baño obequi eraman ciñuen cere bizcarrean egurra! Zure biotzeco ontasun orregatic, nere era gabe diren gogo gaixto guciac zure borondate santuari lotutzeco laguntza eman cerazu: nere pecatuen zorrac ordaintzeco,

gurutzea eraman dezatela beti gogotic zure ondotic, eta lurreco nere nequeen bidez erditsi dezaten ceruco atseguiña. Amen.

*Aita gurea, Erruqui zaite, Jauna...*

---




**Irugarren gueldi aldia**

*Gure Jesus maitia, gurutzeaquin lentabicico aldian erori cen lecua.*

(Adoratzen ta bedicatzen zaitugu Cristo gure Jauna, cergatic zure gurutze santuagatic erosi ta salbatu baiciñuen mundua.)

¡Oh nere Jesus, Jaun guciz poderosua! gure maitetasunaz onela auldua, ta lurra jo arteraño gurutzepean macurtua! Zure maitetasun eta pacienci azquengabe orrengatic, eman cerazu zure laguntza nere gaixtaqueri ta pecatuen azpitic, eguiazco damutasu-

naz Zugana jequitzeco, zure gurutzearen ondotic lurreco nequeta naigabe-etan pocic ebilli nadin eta zure arpegui ederra ceruan ecusi dezaten Amen.

*Aita gurea, Erruqui zaite, Jauna, gutaz erruqui...*

---




**Laugarren gueldi aldia**

*Gure Jesus maiteac, calbarioco bidean bere Ama biotzecua topatu zuen lecua.*

(Adoratzen ta bedicatzen zaitugu, Cristo gure Jauna, cergatic zure gurutze santuagatic erosi ta salbatu baiciñuen mundua.)

¡Oh Jesusen eta nere Ama erruquitsua! Zure biotzeco Seme Bacar maite ure, soca bat lepotic, burua arantzaz josia, dena zauri bat eguiña, eta arpeguia odolaz, listuz eta autsaz beltzatua, gurutze-pean macurtua, oñan gañean doi-doiyan cegoala ecusi ciñu-

nean, ¿nolaco atsecabea artu ciñuen? Eta Zuc, Jesus biotzecua, ¿cer naigabea artu ciñuen, ecustean cere Ama maitea, alaco samintasun ta oñacez betea? zoritxarrecua ni ¡bada, olaco naigabe ta oñaceac eman dizquiot nere pecatuaquin Amari eta Semeari! Arren, bion oñace ta naigabe-engatic erditsi cerazue nere pecatuen barcaciua, gueiyago ez eguiteco laguntza eta ceruco gloria. Amen.

*Aita gurea, Erruquitu zaite, Jauna...*



**Bosgarren gueldi aldia**

*Gure Jesus maitiari, gurutzea eramaten laguntzeco, Simon Cireneo eman ciolecua.*

(Adoratzen ta bedicatzen zaitugu Cristo gure Jauna, cergatic zure gurutze santuagatic erosi ta salbatu baiciñuen mundua.)

Nere Jesus maitia ¡Eta ceiñ necatua, auldua eta indar gabe arquitzen ceran calbarioco bidean nere pecatuen cargaquin! Judiuac beldur dire bidean illen cerala, eta ez cupitasunaz baicic Calbarioco gañean gurutzean illtzeco duten gogo aundiagatic

ematen dizute Simón Cireneo gurutzea eramaten laguntzeco. Jauna, Zu orrela ecustean biotz-biotzetic erruquitzen naiz eta nic ere Simonen antzera nai dizut lagundu gurutzea eramaten, mundu ontaco naigabeac eta gurutzeac eramanaz zure maitetasunaz ixillic eta arrencuric eguin gabe, eman cerazu ortaco zure laguntza eta guero ceruco gloria. Amen.

*(Aita gurea. Erruqui zaite Jauna, erruqui...)*

---



**Seigarren gueldi aldia**

*Beronicac Gure Jesus maitiari, arpeguia garbitu cion lecua.*

(Adoratzen eta bedicatzen zaitugu...)

¡Oh nere Jesus maitia, edertasunaren ispillua! ¡Ceiñ erruquigarria juan ciñen calbariora! Arpegui ori icerdiz, autsaz, odolaz eta listuz ciquindua, eta ¿nola garbitu? Denan artetic ateratzen da emacume ausardi aundico bat, eta zutaz erruquituric, urbiltzen da zuregana, quentzen du bere burutic zapia eta garbitzen dizu arpegui eder ori, eta Zuc, oh ne-

re Jesus maitagarria, ordañaz, arrigarrizco eran, uzten diozu zure arpeguiaren antza oyal zuri artan. Era berian, Jauna nere biotzean paratu dezazu zure arpegui ederra, eta Beronica bezala eguiñ nazazu ausardi aundicua, lotsatu gabe denan aurrean Zu aitortzeco eta zure gurutze bidean zucen juateco cerura arte. Amen.

(*Aita gurea. Erruqui zaite Jauna, erruqui...*)

---




**Zazpi garren gueldi aldia**

*Gure Jesus maitia, bigarren aldian lurrera erori cen lecua.*

Adoratzen ta bedicatzen zaitugu Cristo gure Jauna...

¡Nere Jesus maitia! ¡Ceiñ larriac eta pisuac diren nere pecatuac! bada, ayen cargac lurreratu zaitu bigarren aldian, eta nola guerogo ta aulago eta necatuago baizaude, zutitzeco arquitzen cera indarric gabe. Jauna, zure erortze errucarri orregatic eguizu eznadin ni gueyago erori pecatuan eta eman cerazu oraiñ arte eguiñ

ditutenac gorrotutzeco gracia eta Zu maitatuaz erditsi dezaten ceruco gloria. Amen.

(*Aita gurea. Erruqui zaite Jauna, erruqui...*)

---



**Zortzi garren gueldi aldia**

*Gure Jesus maitiac, bere ondotic negarrez zuacin Jerusalengo emacumiari itz eguiñ cion lecua.*

(Adoratzen ta bedicatzen zaitugu Cristo gure Jauna, cergatic zure gurutze santua-gatic...)

¡Nere Jesus maitia! ¡biyotz erruquitsu ta gozocua! Ecusten dituzu Jerusalengo emacume on-ayec zutaz negarrez: ta zure oñaceac atzenduric, oroitzen cera gutaz, ta esaten diozu: ez eguiñ negarric nitaz, eguiñ dezazue obequi zutaz eta zuen umetaz, bada, ne-

re Aita Beticuac ola eguiten badu nerequin, cergatic artu dituten bertzeren pecatuac nere gañean, ¿cer ez du eguingo pecatari beraquin? Jauna, nere pecatuaz bear bezala negar eguiteco gracia eman cerazu, guero entzun dezaten nere anima ceruratzeco zure dei pozgarria. Amen.

*Aita gurea. Erruqui zaite, Jauna: erruqui...*




**Bederatzi garren gueldi aldia**

*Gure Jesus biotzecua irugarren aldian erori cen lecua.*

(Adoratzen ta bedicatzen zaitugu Cristo gure Jauna...)

¿Cer da au, nere Jesus maitia? ¿Zu, cerua ta lurra eguin cintuen Jauna, lurrera eroria beiñ, bi ta iru aldiz? ¿eta cer? nere ume maitia, etzara zu erori pecatuan beiñ, bi ta iru aldiz baño gueiyagotan? zu pecatutic ateratzeco, zuc oitura txar aiyec utzitzeco, zu berriz beiñere pecatuan ez erortzeco, erortzen naiz ni beiñ bi ta iru al-

diz, zu ceruratzeco eramaten ditut olaco oñaceac eta naigabeac.

Esquerrac anitz, nere Jesus ona, zure erortze negargarri eriotzaz eta zure nereganaco maitetasun aundi orretaz: eman cerazu oraiñ gracia goratzeco nere pecatu eta esquergabequerietatic, berriz beiñere ez erortzeco. Amen.

*Aita gurea Erruqui zaite Jauna, erruqui, eta zure erruquitasunaz anima difuntuac...*




**Amar garren gueldi aldia**

*Gure Jesus maitia, gurutzean josteco erantzi zuten lecua.*

(Adoratzen ta bedicatzen zaitugu Cristo gure Jauna, cergatic zure gurutze santuagatic...)

Ceruac eta lurra jauzten dituen Jaun ure, arbolac ostoz ta campoac lorez estalzen dituen Jaun ure, paratzen dute larrugorrian, egunen erdian ta ainbeste jende-en aurrean, eguiten diotela irri ta burla. ¡Oh Ainguerua̧c baño garbigua ceran nere Jesus maitia! ¿Nolaco lotsa ta naigabea artu ciñuen cere burua ainbeste

jenden aurrean era lotsagarri artan ecustean? ¿Eta nola ez naiz ni lotsatzen nere lasoqueriaz, nic aiñ aisa eguiten dituten pecatu ciquiñ gucietaz? jaquiñic oyec direla Zu era lotsagarri ta erruquigarri orretan paratu zaituztenac? Jauna erruqui zaite nitaz eta eman cerazu zure łaguntza berriz beñere ez erortzeco pecatu itsusi ciquiñetan ta bici nadin emindic aurrera Ainguеruan antzera ta erditsi dezaten ceruco zoriontasuna. Amen.

*(Erruqui zaite, Jauna, erruqui ta zure...)*




**Amaica garren gueldi aldia**

*Jaungoicuaren Semea gurutzean josi zuten lecua.*

(Adoratzen ta bedicatzen zaitugu Cristo gure Jauna, cergatic zure gurutze santuagatic...)

Ecusten dezu cristaba, ¿nola zure Salbatzale maitia arquitzen den zure pecatuac mereci zuten guatze gogor orretan? Ortxen dago zure Jesus maitia, iru itzeequin josiric, gurutze roretatic cincilica, gaizqui-eguille bat bailitz bezala, alde gucietatic odola arraca, oñacez ta naigabez betea: ecusten du nola irri ta burla eguiten dioten, aditzen ditu ango bi-

rauac edo blasfemiac, ala ere, erruquitasunaz beteric bere gaizqui-eguillean alde, eguiten dio otoitz bere Aita Beticuari, esanaz: nere Aita, barca zayozu ez daquite cer eguiten duten. ¡Ay! ¡ceiñ icaspide edo ejemplo ederra ematen digun eta nola eracusten digun, gure Jesus maitiac, cer eguiñ bear degun, gure etsai ta gaizqui-eguilleaquin ¡bada Jesus onac eracusten ta aguintzen digu barcatzeco biotzetic gure etsai ta gaizqui-eguilleari: berac gure pecatuac barcatzen dizquigun bezala.

¡Ay Jauna! ecusiric zure ontasuna eta zure biotzeco maitetasuna, ez gueyago pecaturic, ez gueygo gorroturic, eta oraiñ eguizu, gure escu ta oñetaco pecatuen cateac autsi ta zure beldur ta maitetasunezco itziaqnin josita beti bici gaitecen zure biotzean. Amen.

*(Aita gurea. Erruqui zaite, Jauna, erruqui, eta zure erruquitasunaz...)*



**Amabi garren gueldi aldia**

*Gure Jesus maitia, gurutzean guregatic ill cen lecua.*

(Adoratzen ta bedicatzen zaitugu, Cristo gure Jauna, cergatic zure gurutze santuagatic...)

Ecusi dezazu, cristaba, nola dagon gure Jesus maitia gurutze orretan, eciñ esan-alaco oñacez ta naigabez betea, bi lapurren erdian ¡oyetaco batec esatendio, Jauna, erruquitu zaite nitaz, eta Jesuen biotz maitagarriac esaten dio: gaur egonen cera nerequin ceruan. ¡Ah pecataria, ta ciñ agudo erditsico ciñuque cere

pecatuen barcaciua eta Jaungoicuaren adisquidetasuna, ciñez erruquituric biotz biotzetic biurtzen bacera Jaun orregana! baño utzitzen badezu cere biurtze ori azqueneco orduraco, bicitzen bacera oraiñ arte bezala, pecatuzpecatu, batez ere blasfemiazco pecatu icaragarrian erortzen bacera, beldur izan bear dezu lapur gaistuaren antzera illen cerala cere pecatuan eta infernuratuco cerala betico. ¡Oh nere Jesus maitia! ¡Zu ill cera gurutze orretan, eraman dezu olaco eriotz icaragarria, pecatariac zuregana biurtzeco ta denac ceruratzeco! ¿Eta nola ordainduco dizugu guregatic eguiñ dezun gucia? Ay Jauna, ez gueiyago pecaturic, ez gueiyago esquer-txarric, batezere, ez dadiela gueigo aditu munduan blasfemiric, lenago ill, Jauna, Zu berriz ofenditu baño.

*Aita gurea, Erruqui zaite Jauna...*



**Amairu garren gueldi aldia**

*Gure Jesus maitiaren Gorputza, gurutzetic jeutsi ta, bere Amari eman cioten lecua.*

(Adoratzen ta bedicatzen zaitugu, Cristo gure Jauna, cergatic zure gurutze santuagatic...)

¡Oh nere Ama maitia! ¡Ama oñacez ta naigabez betea! Zure Semea ill da, ta nere pecatuac izandu dire ure ill duten borreruac: nic itzali dut zure beguietaco arguia, nic zauritu, puscatu, urratuta gurutzean josi dut gorputz eder ori, eta olaco eriotz icaragarria eguiñ dutena, ¿nora

juanen naiz? ¿nun gordeco naiz? Aundia bada ere nere pecatua, aundiagua da zure erruquia, zure besuetan, bada erortzen naiz ¡Oh Ama erruquitsua! ez nazazu bota zure ondotic, eta Jesusen burua, escu-oñac ta biotza idequia ecustean, artu ciñuen oñace ta naigabeangatic erditsi cerazu nere pecatuen damua, nere pecatuentzat oraiñ emin illta guero ceruan betiraunde gucian bici nadin Zurequin. Amen.

*Aita gurea. Erruqui zaite, Jauna, erruqui, eta zure erruquitasunaz anima dituntuac erditsi dezaten ceruco gloria.*



**Amalau garren gueldi aldia**

*Gure Jesus maitiaren gorputza obiratu edo enterratu zuten lecua.*

(Adoratzen ta bedicatzen zaitugu Cristo gure Jauna, cergatic zure gurutze sautuagatic erosi ta salbatu baiciñuen mundua.)

¡Oh Amaric maitiena eta oñacez betiena! ¿Norc aguertu zure samintasunac ta naigabeac, zure biotzeco miñac, ecustean cere besuetan gorputz eder ure, zauritua, zulatua, puscatua, odolaz belzatua ta illa? Aundia bada ere samintasuna ori, daucazu cere besuetan, cere beguietaco negar

tantaquin garbitzen dezu, cere biotzaren onduan estutzen dezu, baño obiratu edo enterratzen dutenian... ¡Oh Ama atsecabetua! ¿nola aguertu zure naigabeac, gueldituu ciñenean cere bacartasun negargarri artan? ¡Oh martiren Erreguiña! Bacartasun samiñ orretan Zuri lagun eguiñ nai dizut eta Zuc erditsi cerazu nere pecatuen damu aundi bat, lurreco gauza guciac utzita galbariuac maiz eguiñaz, zure Seme Jesus ta Zu ceruan beti maitatzeco zoriontasuna. Amen.

*Aita gurea. Erruqui zaite, Jauna, erruqui, eta zure erruquitasunaz anima difuntuac erditi dezaten ceruco gloria. Amen.*

*(Jesusen bost zaurieri bost Aita gure edo bat. Aita Santuan gogora, Aita gure bat.)*

**Eriotzeco ordu on bat erdisteco, egunero eguiñ : : bear diren otoitzac : :**

Adoratzen dut, nere Jaungoicua, Zure neurri gabeco Anditasuna: aitortzen dut cerala gauza gucien goyeneco Jauna, ta Jabea, cere escuan daucazu bicia ta eriotza, eta neretzat erabaqui edo illtzeco eman dezun sentencia gogo onez artzen dut, cerbait gozagarri Zuri ematecc, eta zure Seme aguitz Santuac neregatic eraman zuen eriotzaquin batean esquintzen dizut, beraren bidez Zureganaco beguirapen aundi bat adirazi, ta oraiñ arteco bicitza txarrangatic, gozagarrien bat eman asmoan.

Eriotza ta beraquin daramazquin quezca, estutasun, beldur, garraztazun, istillu, samintasun,

icara ta larritasun guciac, oraintxetican ontzat artzen ditut, Zure escutic eldu diren bezala.

Bai, nere Jaungoicua, nere anima gorputzatic alde eguitea, zuregandic pecatuen bidez anitz aldiz alde eguin izan dutelaco, ontzat artzen dut.

Zentzunac edo sentiduac galtzea, ta burutican nasi ta gueldi-tzea ere ontzat artzen ditut: Zure escu zabaletic artutaco doai bicaiñ oyec, Zu naigabetzeco anitz aldiz, erabilli izan ditutelaco.

Jauna, nere gorputza oñazpiratua, ar eta momorruac jana, usteldu ta auts biurtua izatea, ontzat artzen dut, Zure gogo doitsua baño, nerea nayago izatean, eracutsi nuen arroquerian ordez.

¡Oh arrac! ¡oh nere gorputzurratze, guizonac uzte, sepulturaco quirats nazcagarria! ¡auts ciquiñac! ontzat artzen zaituztet eta beguiratzen dizutet Jaungoicuaren Justicia baiciñete bezala.

Zucen bidecua da, emin poz-ciquiñ ta araguiaren atseguiñ loiyen atzetic ebilli direnac, orrela porracatuac izatea.

Bai: zucen bidecua da, besteen naiya eguiñ, eta oyengandic cerbait artzeagatic, Jaungoicua ta betico zoriontasuna ainbeste aldiz, ezertan artu ez duena, bestean artetic bota eta atzendua izatea.

Gauza bat bacarra escatzen dizut, nere Jaungoico maitia, Elizacoac, denboraquin eta debocio aundiaquin artzea, Sacramentuac artzen, oraiñ zabar ta utzia naicelaco, doai au, garai artan eman nai ezpadirezu, fede, esperanza, caridade ta damutasunezco eguintzetan beintzat ill nadila, eguin zaidazu Jesus Maria ta Joseren icen gozoac esanaz:

Ainguerüac nere anima cerura eraman dezaten Zu betiraunde gucian neretzat izateco. Ala izandedila.


DEBERNY

**Eriotz on bat eguiteco, Jesus gurutze-ficatuari :: :: :: :: escariac :: :: :: ::**

¡Nere Jesus maitia! ¡Jaungoico on-ona! ¡erruquitasunezco Aita! Biotz apal, damutu ta samurraz eldu naiz Zure aurrera, nere azquenaco ordua eta aren ondotic guertatuco zaitena, zure escuetan utziaz.

Nere oñac, deuseztaco ezdirela guelditu ta, nere bicia azquenacotan dagola adiracitzen diretenian...

*R. Jesus erruquitsua, nitaz erruquitu zaite.*

Nere escuac gogortuac eta dardaraz gurutzea eciñ iduquiz ta nic nai ez izanta ere, guatzean gaiñera erortzen utzitzen dutenian...

*R. Jesus erruquitsua, nitaz erruquitu zaite.*

Nere beguiac, eriotzac ematen dioten beldurraz nastu ta illundu-

ric, indargabeco beguiratzeac ematen dizutenian...

*R. Jesus erruquitsua, nitaz erruquitu zaite.*

Nere ezpañac, oztuac eta motel-motelac, Zure icen santua azqueneco aldiz esaten dutenian...

*R. Iesus erruquitsua, nitaz erruquitu zaite.*

Nere matel ezurrac, ubelduac erruqui-icara ematen: eta nere buruco illeac, eriotz icerdiz bustic eta biurtuac, nere azquen garaya agudo eldu dela adiracitzen diretenian...

*R. Jesus erruquitsua, nitaz erruquitu zaite.*

Nere entzumenac edo belarriac, guizonen solasac beñere gueyago ez aditzeco ordua etorzen denian, eta betiraunde gucico nere zoria nolacua izanen den sentencia aditzeco idequitzen direnian...

*R. Jesus erruquitsua, nitaz erruquitu zaite.*

Nere irudimena edo imaginaciua, ondotic guertatu bear icaragarriri beguiratu ta, estutasun larriaz inguraturic, eta nere anima, eguiñaco pecatuac ecusi ta nastua, eta Zure Zucentasunac edo Justiciac beldurturic, Zure erruquitasunan izanen duten esperanza quendu ta infernura eraman naiyaz, etasaiy infernucua ebiltzen denian...

*R. Jesus erruquitsua, nitaz erruquitu zaite.*

Nere biotz argala eta eritasunaren oñacez betea, eriotz-icarac izutua eta infernuco etsayaquin borrocan ler eguin ta necatu ta indargabetua dagonian...

*R. Jesus erruquitsua, nitaz erruqutu zaite.*

Jauna, nere ondarraco ordua adiracico duten azquenaco negartantac ixurtzen ditudenian, nere pecatuen ordaingarritzat artu ditzazu, ni ill nadin damutasunezco

esquin-gai bezala, ta garai icaragarri artan...

*R. Jesus erruquitsua, nitaz erruquitu zaite.*

Nere aide ta lagunac, nere inguruan jarriric, nitaz cupitu ta nere alde otoitz eguiten dizutenian...

*R. Jesus erruquitsua, nitaz erruquitu zaite.*

Zentzunaz edo nere gorputzeco sentiduaz ecin baliatuz, emingo gauza guciac nere beguian aurretic itzaldutzen direnian: eriotz-ixtilluta azqueneco larritasunetan sarturic, adica edo suspiroz nagonian...

*R. Jesus erruquitsua, nitaz erruquitu zaite.*

Azquenaco asbera edo suspiruac bulcatzen dutenian anima gorputzatic ateratzeco: Zuregana juateco gogo aundi batec sortuac bezala, artu ditzazu, ta ordu artan.

*R. Jesus erruquitsua, nitaz erruquitu zaite.*

Nere anima gorputzatican betico ateratzen denian, gorputza, otz, ori ta illa utzi ta, nere gorputz-urratze ori, Zure Aunditasunari ordaintzen dioten zor bat bezala artu ditzazu, ta garai artan...

*R. Jesus erruquitsua, nitaz erruquitu zaite.*

Azquenic, nere anima Zureganа juan-ta Zure Aunditasuna lenbicico aldian ecusten duenian, Zure aurretican ez dezazula bota, Zure magal gozo erruquitsuan, arren, artu nazazu, orrela Zure alabantzac betiraunde gucian canta dezaten ceruan.

Ala izan dedila.

## OTOITZA

Oh nere Jaungoicua, illtzeco erabaquia edo sentencia emanta, eguna ta ordua, ordea, etziñuen aguertu, nere bicico egun gucietan garbi-garbi ta pecaturic gabe bici-ta, Zure maitetasun eta adisquidetasunean illtzeco doaiya

eguin zaidazu. Zu ta Espiritu Santu Jaunarequin bici ta Aguintari den Jesucristo gure Jaunaren eta bere Ama Santaren irabaciangatic. Ala izan dedila.

### MAITETASUNECO EGUINTZA

¡Nere Jauna ta Jaungoicua! Zure gogoco edoceiñ guisaco eriotz, bere larritasun, beldur ta oñacez betea, oraintxetican eta gogo onez artzen dut.

(Confesatuta Jauna artuta, maitetasuneco eguintza au eguiten duenac, eriotzeco orduraco barcapen osoa irabaci lezaque. Pius X. 9 Mart. 1904.)



**Errosario Santua**

Amabost misterio ditu errosario osuac: esaten dire misterio bacotxean *Aita gure bat eta amar Ave Maria ta glori bat.*

Gaurco egunean, oitura da esatea bost misterioco zati bat eta Ama Birgiñaren letaniac.

Arrosariua errezatu gabe ez guelditu beñere, errezatu egunero eta albadezu familli gucia bil-

tzen denian, denac batean errezatu Ama Birgiñaren laguntza erdisteco eta Aita Santuac emanaco barcapenac irabazteco. Gogoratu edo meditatu piscobat misterio bacotxean.

Asieran esan:

*Gurutze santuaren... Nere Jesucristo Jauna.*

*V.* Ave Maria, gratia plena, Dominus tecum.

*R.* Benedicta tu in mulieribus, et benedictus fructus ventris tui Jesus.

*V.* Domine labia mea aperies.

*R.* Et os meum annuntiabit lauden tuam.

*V.* Deus in adjutorium meum, intende.

*R.* Domine, ad adjubandum me festina.

*V.* Gloria Patri et Filio et Spiritui Sancto.

*R.* Sicut erat in principio, et nunc, et semper et in saecula saeculorum, Amen.

Maria Ama gracizcua ta erruquizcua, gorde ta zaitu gaitzatzu gure etsayatatic oraiñ ta gueuren eriotzeco orduan.

### MISTERIO POZEZCUAC

**(Astelen ta Ostegunetan)**

*Lenbicico misteriua:* Jaungoico Semearen guizon-eguitea (Aita gurea, amar Ave Maria, Gloria ta Maria Ama gracizcua).

*Bigarren misteriua:* Ama Birgiñac bere lengusu Isabel Santari, eguiñ cion bisita.

*Irugarren misteriua:* Jesucristo gure Jaunaren Jayotza, Belengo estalpean.

*Laugarren misteriua:* Ama Birgiña elizan sartutzea.

*Bosgarren misteriua:* Jesus aurtxua galdu ta elizan arquitua.

### NAIGABEZCO MISTERIUAC

**(Astearte ta Ostialitan)**

*Lenbicico misteriua:* Jetsemanico baratzean Jesusen otoitza.

*Bigarren misteriua:* Jaungoicuaren Semearen azoteac.

*Irugarren misteriua:* Arantzazco coronatzea.

*Laugarren misteriua:* Gurutzea bizcarran artzea.

*Bosgarren misteriua:* Jesucristoren gurutzean josi ta illtzea.

**MISTERIO ZORIONECUAC**

**(Asteazquen, larumbat ta igandeetan)**

*Lembicico misteriua:* Jesucristoren bistuera.

*Bigarren misteriua:* Jesucristoren cerura igotzea.

*Irugarren misteriua:* Espiritu Santuaren etorcea.

*Laugarren misteriua:* Ama Birgiñaren bere gorputz ta animaquin ceruratzea.

*Bosgarren misteriua:* Ama Birgiñaren ceruan coronatzea.

## AMA BIRGIÑAREN LETANIAC

Kyrie, eleison.—R. Kyrie, eleison
Christe, eleison.—R. Christe, eleison.
Kyrie, eleison.—R. Kyrie, eleison.
Christe, audi nos.—R. Christe, audi nos.
Christe, exaudi nos.—R. Christe, exaudi nos.

Pater de Cœlis Deus,
Fili Redemptor mundi Deus,
Spiritus Sancte Deus.
Sancta Trinitas unus Deus,
} *Miserere nobis,*

Sancta Maria,
Sancta Dei Genitrix,
Sancta Virgo Virginum,
Mater Christi,
Mater divinæ gratiæ,
Mater purissima,
Mater castissima,
Mater inviolata,
Mater intemerata,
Mater immaculata,
Mater amabilis,
Mater admirabilis,
Mater Boni Consilii,
Mater Creatoris,
Mater Salvatoris,
Virgo prudentissima,
Virgo veneranda,
Virgo prædicanda,
Virgo potens,
} *Ora pro nobis,*

Virgo clemens,
Virgo fidelis,
Speculum justitiæ,
Sedes sapientiæ,
Causa nostræ lætitiæ,
Vas spirituale,
Vas honorabile,
Vas insigne devotionis,
Rosa Mystica,
Turris Davidica,
Turris eburnea,
Domus aurea,
Fœderis arca,
Janua cœli,
Stella matutina,
Salus infirmorum,
Refugium peccatorum,
Consolatrix afflictorum,
Auxilium christianorum,
Regina Angelorum,
Regina Patriarcharum,
Regina Prophetarum,
Regina Apostolorum,
Regina Martyrum,
Regina Confessorum,
Regina Virginum,
Regina Sanctorum omnium,
Regina sine labe originali concepta,
Regina Sacratissimi Rosarii,
Regina Pacis.

*Ora pro nobis,*

*V.* Agnus Dei, qui tollis peccata mundi.
*R.* Parce nobis Domine.
*V.* Agnus Dei, qui tollis peccata mundi.
*R.* Exaudi nos Domine.
*V.* Agnus Dei, qui tollis peccata mundi.
*R.* Misserere nobis.
*V.* Ora pro nobis Sancta Dei genitrix.
*R.* Ut digni officiamur promissionibus Christi.

## OREMUS

Deus, cujus Unijenitus per vitam, mortem et resurretionem suam nobis salutis æternæ præmia comparavit: concede quæsumus: ut hæc mysteria sanctissimo Beatæ Mariæ Virginis Rosario recolentes, et imitemur quod continent et quod promittunt assequamur, Per eundem Christum Dominum nostrum. Amen.

## BERTZE OTOITZA
## OREMUS

Gratian tuam, quæsumus Domine, mentibus nostris infunde, ut qui Angelo nuntiante Christi Filii tui incarnationem cognovimus, per passionem ejus et crucem ad resurrectionis gloriam perducamur. Per eundem Christum Dominum nostrum. Amen.

Divinum auxilium maneat semper nobiscum. Amen.

**Urriroco illabetean arrosario ondoren Jose Santuari esaten den otoitza**



Zuregana eldu guera, zorioneco Jose, gure larritasunean, eta zure Emazte aguitz santaren laguntza escatu ta ondoren, zure bitartecotasuna escatzen dizugu uste osoaquin. Maria Birgiña, Jaungoicuaren Amari izandu ciñion onguinai-angatic eta Jesus Aurra besarcatu ciñuen maitetasunangatic, escatzen dizugu lagun zaiguzula erditsi dezagun Jesucristoc bere odol bicañaz guretzat, irabacitacoa, eta zure indarraz

azcartuta gure bear guciac estali.

¡Familli doitsuan zaitzale aguitz zintzoa! ¡zaitu dezazu Jesucristoc autatuco erria. Aita maitagarria! ¡gorde gaitzatzu pecatuen mantxa eta guezur gucietatic, Gure azcatzale edo libratzale aguitz indarsua! cerutic beguionez beguiratu ta lagun zaiguzu infernuco etsayaquin eguiñ beardegun borroca ontan, eta len Jesus Aurra eriotzeco arriscotic libratu ciñuen bezala, gorde zazu oraiñ ere Jaungoicuaren Eliza Santa bere etsayen biurqueri ta zorigaitz gucitatic, zure laguntza indarsua beti eman zaiguzu: Zu bezala san tutasunean bici gaitecen, eriotz ona eguiñ ta betico zoriona ceruan erditsi dezagun. Ala izan dedila.

(Aita Santu León XIII garrenac eguiña. Urrillian errosario onduan 7 urte ta 7 berrogueico barcapena. Egunean beiñ 300 egun...)



**¿BIRGIÑA MARIAC**
**gure etxera illabetero eguiten digun bisita cerda?**

Da gure Ama maitia onratzeco modu berexi bat. Ogueita amar

etxecotarrac elcar artuta, berexten dute illabetian egun jaquiña, Mariaren imagiña etorceco, eta ogueita lau ordu pasatzen ditu etxe bacotxian Ama maiti orrec. Birgiña Maria eldu da, Isabel bere lengusia bisitatzera juantzen bezala, ongui eguitera, gu eta gure etxeac ontasunaz betetzera, guri laguntzera gueuren animac ceruratzeco: Ez egon bada alferric ordu orietan: familli gucia billu, denac batean otoitz eguiñ, oitura txarrac utzi, Ama maitia orren debociua zabaldu, denac batean arrosario santua errezatu, oitura ona au artu, pecaturic eguiñ gabe bici, Mariaren maitetasunaren suan gueuren biotzac quixcali eta familli guciac ceru ratu: orra cer esan nai duen Birgiña Mariaren illabeteroco bisitac, ontasun oriec eta gueiago ixurico ditu gure etxeetan Ama maiti orrec, baldiñ artzen badegu beraren imagiña bear den be

zala, lealtasun, maitetasun eta errespeto aundiaquiñ.

Erri aunitztan zabaldua dago oitura eder au, baño ez denatan: esca zaiogun bada, Ama maiti orreri, erri gucietan zabaldu dedin beraren illabeteroco bisita au: artaraco uquitu eta muguitu ditzala Apez gucien biyotzac, oyec, iñorc baño obequi zabaldu dezaqueten ezquero debocio eder ori.

### BIRGIÑA MARIA
### etxera etortzean esaten den otoitza

Oh gure Ama maitia, Birgiña Maria, lili guciac baño garbigua, ongui etorria izan zaite etxe txiqui deus-ez ontara: esquintzen eta ematen dizugu gure bici-toqui au eta nai degu Zu izatea emingo Erreguiña ta Etxeco-Andrea.

Auspezturic, gu ecustera ta gurequin egotera etorri den Zure imagiñaren aurrean aguintzen

dizugu, egonen guerala beti lealac eta aspertu gabe zure serbitzuan eta sayatuco guera, dazaquegun eran, mundu gucian zabaltzera zure aguintaritza.

Indar guciaquin nai degu Zuc mundu gucian aguintzea, erreguen Erregue eta jaunen Jauna den Jaungoicuaren Alaba, Ama, eta Esposa ceran bezala. Baño, nola zure aguintze au eta pecatua ez diren ongui eldu, nai degu lecutu gure gandic pecatua, artaraco ematen dizugu itza gaurtic aurrera ez degula egon nai pecatuan.

Zu, bada, gure Ama maitia, ceralacoz gucia dezaquezuna, Jaquintsua eta Erruquitsua, eguizu, Jaungoico Aitac eman cizun escubidez, garaitu ditzagun gure etsayan tentaciuac ta asmo gaistuac, etxe ontara beñere sartzera eta egotera utzi gabe: Zure Seme Jaungoicuac eman cizun, Jaquinduriaquin arguitu ditzatzu gure

adimenac, icaste gaisto, uquer ta dudatan ez gaitecen erori. Zure Ezposo Espiritu Santu Jaungoicuac eman cizun erruquitasunaquin bistu dezazu gure biotzetan, Jaunaren maitetasunaren sua, alaxen maitatuaz Jaungoicua gauza guciac baño gueyago ta lagun urbillacua gueuren buruac bezala Jaungoicuagatic, erditsi dezagun betiraunde gucico zoriontasuna.

Jaungoicuaren eta gure Ama maitia, Birgiña guciz garbia, bedicatu dezazu gure etxea eta etxecoac, bedicatu gure lanac, nequeac eta gauza guciac: aguindu dezazu gure eta guizon-andre gucien biyotzetan: eguin zazu maitetasunezco bici-toquia eta egon-lecua denan biyotzean.

Erri guciac, Zu maitatuaz, adoratuaz ta errespetauaz bici deitecen, zure bicitzaz, Jesus bicitu cen bezala, Jesusen antzecuac izanaz, Cristoc aguintarietan eta

mundu gucian, eguiaz aguindu dezala beraren paquean bici deitecen.

Oh Maria, Ama erruquitsua, mesede oyec guri eman gabe ez guelditu, eta Zu gueigo ta gueigo beartutzeco, escatzen degu zure laguntza esanaz iru Ave Mari, zure almen, Jaquinduri ta erruquitasunan oroipenan *(iru Ave Mariata gloria)* adoratu imagiña esanaz: «Maria Ama nerea, ni cere escutic iduqui, pecatuan ez nadin erori.

**Birgiña Mariaren imagiña etxetic joatean eguiten den otoitza**

Oh ceruco ta lurreco Erreguiña, gure Ama maitia, etorri da, Zu, gure etxetic juateco garaiya eta biyotza naigabez beteric esaten dizugu: «Agur, Amatxo maitia, ez gutaz atzendu:» berritzen dizquizugu, gure etxera etortzian emanaco itzac. Zu erruquitu zaite gutaz eta lagundu be-

ñere cere escutic utzi gabe: egon zaite beti gure biotzetan, Jaungoicuaren serbitzuan bici gaitecen eta ill arte beraren gracian ata maitetasunan iraun dezagun.

Eta baldin, Jaungoicuac ala nai duelacoz, etxe ontaco bat edo bat illen balitzeque zure imagiña maiti au berriz etorri baño lenago, lagun zayozu eriotzeco orduan, indartu garai artan bere fedea, esperanza ta caridadea, zure laguntzaquin ill dadin Jaunaren maitetasunean, guero zurequin arquitzeco denac ceruan.

Ala izan dedila.

(*Iru Ave Maria ta Gloria eta adoratu imagiña.*)

**Arantzazuco Ama Birgiñari otoitza**



¡Oh Birgiña Maria, Jaungoicuaren eta nere Ama maitia! Oreb deitzen den mendian sutan eta erre gabe Moisesec ecusi zuen sasi ure, zure iduritzat ezagutzen degun ezquero, oh Birgiarantzan gañean zaudena, eguizu, griña edo pasio txarren su ta garretan ez gaitecen erre eta pecatuen arantz zorrotzac ez gaitecen zulatu.

Euscal-erriac izandu duen idorte aundienataco batean, oh Arantzazuco Ama maitia, euri gozua ecarriaz, cere burua aguertu ciñuen ezquero, Alaña mendi orretatic, begui onez beguira zaiguzu, gure animac ceruco doaiyaz bete, gure erreguac beti entzun

eta gure lurrac bear denian euri onaz ase ditzazu. Izan zaite bada beti gure Ama erruquiosa, eta ez gaitzazula utzi ceruratu arte escatzen dizugu. Ala izan dedila.



**Birgiña Maria Carmenguari**

**Otoitza**

¡Carmengo Ama maitia! Zure escapulario santua, onez deramagunac, eriotzeco orduan, zure laguntza berexia erdistea uste degun ezquero, gaurtic aitziña, gu-

re pecatu guciaz biotez damututa, maitetasun bero batequin gure Jaungoicua maitatuaz bici gaitecen erditsi zaiguzu, Jaunaren adisquidetasunean ill ondorean, Purgatoriotic len baño len ateri-ta, betiraunde gucian zurequin batean bici gaitecen ceruan.

Ala izan dedila.

## Birgiña Maria Lourdescuari otoitza

¡Ceru ta lurreco Erreguiña, Lourdesco Ama maitia! ¿Zuri laguntza escatu dizuten guciari entzun badiezu, gu bacarrac utzico gaituzu entzun gabe eta gueuren premi aundi ontan lagundu gabe? Ez degu uste: orregatic Ama erruquitsua, uste osoaz agur eguiten dizugu esanaz: «Lourdesco Ama maitia gutaz otoitz eguizu»

(*Iru aldiz esan ta errezatu iru Ave Maria.*)

**Francisco Jabier Santuari bederetzi urrena.**

*(Berac Aita Mastriliri eguiteco aguindua epaila edo martxuan 12-an., baño edocin beartasunean eta edocein denboretan eguin deique.)*

**OTOITZA**

